


Maite Teologia edo Baztergo Teologia



Félix Zubiaga

**Maite Teologia edo
Baztergo Teologia**

Félix Zubiaga

AURKIBIDEA

ATARIKOAK	9
0. 1. Azter bideak.....	10
0. 2. Arkeologiaren iraultza.....	11
0. 3. Arkeologoa misiolari.....	12
0. 4. Etsaigoaren erantzuna.....	13
I. MAITE TEOLOGIA: AMA.UTU>AMATU	14
1.1 <i>Amatu</i> >amodiozko Baradisuan.....	14
1.2. Ma.aT/ NuT sorkuntzan.....	16
1.3. Ma-aT-en aginduak.....	17
1.4. Asieran No eta To>NUT ziran.....	19
1.5. Andre maila.....	20
1.6. GeB GaBearn zoria.....	21
1.7. Agindua sor.....	22
1.8. Osiris-en zero zoria.....	23
1.9. Maite Jainkosen geigarria.....	24
1.10. Gizakia, Ohore Ontzi.....	26
1.11. Gizakia, Aserre ontzi.....	26
1.12. <i>Baratzetu</i> > <i>Baradisu</i>	29
1.13. <i>Ur</i> eta <i>uribe</i> uneak.....	30
1.14. Sumerreko jakinduriak.....	31
1.15. Egiptoko jakinduriak.....	32
1.16. Nortzu garen arketipoen etxean.....	34
1.17. <i>Nor, zer</i> arketipoen izendegian.....	34
II- BAZTERGO TEOLOGIA: AMAKATU>MAGIA	36
2.1. Ugarit beste kultura.....	36
2.2. iLu jainkoaren nortasuna.....	37
2.3. Menfisko etorkiñak.....	38
2.4. “Menfisko Sorkuntza Teologia”.....	40
2.5. “ <i>Īno in = esan izan</i> ” hitzaren magia.....	40
2.6. Magia, teknika egiña?.....	41
2.7. Magia eta sinismena.....	42
2.9. Ama baztertzea den antiekultura.....	43
2.10. Icoak eta <i>Exodo</i> goraberak.....	44
2.12. Nolako jainkoa, halako gizartea.....	46
2.13. Mortuko>amortarrak Sumerren.....	47
14. uTu/Shamash eta Enlil Jainkoak auzian.....	48

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta

ISBN: 978-84-09-38014-5

Lege Gordailua: BI-00173-2022

Imprimaketa: Printhus, sl

Autorearekikoa

Telefonoa: 94 673 04 86

2.15. Eraikintzaren andiz, <i>Etxarra</i> Babilonian.....	50
2.16. <i>Enuma elish</i> , Babiloniako Sorkuntza Poema.....	51
2.17. Ma.aT zelakoan, Jainkosaerail zuten.....	54
2.18. <i>Baal alena</i> eta Kartagoren azkena.....	55
2.19. Adapa/Abate>Sabat eta arketipoen logika.....	56
2.20. Baztergoaren beste jakin bideak.....	57
2.21. Genero eta queer burubideak.....	58
2.22. Baztergoaren beste asmakizunak.....	59
2.23. Gnosia baztergo bidean.....	61
2.24. Logos, lekukoa lekuan.....	63
2.25. Gramatika orrasten.....	64
2.26. Anaiek arrebaren aurka.....	66
2.27. Intsumisua igarle.....	66
2.28. Xekina, Jainkosa baztertua.....	67
III. BERRIZKUNTZA TEOLOGIA.....	68
3.0. Arkeologia eta Ekologia deika.....	68
3.1. Emakumea ararteko.....	69
3.2. Maria, inñularretan argia.....	70
3.3. Amaren sabela ostera ere.....	71
3.4. Magoak eta Erodes Belenen.....	72
3.5. Maria Kana-ko ezteguetan.....	73
3.6. Tiron fede geiago Israelen baiño.....	74
3.7.1. Jatorrizko herrien Espiritua.....	76
3.7.2. Jatorrizko kulturen baztergoa.....	77
3.8.1. Jesus eta Sinagogako deabrudunak.....	78
3.8.2. Jesus herritik kanpora urtikia.....	79
3.9.1. Jesus Moisen Legearen aurrean.....	80
3.9.2. Emakume bekataria.....	81
3.9.3. “Asieran ez zan horrela”.....	82
3.10. Espirituari uts egiterik ez dago.....	82
3.11. Jesusek Temploa garbitzen.....	84
3.12. Graziak gaintitzen gaiztakeria.....	85
3.13. Kristoren Nekaldiari falta zaiona.....	87
ONDORENAK.....	90
MITOANALISIS PARA EL DICCIONARIO ETIMOLÓGICO.....	92
BIBLIOGRAFIA.....	104

Siglen irakurketa: (s) sumeriera, (k) koptoa, (eusk) euskera, (u) ugaritiera, (h) hebraiera, (g) gerquera, (li) libikoa, (l) latina, (ga) gallegoa, (ca) catalana, (gaz.) gaztelania, (f) frantxesa, (i) ingelesa, (it) italiara, (al) alemaniera.

ATARIKOAK

Maite Teologiak aMa+aiTa bere adinako jainko izenak, M+T abotz eta arketipo direnak, aitortzen ditu. Euren sorkuntzari esker, gizarte familiako seme-alaba gara eta eurengan ikusten zuten gure asabek sorkuntzaz zekiten guztia, Eridun agertu taulak *ama.utu. an.ki* “ama(k) itu zeru lur” aitortzen duenez.

Norbere ereduko gurasoek gure familia sortu duten bezala, goitar ereduko Ama+Aitak sentzuen aurrean daukagun izadia sortu zuten, “lurrean bezela, zeruan ere” analogia ulertzen zutela. Geroago baten, otoi erronkaz ausaz, eldu ziran “zeruan lez lurrean ere” aitortzera, “ez bai-gara geure baitako”, ez eta sorkuntzaren zilborreko.

“Bagara, ala ez gara!” axut egiteko almena ere ez zaio falta izan gizakiari, bere aduak aizatzen dueneko eta jainkoen izenei kontuak hartzen asi zeneko: “jainkoak betiko eta gu zergaitik bizi laburreko?” eskatimaz, adibidez. Orduantxe, sortu bai-zan *Baztergo Teologia* ere, betik gorako arrazoari, sorkariek sortzaileari, kontu eskatzean.

Bibliako Baradisuan errudun bat aurkitzen da, Eva alegia (Has. 3,12), baina liburua idatzi aurretik erabagia hartuta zeukaten Egipton icsu etorkin ziren Menfisko abateek *Sorkuntza Teologia* agiria asmatu zutenean. Faraoiak *Ma.aT* aginduak ez zituzten gogoko edo amen erraiak ezaintzat euren asmorako eta *bigotzetik agorako* sorkuntza duinagotzat eman zuten. *Amatzen ez duenak*, hala baina, *amakatz>magia* egiten du. Haraz gero, *Bi pilako* larrukia ere magiak eragina dago: “*egin bedi argia eta argia sortu zan*” dinonean. (Has.1,3)

Haraz gero juduen jainkoak ere obetzat eman zuan bustinean antzestu giza irudiari bizia ufatzea, amagandigo bizitik bizia haintzat hartzea baiño (Has, 2,7) Moisek halatan erabagiten du bere jainkoarekiko Itunbena, naiz eta Israelgo igarleek eta herri apalak ezin aztu izan dituen amaren errai bero eta bular samurrak (Is. 49.15). Aginteak ostera, igarleak erailtzeko agindua amaten zuten (Mat. 23-37) oraingo jerarkiak gaurko jakitunen bide berriak bezelatsu.

Aldiak joan, berriak etorri, agertu zan agindutako Mesiak salbatzailea eta honela zinoan: “baina asieran ez zan horrela [...] (Mat, 19,8), beraz Jainkoak elkartuak ez beza gizonek banandu”,

emazte *baztertuaren* alde minki urten zuanean.

Amaren etzeko eskarmenduak sortu zuan asierako sorkuntza mitoa ere, “lurrean bezela, zeruan ere” gizakiak zentzunen oharrez eta izadiko armoniaren buruz, “zeruan bezela lurrean ere” lotura biribiltzen zuela. Ikerlan honetan iru pauso emango ditugu: I. *Maite Teologia*, II. *Baztergo Teologia*, III. *Berrizkuntza Teologia*, bata baikor, bestea ezkor eta irugarrena, berriz, aserak amaierakin adizkidetzen dituen Jesusen Espirituaren lana ager dadin.

0. 1. Azter bideak

Arkeologiari sor diogu azter bide berrion argia, zoriak opa izan digun abagunea lez, “umeok ixiltzen badira, harriak orro egingo du” (Lk. 19-40) igarkizuna bete bailitzan.

Eta harriak mogiduala, milaka urtetan izkutuan gorderiko historia agertu zan eta ez denen pozerako. Oraindino ere botereak saritu lanetan “hau da Historia, horrek mitok dira” gutxiesten dute, jakintzaren farok ere argiari begiak lauzotzen dizkietela.

Baztergo Teologiak, seaska doinuko inoa¹ baino maiteago du harrian txinpartaz zizelatu karraxia, Maisuak Moiseri barik, “zeuon bihotz gogorkeriari” (ibi) errua egotsi eta “asieran ez zan horrela” esan eta agiri baten aitzakiaz emaztea baztertu eta beste batekin Ezkontzeko Legea salatu eta minki ezetsi zuenean.


Mitoe mintzo denetik, historiaren urak ere goragotik hartu ditzakegu, asierak izan dezan gizabidezko amaia, ohargabetuek ere, artean euren ilunbeko arketipoen arrastoa bilatu al dezanten.

Hagaitik senditar senekook uretan blai eta eguzkitan atsegin jolas gozoak eginak gara, Baradisu halako gure etxe inguruak ez bailuen gu-



Sumer Eriduko ereduzko taulatxo bezelakoa.

1 Ino Anu jainkoari egin goralpena da, sumeriarrek euren otoitzak inoekin naste konpondu zaleak ziran, inoa euren asmatu goralpen kantua delarik.



Papiro idazkietariko Egipton

re zorionaren azpisuge bekaizirik. Milaka urte igarota, umetzaroa joan eta ama abotseko hizkuntza ostean, *bi pila*>*Biblia*-ko larruzko idazkiak dinonez, *gau uts*>*chaos* haretan Sortzaileak “asieran” *en arge*^(s) *argia* munduan biztu zuenean.

0. 2. Arkeologiaren iraultza

Exegetek *bi pila* erataro tolestu larrukian (ikus or.11) idatzia aztertzen dute. Bera idatzi zutenek aurretiaz esaneko jakinduria eta mitoak jasotzen ditu, Egipton *Ma.at-en aginduak*, *Erraren Eroskundera* eratako jakinduria edo magia bideko *Menfisko Sorkuntza Teologia* aurkitzen ditugu, Neosumerian berriz, magiazko erra-bideen salapen, *Gilgames-en* ekintzak eta askenik, Babiloniako abateen *Enuma elys* poemak, gizakia jopu bihurtzeko magiaren eta arma berrien indarren arrokeriak. Grekoek “Zeuz-en sorkuntza” ospatzen dute edo magiazko trikimailuz, umeak egiteko bide duinagorik-edo asma daiteken jainkoei galdetzen, Euripidek *Medean* lez.

Hizkuntzetan berriz, gerquera on dugu Nazareteko Igarlearen *Bidea* azaltzeko eta euskerak, aldiz, berea lagunduko digu arkemitoak argitzen.

Gaur ere INOteak ospatzean edo geure mendien izenak aztertzean, mito zarretako jainkoei topo egiten dugu, antxinako santutegiak ezagutzen ditugu eta geure aurretikoen Teologia argitzen zaigu, izan zirenen



Apokrifodeitu Ebangelioa



Bi pila>*Biblia*, *bi pilako bilduma*

eta garenen antzak eta aldeak bizian ohartzeko bidea ematen digutela. Honela ANen ÑeÑei hitz egiten usten diegu, umeen INTzinia amai gabeko bizi INOa gerta dadin, Nazareteko Igarleak salatu bezala, harriek eurak orro egin ez dezaten dino, andre eta gizon sortu zituenean (Has. 1,2), zer gertatu zan, zorionari keiñu egin eta beingoan azpisubeari atea idekitzeko.

Jainkoa ez du iñork ikusi, naiz Zeru urdinak aMa Inkoaren gona ematen duen, baina ez da aMa bera, eta suzko kurpil ibiltariak zeru urdina dundutzean, naiz aiTaren ganora antzetzten duen, ez da aiTa bera. Gure euskerak, mito bizia denez, eta beraz, mintzo argia, analogia duinez lagunduko digu azalpenotan, bera dugulako, Max Müller-ek ari zuenez, arkemitoen esegesian argi-biderik sinistagarriena.


Edubako tauletan pikatu idazkiez landa, koptoen papiro marrastuan edo harrian zizelatu jakinduriatzko hitzek laguntzen digute...

0.3. Arkeologoa misiolari

0.3.1. SAMUEL NOAH KRAMER (Kiev, Irailak 28, 1897) juduar leinuko seme. Errusiako progon batetik Estatu Batuetara igesia, Arkeologiari ekin zion gogotik Sumerreko erauskinetan taula idatzien jakinduria berria ulertu zuan *AMA.UTU.AN.KI* eta latina sortu baiño sei mila urte lehenago, euskaldun bailitzan, Sumerreko jakintzan *amatu* “amak itu” ulertu al izan zuan eta laster “*La historia empieza en Sumer*” idatzi zigun, Tucídides txikien jarraile maisuek zer esangoaren bildurrik gabe.

Aldi beretsuan ohargabe orokorrean galdu herriari argi eman naiez, JUNG sikiatrak “*jo arketipoetara*” aldarrikan zelarik, gure aurretikoen jakinduria aipatzen zuan, ilunte orokorrean galduok bereziki asabekandik ber-ikas genezan, edoski genduen senaren argitan. Beraz, sikiatrak giza baitako azalpenaz eta arkeologoen aitzurraz alboratu lurpeko agirian, egiaren bilakari ekin eta misiolari urten zuten.

0.3.2. MARIJA GIMBUTAS (Vilnia, Urtarrilak 23, 1931) lituaniarak, Arkeologia titulua jaso Tubingan eta beingoan, Alemaniako nazien jasarpentetik iges, Kaliforniako Unibersidadean Arkeologia erakutsi



Samuel Noah Kramer: *Historia Sumer-en asten da* liburuen egilea.

al izan zuan. Bigarren Guda Orokorra bukatu bezain laster, Europa ohargabetua lotatik esnatzera bailioan, Ama Eskolaren frogak lurpetik ateratzea lortu zuan eta “*El lenguaje de la diosa*” liburua argia utzi zigun, ohar hau eginaz: bere langai zen materiaren forma eta ausaz Ama Jainkosaren abotsa euskera zeitekela goraipatuz. Eta gure Unibertsitateak isilik artean, egia lurpetik nola etor daiteken dudamudaz edo ze beste mirari jaso beharko halakoak sinistu al izateko.



Marija Gimbutas: “*El lenguaje de la diosa*”, urbildu diguna

0.4. Etsaiaren erantzuna

Argi emaileek merezi une bateko txaloak amaitu zirenean, argiak begiko miña egin zieten, eskatimak agertu ziran orduan. Hanarteko liburu-etan arpegi garbi agertzen ziren Sartaldeko andikiek, oste lotsagarri-dun ematen zuten arkeologoen argitan, arketipoek *akertipoa*, alegia. Arpegia marrotu beharra izan zuten, ezik errutik garbitu. Argi berriaren pantailak amatau zituzten beingoan eta magiazko gudea aldarrikatu Arkeologiako museurik ederrenari. Irak Mesopotamia zaharra, Bagdag uriburu eta Sadan Husein Museuren jabe. “Sadan hori *Satan* bihurtu zan egunetik egunera: “gaizkile horrek mundu osoa kolpean ondatzeko lain den gaz galgaria pilatzen ari da-ta” medioetan zabalduaz. “Ezin besteko larria!” aitzakiz, Bush eta West-eko gautar lañoek argien Asteko egun sentiari amorrus eraso zioten.



Arkeologiako Museu Ederrena Bagdagen (2011) bonbaketua. *Zaindariatari bat negarrez*. Mesopotamiako 170.000 artelan, 80% ostu edo txikituak izan ziran, USAko gudariak zaintzaz “arduratu” zireneko. Arrapatu zuten hirurena berreskuratu zuten. Errudun? Islamiar terroristak. Sortaldeko Asiria, Babilonia, Akadia, eta Sumeria-ko, K. a 6.000 urtetako memoriarik argiena.

I. MAITE TEOLOGIA: AMA.UTU>AMATU

1.1 Amatu>amodiozko Baradisuan.

Sorkuntzaz dakigunetik ez dakigunera asmatzen dugu jainkoen mundua. Eridun¹, Eufrotek itxasoarekin topo egiten duen unean, jasotako agiriak AMA.UTU AN.KI diño “ama(k) itu zeru lur” eta Egiptoko mitoek arketipo edo konsonante ber-berekin aMa+aiTa>MaiTe sorkuntza bera ospatzen dute. Ur gorenek Ama sinbolo dira eta haren arkura igoten duen eguzkia, berriz Aita da. Norik beregunetik norbere irudira sortzeko nortasuna baino sorkuntza ederragorik ez dago gizaki soilaren bihozkeria eta begietan.

Gizakiak gertuko eskarmenduen lorpena urtikatzen du gero izadiko ikuskizun osora “lurrean bezela, zeruan ere” analogiaz baliatuz eta alderantziz, “zeruan bezela, lurrean ere” oikunera etorriaz.



Maitasuna <aMa+aiTa, polo biren artekoen loturan dager lurrean eta umeak izatea² jainko oro egileak zeruan “bere irudiko sortu zuan gizakia, andre eta gizon (Has. 1,2), seme-alabetan ugaltzeko aginduaz” bateratzen du. Izadiaren arabera jarduten du denean eta haren jabeekiko ulerbidea asmatzen du bere monosilaboen ohiuzko hizkuntzan “ama+aita” “ene!, jo!” Begien aurreko sinboloak hartzen dituela, aN “zeru” amari edo “uTu>uduzki” aitari dei egiteko. Gizakiak, bere gura-

1 Urak urbildu uribe unek ziran urbanidade berriko bizitokiak. Eridu<uritu, Ur eta Uruk, amotarren mortuak egarriak kentzen duen unean,

2 “Emaztea artzea gizonezkoen ardura da, baina umeak izatea Inkoarena” (Proverbios de la Colección sumeria I, 37, DB. n.º 26, p. 36-41)



Nin Ursag eta Enki Sumerreko Baradisuan, bakoitza bere jarlekuan eta botere seinuak eskuan. Erdian uren iturria eta ortuarria. Nin Ursag “Andre Ur saka” “ur utxa>urruxa>orza^(gaz)” edo uxore^(b) ere deitua eta Enki “An “zerua” + Ki “lurrean” deitua.

soak lez, bikote dakus izadiaren Sortzilea, aN+Tu bezela Sumerren, Ma.aT Egipton, arketipo bikoitz ber-berak erabiliz.

Sumerreko lur baratzetu>Baradeisu haretan Nim Ursag² eta Enki senar-emazteak agertzen dira mitograman (ikus or. 15).

Mitoak gizaki beraren jarduera adierazten digu, beraz senar-emazteen arteko hizketan eztabaida agertzea gauza emana da. Enki An “zeruk” lurreko ur banaketari denaren ganora (ikus or. 39), halabaina, “nire alabarik ez duzu ikutuko” agindua ezarriko dio zigorpe senarrari eta kontuak hartuko³. Halatan dager emaztea zigorrean ere ongile, lagunkide eta erregearen pare, erregin, jainkoekiko arremantetan andera> ezezen, berezko santera egina⁴.

Nim Ursag eta Enki bikotearen Baradisua Sumer mugako itxasoan, Dilmun aldean kokatua ematen zan, Eridu (Ikus or.14) uritik ez urrun. Geroago Bi pila edura tolestu idazkiak (Has. 2), Mito zarra errepikatzen du, baina ondore ezberdinekin. Batez ere, ez dager Subearen ziririk eta emakumea ez da apalasoten, ez gizatasuna lurreko autsaz berdintzen (Has. 2,7)

Bi pilako larrukiak ezer baikorrik izatekotan, Sugeari aginduriko zigorrean dago baitik bat: “eta zeuk (emakume) zapalduko diozu burua (subeari) orpoan sizatzerata datorkizunean”. (Has. 2.15)

2 Emaztea ur utxa>orza^(gaz) deskribatzen du euskerak, Ur sag “ur saka”, gonbaraketan upa>upealako forma gizonezko lodierari ere ematen zaiola.

3 Enki and Nindhursag a paradisi myth, ANET 37-41.

4 Hagaitik etxeko andre berriak, etxearekin batera, etxeko bizi eta zenduen ardura hartzen du. Ez dago abaderik halako arazoan bardin diezaiokenik.

1.2. Ma.aT/ NuT sorkuntzan.


Egipton *Ma.aT* eskolak ez du azkenik izan: zerua gizakiagaz jabetzen den neurrian gizakiak, gabeziaren gaineratik, zeruaz jabetzeko aukera du. Sumerrek giza zoria idatziez ematen digu, Egiptok argiago mitografiatu jainkoekiko ames gizatua, eziñean ere, jainkoekin berdintze ametsik galtzen ez duela. (Ikus or. 17 Geb, lurrean etzana, esku *ezkerra esker*, Osiris-en berbizkunde aintzatsuari emana)

Zeruko *ur goiienen* Ama andiak, sortaldetik sartaldera arku eginik, eusten ditu, egunez urdin eta gauetz izarratu⁵. Bere gainean *Ra* > “*eRra*” arkan ugaroz gora eta bera dabil, *Ma.aT*, *aMaK* aurretik eta Tot, *aiTak* ostetik, gidatzen dutela. Bien auRra, arrano buruaz marrotu doa, buru gainean *uTu* iduzkia eta sugeño abisaria lagun dituela, *eRrensu-gearen* amarruak itzuritearren. Jainko-semea eta etsaiaren bildur? Bildur eta erabat *Ma.aT*-en aingure babesa eskuetan dutela⁶.

Mediterranean aldeko itxasketak subetzararren eskarmendua irudi bizi egin zan itxastarren ipuinetan eta mitoak ezin zezaken itzuri gizarteko arazo horri emendiorik ipini barik. Honek adierazten digu mitoa herriaren ikasbiderako eta gizaki beraren burubidetik gertu dagoen eta gizaldietan iragarri jakinduria dena.



Erenguea itxasketan jardun izan diren mariñelen eskarmendua dirudi.



Tot, Ra eta Ama arka > barkan, jatorrizko irukoa: *No*, *To*, *eRa* arketipo eginik.

5 Babiloniako sorkuntzan Marduk jainko berriak Tia.Ma.aT, sarean oratua, espataz bi zaflatan ebakiz, goiko eta beko uren sinbolo egiten duela eta bere menpeko ontzi eginik (Ikus or. 52-53)

6 Euskaldungoak idazki barik, berez gorde al izan du *Erenguearen* mitoa, hizkuntza oro, JUNGEN gardiz, mito bizia delakoa egiztatzen duela.



NuT:iru elementuak: ura, eguzkia eta airea. *aMa*, *aiTa*, *auRa* arketipo edo *mi*, *zu* > *you*, *era* pertsonaien IRUTASUNA goian eta **Geb** lurraren artean, **Shu** dager lainoska baten gainean belaniko, arnas bidea eskuman eta bizia *arrautsez erro-tzen* duten egaztien munduan. Lurrean etzana *Geb*, gizakia bera lur landaretua bezala, goiko arketipoen eskeko da eta goikoen zoria itxaroten duela.

1.3. Ma-aT-en aginduak

Ma-aT-en jakinduriak umeen gizartea kudeatzeko legeak ezartzen ditu: “1) Ez inor hil, ez hiltzen utzi” eta urrengoa 2) *Ez saldu maite duzuna edo haren eskonkidea*,¹² *Ez kaltetu Izadia*⁸, 13) *Ez inor maite duenaz gabetu*, 20) *Ez aztu Egia eta Justizia*⁹. 23) *Aintzat izan eta lagundu sufritzen dagoena*⁹, 27) *Ez kutsatu lurra*, 32) *Ez uztiatu auzoaren ondasunak*. 37) *Ez kali abererik, benetako arrazoi barik*¹⁰.

Manamenduok umeek elkarrenganako dedua etikan eta bizi dugun

7 Lenengo agindua hau kristau elizak ere ez du bete, 2019-an Bergoglio Aita Santuak onartu arte. Artean Elizak hiltzeko eskua Inkizinoari lagatzen zion.

8 Pekatu denik ere ez genekian *Laudato si* (2019) oharreraino.

9 *Ma.aT* bera da Egia eta Justizia, baina gaisoz nor arduratu da Espirituak bultzatu Nazaretoko Jesus bezelako Igarleren bat-edo izan ezik?

10 Gainerako aginduak 40 -giño, *Arketipoak eta Arkeologia*, 36 (2021)

lurra, norbere etxe bezala, ekologiaz zaintzea eskatzen digute, hartu genduen *baratzetu>Baradisu* ondorengoeri sor diegulako.

Ma.aT-en aginduen akordua ohar gabe illunean geunkala, *Bergoglio/Goillibar* Aita Santuagandik nolabaiteko txaloa merezi izan dute, Espirituak jatorrizko kulturei eman dohai bezala¹¹. Geure onurako ere izan daitezke *Mari* gurearen *marrakin* gonbaratzea: 1) *ez ostu*, 2) *ez esan guzurrik edo ez den gauzarik*, 3) *ez inor hil*, 4) *ez arrotu*, 5) *aintzat hartu, errespetatu lagurkoa*, 6) *emondako berbea bete, berbako izan*. 7) *Bata besteek alkarrri lagundu, auzolanean* eta batez ere, bere epaiaren ardatza den “ezetz eta baietz” giza aukerari Marik ematen dion garrantzia, uKa edo Bai direlako aske ganora ematen dizkioten arketipoak.

Horrela argiago gelditzen zaigu geroago Sinaiko trumoi hotsa merezi izan zuten *Moisen manamenduak* ordura arteko barik, beste Jainko baten izenean harrian tailutuak izan zirena (*Urteera* 34, 28): 1) *Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko duzu*, 2) *Jainko izena ez duzu alperrik agotan hartuko*, 3) *Jai egunak jai egingo dituzu*, 4) *Ama eta aita dedutan izango dituzu*. 5) *Ez duzu inor hilgo*, 6) *Ez duzu aragikeriarik egingo*, 7) *Ez duzu ostuko*.

Aldea dago Ma.aT-ek giza aragian txertu zuenetik, Moisek harrian zizelatu zuenera¹²: ama eta aita gurasoen seme-alaben heziketaz arduratzen dira, Moise lenengo eta bein jainko beraren aintzaz. Jainko bizardun bezala dager irudietan eta “Aita” du izena jainkoren begiruneaz-edo ari diren jakiteko¹².

Amaren eskurik ezean, umeen heziketak atzerapen andia daroa eta biozkera gogorreko gizartea sortu arriskua dauka. Hagaitik kexu zan Ezekiel igarlea (11:19 2) “Bihotz berria emango dizuet eta espiritu berria barneratuko, Zuen aragitik harrizko bihotza kenduko dizuet eta aragizko bihotza ezarriko”.



Iñotez iñude, unai, niniek Donostian

11 Aita Santuak Ma.at-en 1º agindua Elizako egin du, Inkisizioarekioak ezetsiz.

12 Batabesteagandiko aldea sumatzeko, Hamurabik ere Harrian zizelatu zituan bere gobernuko aginduak “begia, begi truk” eratakoak aldi beretsuan.



<MuT motodun agertzen da bera da Amun-en parekide. “Andreak eta biok” esaten du senarrak. Aldi bateko gure andreek *Mut*> amaren *motoa* erabilten zuten, Maridomingi eta Olentzerok ere antxinako gure amon-aitonen ordezkoa egiten dute, antxinatean bezala, prest dagoke txapelduna emaztekiari esku-ma aldea eskeintzeko, mitoen garaiko Amon gizonezkoak lez, MuT andreari opa dionez. **M** Ama eta **T** Aita arketipoak ordezkatzan dituztela bailekiten

1.4. *Asieran No eta To>NUT ziran*

Koptoeraz deitu eta euskeraz azaltzea baino argibide zigurragorik ez dago. Egipton “Baradisu galdurik” ez dela izan jakiteko, Ama Eskolak gaurdaiño irauten duela jakitea baiño ez dago. Egipton koptoen kulturak irauten du. Aldi baten kultura hori zan geiengoena mediterranean zabalean eta euskerak abotsetarako duen adiuneaz, *No* eta *To* irakurten ditu batean agozkatu *NUT* arketipoak eta berez sortzen ditu handik *inude*, *Iñote* (ikus or.18) eduki-nak. Kaleak bat egiten du baserriarekin eta gizarteak izadiko ekologiaz. Mitoa bizi daino euskera ere biziko da, bata ezin daitekkelako azaldu betearen argibiderik ezean, aldi bereko jakinduria bai-dira.

No eta *To*, *M.aT>maite* jakinduria berean guraso egin dira, *auRra* izan dute eta irukoitz harremanak saiatu dituzte mahai beraren inguruan *No*, *To*, *eRa* hizketrien ikuspuntuak gramatikalizatuz, gorengo Irutasunaren Teologia antzemoteraiño. Irukoitz bera Ni, Zu>You, *eRa* irakurten da gaurdaiño, naiz mortxa apurtzeko alegiñak egin diren. Zer du iñok zerbait IRUKO honen aurka?

1.5. *Andre maila*

Iruko bera dager aNDRe titulo barnean, emakumea iru arketipo hoiien lekuko ezeze, lekua bai-da, izan. Hizkuntzak ematen digun jakintza eta baliabide hau ez da erraz atzinduko eta ohargabeen galdua delarik ere, berjasotzeko gei da, bada “asieran halan izan zan” eta ez dago giza asmorik, lehen sorkuntza ezaba dezakenik.

aNDRe, MaTRe bezela, ama+aita+aurra arketipo irukoitzez jositia da. Hizkuntzak halako sagaraz mitoraiño jaso izan ez balu, geroko grekar antimitoak, aMa arketipoa baztertzearren, ez zion lapurtu eta bere aitatiar nortasunari erantziko, *baztergo* izenean, AlexaNDRos, PapaNDRos bezelako izenak sortzeko.

Irukoitza zuntzitu ezinean, ostu egin zuten, Prometeoren magiazko mitoaren ozarkeria goratzeko. Halako ametsetan irabiatu kulturak ez zuan etsiko irukoaren *tokia*>“*toko*” den aMa, baztertu arte. Bardin *Ama* kendu eta eRena, haren auRra den Semea, bigarren arketipoa, aiTaren urrengo aitatzuz, Maite Espirituaren aurrean. Hizkuntzak ez du onartzen halako Maite Espiriturik, aMa+aiTa maitasunetik datorren Espiritua izan ezik. Halako irutrukuz, Irutasuna trukatzeari ez da adimenaren argitasunerako, ez gizartearen osasunerako, “nori berea” oinarritzko lege denean.

Andrea bere mailatik alboratu eta haren nortasuna izkutatu duen kulturak minki erantzun beharko du eta Eliza Katolikua ere jadanik baitako azterbidetan ari da, ea “deabruaren kea” elizan ze ate edo leihotik sartu den galdez. Erabagiaren nekeza bera da argibideetako bat: aserako geure Teologia aldaketak ekarri gaitza dala: gizakiak bere usteleko *berezi*>*fares*>*fariseokeriak* salatzen duela eta ez goiko Maitasunak dohan emanak.

Baserria izan da asieran lurra *baratzetu*>*Baradisu* bihurtu duena eta etxeko andrearen ohorea eta eginkizuna ondoen ulertu eta zaindu duena. Ama Eskolan ikasi, jatorritzko herrietan dager argiago Maite Espiritua, burubideko maisuen azalpenetan baiño.

12 Grekoak *aner/andros* deklinatzen du *andreari* ebatzi titulua eta bere klasiko deitu kulturako hizkuntzak oraindiño *papa-andros* deitzen diote “aitari”, *ama-andrea*, eta *ata jauna* nortasunak iraultzen datozela.



Geb lur gabetua ez delakoan azi onaz ernemiñatan datza NuT -en ardurapean



1.6. *GeB GaBearen zoria*

Maite Teologia den aldetik NuT-en Sorkuntzan ez da iñor baztertzen. (Ikus or, 17) Lurra, noski, ez da NuT den zeruko uiN edo iDuzki, ez eta aiRe bizigarri Bestearen arketipoak ordezkatzeko. Hagaitik datza lurrean apal etzana, lur koloreko, eta bera bezela, arketipo goitarren bizigarriaren eskeko, lurrarekin parekatzen dela.

Hala eta guzti, bere soloan azi on eta bizigarria ereina dager eta bere amesa *burutu*>*frutu* eldu daiño itxaroan dago, Osirisen Berbizkunde aintzara ezkerre luzatzen duela, arketipo goitarren Irukoitza ere egunero otsitzen den zorionera, hain zuzen.

Hanartean Ereinlearen parabolak azaldu dezake *GeB*>*gabetuaren* zoria, solo ereina den aldetik (Mk. 4.13-20; Lk. 8.11-15) Ereinleak ere Jainko Erreñua aipatzen du, norbera ohargabeen dagolarik ere, lenengo ahiena, gero *burua*>*burutua*>*frutua* ateratzen duela. Izan ere eskarmenduari lotu dager, antxinekoen mitoa, *arkemito* argigarria, geroago gertatuko zirenen igarkizun egiña. Denboren aldiak kudeatzen dituen Espiritu Sortzaileak une berean ekusan, guri aldiak aldiko bizikisun gozatze eta ulertzea ematen digula.

GeB, Gaia denetik nagiago da Baita denetik baiño (Mt. 28, 41), eta maiz bata *uko* egina besteak *baieztu* egiten du eta hortik juzgatzen gaitu Mariren sikologiak “Baiiaz eta uKaz/ezaz bizi naz” esan eta zoria geure aukeran uzten duenean.

1.7. Agindua sor

Norberak beste edonori agintzen dion berba betetzekoa, Marik esaten duenez: 6) *emandako berbea bete*". Orduan dira, izan ere, erantzukizun duin "eza/uka eta baia" eta halatan du bakoitzak saria edo zigorra aukeratzeko abagune eta zoria, "gezurtiak bere burua engainatzen bai-du" oharra ere kontuan hartzeko dela.

Ma.aT-ek ba du eskola bat Egipton: Manamenduen legea ezarri duenak juzka dezala bakoitza, norbere portaeraren kontu eman orduan, Osirisen zeruan sartu al izateko. (ikus or, 23)

Eskerrak Arkeologiari jakin al izan dugu lurpean gordeta zegoen gure aurretikoen sinismena, eta lur azalean, berriz, ari bereko den euskerak daki garaikide diren askoren barri eta berari galde-tzea baiño ez dugu euskal munduko erritoen berri, Ifñotekoa adibidez, edo Araban Zalduendoko Karnabaletan (ikus or. 22) ospatzen zena/dena. Mitoanalisi barik, jai dugu eta Arkeologia orokorrak ideki dizkigu izkutuko ateak, Antropologia honen herri jakintza, argitzen digun zientzia. Bere arloetarikoa bat gure mito erritok eta euskeraren jatorria zaintzea da eta argi dinosku euskaldunok ez garela herri berezi, aparteko bat, Ama Eskoladun kultura zaharren partekide baiño.

Eliza ez da sartu Inote edo Karnabalen azpi jakintza aztertzen. Gurean onartuak izan dira, herri ohitura bezala, baina Elizak ez du sumatu ere egin guzti horren ostean dagoen espirituzko balorea edo heziketa jatorraren alegia.

12 Ba da hor *Euskal mito, erritok eta euskera* titulo bat Eleiker zerrendari lotua. Eleiker izena eta asmaoa holantxe sortu zan. Askori gustatu izan zaie izena eta euren gizenarako hartu eta ontzat hartu behar da jatorrizkoaren asmaoa estaltzeko ez denean.



Markitos Mariren marrak zapaldu dituen *marranoa*, arrautsa azalen idunekoa duela, Legegizonak=Tot epaia irakurten du, alboan Otso irenslea, eskuman epaituaren gurasoak lekuko. Naiko egin du herriak horren oroitz gaurdaino gordetzean. Aurrerakoen zehaztasunik ez galtzeko arduradunek Eskola beharko dute.



Eskerretik eskumara: *Ma.aT*-en balantza *matematikoa*, *buruko>fulkrotzat* *Ma.aT* beraren *buruko* ostruka luma duela. Haren azpian Anubis txakurra, gorpuen momiagile eta Otsoko kondanatu bihotzen jalea eta Tot/aiTa guztia idatziz apuntatzen duena, erdian, neska jantzi zuritan, arima Or/Otzik Osiris tronuan aurkezten du, Haren ostean *Ma.aT* eta Isis (ama-alaben jarraipenekoak)

1.8. Osiris-en zeru zoria.

Ator, maite jainkosak (ikus or.25) bi seme izan zituan, Or eta Set¹³. Elkarren arteko tirriak hartuta, behin Setek begia atera zion Or anaiari, egunero eRra bideak ortziraino egiten zituen anari. Alabaina Tot aitona begia konpondu zion. Beste bein Ator-en Senar Osiris *Abay* "Nilo" *ibaian* itoazi eta haren gorputz ataldua errekan sakabanatu zuan. Isis emazteak haren gorpu atalak banan-banan jaso eta Osirik biziberritu egin zuan. Epaian *Set>Satan* deabrutara emana izan zan eta Osirisen zoria berbizkundeaz anditua.

Osirisen mitoak ba du gero gertakari arrigarien iragarkizunik, Jesusen Berbizkundera, baitikpat. Batak bestea pikutara bidaltzeko arriskua dagoela? Espirituaren Eskola da arazoa: lehengo kultura jatorrak gudan utzi duen arrastoa ezagutu, gureari ornitu eta gizakundera den batasun zoria egitea, alegia.

Igarleen predika *Bi pilako* larrukiak idazkiz utzi digun mezurik onena da. Igarlea beti ere Lege arruntaren aurrean intsumisoa dager eta gizarteko legean zerbait jainko bidetik jokuz kanpo edo baztertuxe sumatu izan duena salatzen du. Ez da onartua hagaitik.

13 *Set*, gaiztoen geiengoan, *Satan* da haraz gero. Gure Mari Anbotoko jainkosak ere bi seme izan zituan: Atorrabi eta Mikelats, bata ona eta bestea gaiztoa. Beraz Egiptoko mito zaharrak gure oroipenetan jarraipena duela diño. Ausaz gure Mariren sikologiak Mikelats gaiztoa ere osatzea lortuko zuan? Nork jakin!

1.9. Maite Jainkosen geigarria

Kultura guztietan aurkitzen dugu maite jainkosen *geigarria* gizarte heziketan, hotz, giza arketipo kurkoiek goiko arketipoak janzteko duten zailtasun aringarri edo eskolabide. *Ma-aT>maiteak* bidaldu alaben antza du *geigarri* honek, gizabidetan halako esiak ipinteko deia bai-dute *maite jainkosa* deituok. Horrela *Inanna*, *Isarra/Istar*, *Irinni* ere deitua¹⁴ Sumerren, *Ator* “Or-en atea”, *Or atoratzen>adoratzen* zekiena Egipton eta Baal alenaren gidako *Anatu*, Ugariten, etab.

Euren zeregina Jainkoak aseratik gizakiekin duen ezkontzeko asmoa iragartea dela dirudi, senar-emazteen ezkontzak ere asmo bera azal dezan. Lehengo kulturetan emana gaurdaino agertuko ezbalitz, ez luke halako gararik izanen *maite jainkosen geigarriak*

Ma-aT-en eskola barruan, ezin daiteke ukatu *maite jainkosen geigarria* lurrean halako *Geiko* eta *Geixa*¹⁵ ez denik alderik alde, Txina eta Japonia-raiño eta handik honaino, gure panderojotzaile errefindua lagun, ibeni diotenek. Esanak esan, gaurko medioen nausikerian, maite-jainkosen arrandia, aldizkarien paperak edo Interneteko gosariak prestatzeko gaia dira, larregia, *geigarria* baiño harago.



Maridomíngi- Olentzero Eguberriz, Geixak Txinan, Japonian eta Lore erregina nunnai

Maite jainkosek, bestalde, maitasunaren indar erabakigarria

¹³ Gure Mari Anbotokoaren seme biak aipatzen dira: Atorrabi eta Mikelats, naiz euren arteko zeloak hain eder azaltzen ez diren gure artean.

¹⁴ *Gilgames*.VI, 123.185)

¹⁵ Ez naz ni inor Japonen *geiko* eta *geisha* nortasunak *geigarri* edo euskera- ren arreba diren, arik eta hango eta emengo Etxenagusiek onetsi arte.



Inanna Dumuzi-rekin

Ator>atoratu>adoratu

Anatu, Alenaren lagun

adierazten du, bai Inanna eta bai Atorrenagan. Norbere izenean barik, beste goitarraren izenean dihardute eta haien ohoretan leoin jarkera edo katamotzarenek hartzen dituzte, onean ezinik, txarrean adierazten...

Erabat “Amoris laetitia” kiribiltzen datoz eta maitasun gogoraz- ten, dantzara deitzen, amets eragiten eta maitasun bidean *esiak* ipinten. Ma-at beraren aginduak gogarazten dizkigu. Aberea indarrez bezatzen da eta zietan sartzen, baina *Ator* amak oster, *atoratuz>adoratzen* du¹⁶, amaren eskutik berera datorrelako bizitza.



Pandero jolea *Ra* bera ordezkatzeko duen *arraskoa* eskuetan, *Ator*, *eRa* alabak, *buruko>burka* eginik duena.

Gilgames-ek, Inannaren maitasuna mespresatu zuanean, jainkoen zeruan mugida izan zan, akkadiar erexeak ez zuelako onartzen jainkoek erabagi neurriak lurrean eta Humbaba eta Zeruko Zezena armaz eraso eta hiltzen ausartu zirelako. (Ibid. VI, 123)

¹⁶ Ikustekoa da Inanna leoia eskutik duela, Aretako jauna menderatzen eta Ator, Sekemet burua eginik, Erra aitaren ohorez erruki gabe haren etsaiak heriotzaz apentzen, *Erra* bera *erru>errukide* aitortzeraiño...

¹⁷ Inannak argi dinotso *Utu-musu>Dumusurri*: “Nere neba Utu ezbalitsok, hi kale gorrian egongo hintzake” (*Prid of pedrigee*, 1-6, ANEY 638-638)

1.10. Gizakia, Ohore Ontzi

Gizasoina deskribatzean, dagoneko *ur utxa>urruxa* eta *ur saka>-ursag* hitzak aipatu ditugu. Aldea dago *ohore ontzi* aipamenera eta Antxinakoen artean hain samur irudikatzen dena. (Ikus or.27) Arte horrek milaka urtetako gure asabek gizasoinaz zuten idea argitzen digu, Neosumeriatik Iberiaraiño esateko. Neosumeria garaiko *ohore ontzia* adardun dager, Ator egitiarrari halako keinua egiten diola. Arkeologiak eta haren garaikide den euskerak argi egiten digu bide honetan, gaia eta forma bateratzen dituela.

Kristinauok ere *ohore ontzia* deitzen diogu Andre Mariari eta erro-sarioako arrenetan harago, *ontzi omengarri*, baina ez gara ausartu halako arteziaz azaltzen, ontziak ama erraiak adierazten dituelako. Bihotzaren alturatik ausaz eta “Andre Mariari bakarrik”, abate klerigoen azalpenak marra gorriak jartzen dizkietela beste amakumei.

Andre Maria ere *ohore ontzi* aipatzeak antxinakoen arte gordailuak, ostera ere, igarkizun arian bultzatzen du. Ez da dena ur garbia, baina ba dago *ohore ontzi* orokor bat asieran Espirituak giza aragian, Ba>baitan Kabia hartu zueneko eta horixe adierazten du Arkeologiak lurpetik atera digun ereduak. Ezikusia egitea al dugu?

Egipton mamindu zuten sikologiak Ba eta Ka arketipoak bereizten ditu eta euskerak bata eta bestea ulerten ditu, gure amonari *Ene ba!* asperena entzutean, edo harago *ene bada eta enie!* forma indartuan bada. Ba du *baita ontzi* horrek ohorezko zerbait aztertzea merezi duena, naiz zillar edo urre ontzietan barik, “lurrezko ontzietan daroagun dohain hau” (2 Cor. 9.7) apostoluak azaltzen digun bezala.

Giza aragian bada *biri* izenez aS-aren ontzi dena: *asa* arnasa biritzen duena. *Asa biritzean, asperen* egiten dugu, >*aspirar/espigar* lan bera dena. Latinak *spiritu* onartu zuan, gure eliteak bezala. Izenaren jaiotza ostera, Fisikak erakusten digu obeto, Metafisikak baiño.



koko>gogo
il vive à gogo

1.11 Gizakia, Aserre ontzi

Gizakia den aserre ontzia Maite jainkosen tirriak adierazten digu, Ator Sekemet egina, Erra aitaren ohoretan edo Inanna, Urnamu



Ohore ontzia, Sumer eta Iberiar artean, jainkosak banasean edo bardin eskonduen orduan. Andre Mariari ere “Vas honorabile” deitzen zaio letanian, baina edukin hori adierazteko irudi oberik ez dugu asmatu al izan. Erraiak baiño bihotza toki ohea al da?

erregeari egin irain ordetan, Enlil jainkoaren tenploari sua ematean bezala. Aserre ontziak gaiñezka egiten du erraz eta berere gizakia bera hain ontzi mugatua denean. Norbere gogoko bizimoduaz betetzen bada, osasuna, baiña iñortxok suminez betetzen badu, gainezka eginik, laister gogaitzen da. “Izeka horrek gaiñezka eragin dio haren suminari” esakerara prestatzen da orduan gizakia den ontzi nehurtua, irañaren kolpe andian²¹.

Gizakia, aMa+aiTa>Maite Espirituak ezkondua denez, berez “maite gogo¹⁹” eta *ohore ontzi* da, baiña Adu txarrak arrotzen dueneko, gogait egiten du. *Gogo* hitza analogia medartxoa da, izan ere, *espirtu* edukindun ondoan²⁰, euskera garbiak *Espirtu Santu/Gogo Deun>Goteun* edukina forma biotan erbilia izan denarren.

19 Halako analogiaz definitzen du *gizakia maite gogo*. Jenaro Gárate filosofoak bere bizi eskarmenduz. (*Gizakia maite gogo*, Jenaro Garate)

20 Unamuno lotsatu egiten zan “jateko gogo” horrekin. Hala ere, gogotsuago onartu zituan, Esauk bezala, Salamankako lentejak euskeraren zadorrak aztertze lana besteentzako utziaz. *El gusanillo* “kokoak” ere bizitokia eta bizibidea á *gogo* bizi du (ikus or. 26), beste iñork (euskerak bere *etxe* duen, Frantzian *che moi* bizitzeko eskubiderik ez bailuen) hain zuzen Espirituak gizasoiñean edatzen du bere erreinua, batak eta besteak Maite Sorkuntzaren Ekologia arian dihardutela.

21 Gizakia den ontzia ulertzeko: “Nire ondoren etorri nai duenak hartu beza bere kurutzeta eta jarraitu bezait” (Mt 8.30) eta beste une baten jarraitzailetarikoei: “ba zaree gero nik edan behar dudan ontzia edateko?” (Mt 20,20-28) Ontzi garratza benetan.

1.12. Baratzetu>Baradeisu

Jainkoak Baratzean ezarri zuan gizakia, lurra landu zezan (Has. 2) eta, lurra landuz, baratza egin zuan, lur *baratzetua>Baradisua* gerta zedin. Lur landuko azi onak bizibide nasaia eman dio gizakiari eta maiz lagunartean banatzeko usta oparoa. Gure asabek seme-alabak azi eta etxea jaso zuten, aberedia bere-*ganatu>ganadu* aukeratu eta *etxe* berean edo aldameneko *etxola>esola*, jaio berriak *ezi* eta *beatzeko>hezteko* *Eskola*, antolatu zuten euskeraren arabera.

Baserri lana etxekoen artean banatzen eta antolatzen zan: amak etxe ingurua eta baratza, aita soloak eta larrea, umeek amaren errekaduak hartzen dituzte, *amak esan dau* oharrera. Baserriak bata besteagandik ez gertuegi, ez urrunegi, auzolanean ezagutzen dira elkar, gureak zuenaz mugarik berotzen ez duela. Urte Barriz, *daukanak ez daukanari* abesten zuten umeek”, antxinako lagun-tza oiturak gogarazten, hotz, eukiak ezeukia begira zezan.

Mendi-basoak zabalak dira, batzuk “*Jainko-mendi, Maritxelarre, Mairiborda* deitzen dira, tokizenok haren ohiko jabetza gogarazten digute. Gure asabek goikoen dohe bezela hartu zituzten etxerako, lurra *baratzetuz>baradisua* edo, Basajaunaren baimenaz, eskuez edo aizkoraz *egurra* egin, eta abereei *gaña>artuz, ganadu* egiten zirela.

Baserriak den-erako emendioa zeukan, burunaiko zan jateko naiz janztekoetan. Ez zuan izan inoiz langabeziarik. Artuleaz goruetan egiten zuan, linoa erein, ustatu eta kardatzen, izarak euntzen zituan, brusak eta gonak josten. Jostunek auzolana zuten eta abarkagiñek elkarri laguntzen. Anaidi deitu bazkunek auzoko kortak begiratzen zituzten, obeki zaindu eta ezbehartueri laguntza bereziak prestatzearren. Baserriko trebeziok gero industriak kudeatu zituan kalean.



Beziaren buruz *ganatua>ganadu*, aberea>aberazbide gertatu



Baserri uztatsu eta umetzuak beti ere obeto ospatu izan du maitasunaren poza

Baserritarra izadiari begira bizi da, Egilearen eskua nonnai ikusten duela, umeak gurasoen ardurakoak bailira eta kaleak berak ere kilometroko zero-ko usta mairako onentzat ematen du gaurdaiño.

Lurra egarri denean, norbere umea lez, eskeko da, ura behar du eta auzoa mendi santutegira joaten zan errogatiban, *Agurea* aurretik zuela, jainkoei euri eske. Aldi bateko *Ekur*, ganadua bera *ekuritzen zen/den* tokira eta *Agureak* jainkoei *agur* egiteko *kurritzen* zuen *Kurtzea/Kurtzia/Kurtzio* deitu tontorrera, aldi bateko Sorkaldean *etxe goratu>Zikurata* gogarazten diguna, gizaldietan geroago Santa *Kurtze* deitzen denera, ermita eta guzti *ezagutzen* duguna eta lehengo federa, *errezatuz>errazten* delako bidea eta *errekoak>errekuak* eta gaixoentzako *errekeituak*.

Aldiak aldagarriak aldatzera jotzen dutenarren, beharrezkoak iraun egiten du askoren akorduan eta irrika berezia sorrarazten gaurdaiño.

Lurra landu duenak ondo estimatzen du izadia eta gogotik onesten haren sortzailea eta ba daki

lurtean *burutu>frutuak* ekoizten, egozten eta erretzen



urtero errogatibak Santa Kurtzen, Kurtzia>Gurutz bai-dator Santa Kurtzia Bizkaiganen

1.13. Ur eta uribe uneak

Sumeriako *Ur* uribea urez urbiltzen zan bizitoki *uritu*a izan zedin. Erdi Haroko gatzeluak ere ur guneaz pisti eta etsaiegandik gordeago egiten ziran. Horrela gaiki bera zan edateko, garbitzeko, gordegai eta urt egiteko, batez ere, Ur urian lez, ibaiaren bestaldea mortu legorra, barrandarien tokia zelarik. Ibaia *Ibarrate*>*Eufra-te*⁽⁹⁾ ibai arearen goitik berako ate, eta ontziz igarogarria zan. Horrela Ur, Uruk eta Eridun edo munean goragoko *Ubartutu*⁽²²⁾ urietan. Ura igerian edo ontziz ugaroan ibilteko gaia ezeze, antxinatik etsai guztien erasoetatik babesgarri ere ba zan. Euskararen adikunean hitzak berak ere ba dinosku *uribe une*>*urbano* datorrena. (Ikus or, 31), ura, bizia den beste, garbiketarako erabilten delako.

Uriolak uria astintzen duenean, ostera, herriak ol muturrari oratu eta goiari eusten, *Ubartutu*-koak Ibarbia-koeri jasorikoa kontatuko digute, *Arragal*⁽²²⁾ geinuak zeruko anteparak apurtu zituenekoa (*Gilgamés*, XII) eta *Utu iduzkiak Utanipistin* eroia ugoldeetik jaregin zuenekoa (*El Diluvio*). Orduan ikusi zan gordinean jainko biren arteko aldea ere, bata salbatzaile, bestea ondatzaile, *Maite Teologiaren* eta *Baztergo Teologiaren* eredu peto-petoak bailiran⁽²⁴⁾. Jainko biok mitograman erakusten diguten ganora aztertzea baiño ez dago, (Ikus or, 49) aipatu Teologia zertan den ulertzeko.

Ulertu, euskerak obeki ulertzen du Sumerreko Ugolde mito zaharra, *Bipila*-tako mito berantiarra baiño, mito bizia diren hizkuntzetan euskera garaikide delako. Hagaitik ba daki, *uriolaren* erasoagaitik²², *uriak urduri/urguri* egotea zer den. *Uri/iri* izena baserri askok daroe gure artean “bizi toki” edukiñaz. Ez du esan nai euskera han jaio zenik, lehen argiak handikoak direla baiño.

22 *Otatu*>*tutu*⁽¹⁾ goratu=seguru (uren erasotik)” *Ubartutu*>*Ibarsusi* andanak tokizenen iraupena gogazoten digu Sumerretik Bilbora.

23 *Arragal*-ek zeruko anteparak puskatu zituenean gertatu zen *galarrren galgarria* ez dute aztu gure mariñelek. Besterik da *enbata* soila izatea, hotz, otzak beroaz duen tirien *enpaterako* aireak sortzen duen zurrunbiloa.

24 *Utu/Shamas* sumer-akkadiar bata eta akkadiar burrukari utsa bestea: *Enlil*, *Alenaren* arketipoduna, maite edo baztergo arazoa noiztikoa, nondikoa eta zertan den jakitearren bada ere.



Ur uritu “ciudad cercado de agua” Sumer-en. Urez urbildu uria Flandrian

1.14. Sumerreko jakinduriak

Sumerreko eskolan *edu* bereko tauletan: bustin azaltxoaz zuten gainetik eta ziriak markatzen zituzten hizkiak. Beraz, *edupeko* tauletak *Eduba* Eskolan. Ni(m)saba “andre jakiña” zan *Edubako* Zaindaria eta ikasleek ikasgai bakoitzeko, inoz egiten zioten otoizgaia.

Berak adierazten digu hitza asmatzen “hitza arilkotik haria bezala, norbere jainkoaren hitza arilkatzea lez da”²⁶. Aintzat zeukaten Sumerera euren hizkuntza besteen artean²⁷.



Nisaba, jainko alaba, *Eduba*-ko Zaindaria

Akkadiar etorkiñak euren Zigurataz jabetu eta euren gudura deitzen zizkientan, euren jainkoengandik hartu eta *boruz*> baitatu *foruak* aipatzen zituzten eta aske gelditzen ziran²⁸. Zer besterik egiten zuten Malato zugaitz enborrean euren ezpatak josten zituzten bizkaitarrek?

Arrigarria ere bada euskaldun gendea ere gaurdaiño *foru* zale jarraitzea erregetien aldirian ere. Euskerak esan eta oiturek adierazten digutenez, antxinateko kulturarekin bat egiten darraigu.

25 “que el hombre joven celebre sin artificios la palabra de su dios, que los hombres que habitan en el leal país de Sumer la desarrollen como un hilo.” (*El hombre y su dios*, 75)

27 “49 Un escriba que no conoce el sumerio ¿qué escriba es? [...] ¿cómo puede traducir?” (*Proverbios de la colección sumeria II*, 36)

28 Felix Zubiaga, *Zuzentza eta Eskubidea euskeraren oroitzan*, 62-64)

Emakumea aintzat hartzean zan Sumerren. Inannak, akkadiarren garaian ere, *me* bereziak lortu zituan Enki nebaren bitartez, Ur uria-
ren onuran, *isipu* eta *apaizgoa*, adibidez, *familia batua*, *aurgintza*
edo *metalak lantzeko artea*, eurretan, etab.

Siduri, gelazainak Gilgames, ilezkortasun bila alde-
rrai zebilenari, eman oharra ere argia da: “Gilgames [...] bilatzen dokan Bizitza ezin dok lortu. Jainkoek gizakia
sortu joenean heriotza erabaki joen gizakientzat eta
bizia euren eskuetan gorde”³⁰.

Bideko argi, zuzenbidea *Utú/Iduzki*³⁰, Shamas dei-
tua Akkadian, arriskueta lagun zintzo, salbade
ugoldean³³, euskaldungoak ere min gorde dugun lagu-
na dager geure ilobi buruko harrigizonetan.



Iduzkia eta kurutzua,
lehialtasun seiñuzko,
atzamar-erastunak
kurutzaren besoetan

1.15. Egiptoko jakinduriak

Egipton Ma.aT da jakintza eta zuzenbidetan guraso eta eredu, berea
da Eskola eta agindua txiki eta andientzat. “Ma.at-en arabera bizi-
tzeak ilobiak baiño obeto zaintzen du betiko bizitza”³². Faraoi senar-
emazteak bere edu dira lurtean (Ikus or. 19). Osiris-en epaiko balantza
pisu *matematikoan*<Ma.aT partele da, bere *buru-
ko*>luma haren *fulkroa* delarik (Ikus or, 23)

Renenet^(k)>*Errientsa*^(eusk) Ma.at-en eskolako, iru-
diko eta eRra arketipodun egiten zaigu: *Ma-aT*>*ma-
toa* du eskuman eta Ersugearen aurkako sugeño abi-
saria buruan, aurren heziketa gal ez dezan. Gonbaratu
(or. 37) Ma.at-ekin. *Ra/Erra*, Ma.aT-en *auRra*
denez, arketipo bereko dator haren *Errientsa* ere.



Renenet/Errientsa

29 “[...] jan, edan, dantza egik, bainua hartu, txukun jan-
tzi hadi eta eskutik oratzen hauen umeari begitu egiok”(*Gil-
games*, X, III)

30 “*Iduzki* “eguzki erraiñu” *Utú*-ren emaitza. *Udu/idu*, beti
begien aurreko *itu* dugun arketipoa, aberatz da edukinetan.

31 *El Diluvio*, ANET 42-44 (201)

32 *La instrucción para el rey Merikaré*, 134-138

Aur garenez, *Erra*-ren berdin egiten gaitu *irugarren* arketipoz
Hiztegiak eta Gramatikak. “Ongi ornitu dagoz gizakiak, bere jain-
koaren artaldeko. Berak egin zuan zerua eta lurra euren onuran eta
astandu egin zuan uretako pistitzarra. *Airea* egin zuan sudurrentzat bizia dena,
eurak bere *aragitik*³³ *urtenak*, bere *irudi*
direlako. *Argi* dagi *ortzian* euren bihotzen
onuran [...] Baina garbitu egin zituen bere
arerioak eta zigortu bere umeak, bere aurka
arramantza sortu zutelako”. (*Ibidem*, 133-134)

Ator, eRa-ren alaba, Or eta Set semeen ama.
Maite jainkosa denez, *atoratu*>*adoratu* egi-
ten du Or, seme ona (ikus or. 25) *Ator* “Or-en
ate/etxe” da, eguneroko ortzira ostera ostean
amarenean otsitzen da³⁴. Maite jainkosa lez,
maite kantagaietan dager bere izena. Aserre
ontzi izatea Set semearen gaiztakerien³⁵ ondo-
rea da: Or seme eta Osiris bere senarraren
aurka eginagaitik. *Erra erregetzaren* aurkako *arramantzagaitik*.
Halako aserrean Shekemet katamotz piura hartzen du odol burrukan
gizadia *errauzteko* asmoz, *Erra bera arritzeraiño* eta *ardano*>*arno*
berezia edaraziz, alaba baretu, bere askazia salbatzeraiño. Halatan *Errak*
Gizadiaren Erosle titulua jaristen du³⁶. *Erra errukiz*, gizdiaren *erruki-
de* egiten da, gizadia salbatzarren³⁷.

Haraz gero, mito bizia den hitza, emana dago: *ero*, *erio*, *erra*, *erru*,
erruki, *ramu*^(h), *erori*, *erosi*, *orru*, *urri*, *urrikal*, *urriki*, *-arren*,
girra/gerra, etab. (ikus Ra arketipoari dagozkion oihuak or. 34)

Arkemitoa, beraz, geroago gerta beharrekoen aurrekia baiño ez da.

33 *Ara-ki*>*aragi* “Ra zatiki, partekide”. (hizki *etzanak* neureak)

34 Ohartzekoa da Gorbeiaiko artzainak eguzkiari opa deutson agu-
rra”: “Eguzkia ba doa bere amagana/ biar etorriko da denpora ona bada”.

35 Ambotoko Marik ere, bi seme ditu: Atorrabi eta Mikelats, bata
ona eta bestea gaiztoa, (F.. Zubiaga, *Mikelats Amaren etxean*, 55-57)

36 Teologia hau (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET,
10-11) agirian aurkitzen da.

37 F. Zubiaga, *El Antiguo Testamento del Vasceunce*, 54-55



Ma.aT, Jakinduria

1.16. Nortzu garen arketipoen Etxean

Gizakia lagunarteko nor da eta ardurazkoa du norekin duen elkarriketa. Etxearen lehen zutabeak adierazten dio *No/ To/eRa* arketipoen lehentasuna, edozein familitan *aMa/aiTa/auRra* diren bezala. Hori dela-ta, *Ma.aT*-en manamenduetan lez, beste agin-duetan ere “ama eta aita gurasoak dedutan eta lotsa izatea” oharrazten digute eta halatan bakezkoa da etxean elkarriketa.

Ohartzekoa da ugaritiar kulturak *Ra* arketipoa *iLu* arketipoaz aldatu zuena eta, naiz Europako hizkuntza jatorretan *R* nausi den, erromanikar deitu hizkuntzetan *L* agertzen da. (ikus or. 35)

Teilape nausiko arketipoak “Bestearen arketipoak” (Jung), hotz jainkozkoak dira eta analogiaz erabilten ditugu “zeruan bezala lur-rean ere” eta alderantziz geure gurasoekiko harremanetan.

Teilape txikiko arketipoak gizaki beraren arketipoak dira: Baita, Kaia/Gaia eta *aSa/ eSpiritua*. *aSak* ematen die beste arketipo guz-tiekien elkarriketa erritoan behar duten santutasuna eta baimena.

NORI DEI EGIN edo OIHUSKOAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	AS
<i>éne/en</i>	<i>otoi, axut</i>	<i>ara/ario</i>	<i>el/ely</i>	<i>ba/bua</i>	<i>ka/quia</i>	<i>jau/zaust</i>
<i>enei/ená</i>	<i>ut/ux/tira</i>	<i>ra/rau</i>	<i>olé/ióle</i>	<i>bea/vae</i>	<i>ako/eko</i>	<i>asa/ajai</i>
<i>iñó</i>	<i>txut/ixo</i>	<i>arrano</i>	<i>ola/hil</i>	<i>ave/afa</i>	<i>gel/gora</i>	<i>jas/txen</i>
<i>oïno</i>	<i>et/eit/atx</i>	<i>arrea</i>	<i>ol/alló</i>	<i>bada</i>	<i>gero/coño</i>	<i>chao/txek</i>
<i>añó</i>	<i>uju/oxte</i>	<i>rayos</i>	<i>ala</i>	<i>eup/vah</i>	<i>agur</i>	<i>xapi/zape</i>
<i>ainü</i>	<i>otiar/utinam</i>	<i>aro/urra</i>	<i>ale/ela</i>	<i>hip</i>	<i>kaixo</i>	<i>txist</i>
<i>aan</i>	<i>tus/aida/zut</i>	<i>arre/aira</i>	<i>elas/alto</i>	<i>vaya</i>	<i>kontuz</i>	<i>esti/este</i>
<i>amen</i>	<i>ixala/ostra</i>	<i>eurt</i>	<i>alajina</i>	<i>balinba</i>	<i>agian</i>	<i>ezbe</i>

1.17. Nor, zer arketipoen izendegian

Etxearen zutabeetan aurkitzen dugu Gramatikazko geure nor-tasuna eta edozein izen edo hitz geure burubideen azalpena argi eman al izateko. Orrialde biotan hiru eredu dagoz. Gainerako guz-tiak eman ditzazke zutabe bereen eusgarri:

Nori nai diozu dei egin? Horra OIHUSKOAK. Norekin edo Zerekin gonbaratu nai duzu? Hora GONBARATZEKOAK. Eta horrela...

Nortzu garen

Ez
Etxean da gure

arketipoen

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
<i>no/ni/en</i>	<i>to/tu>zu</i>	<i>era/ar</i>	<i>él/ille</i>	<i>batek</i>	<i>gu/ego</i>	<i>txe/je</i>
<i>my, moi</i>	<i>yo/yi>hi</i>	<i>eurak</i>	<i>le/la/lo</i>	<i>beste,</i>	<i>kau, eketa</i>	<i>txeia</i>
<i>nor/inor</i>	<i>ide/ich</i>	<i>ura/era</i>	<i>alguno</i>	<i>banek</i>	<i>kide/quién</i>	<i>zein</i>
<i>mih</i>	<i>txo/you</i>	<i>ari/ark</i>	<i>lui/ler</i>	<i>vobis</i>	<i>cui/cuyo</i>	<i>sibi/si</i>
<i>nos/noster</i>	<i>ode/zoin</i>	<i>ori/orrek</i>	<i>allelon</i>	<i>vos/vester</i>	<i>gure/ekiein</i>	<i>ése,</i>
<i>nemo/nick</i>	<i>deus/tots</i>	<i>urlia</i>	<i>alter</i>	<i>bakotx</i>	<i>ekeinos</i>	<i>se=ses</i>
<i>neu/neure</i>	<i>su/zure</i>	<i>euren</i>	<i>aliquis</i>	<i>sfeis/sfon</i>	<i>kori/qué</i>	<i>éste</i>
<i>mengano</i>	<i>zutano</i>	<i>urlain</i>	<i>ulain</i>	<i>fulano</i>	<i>quaedam</i>	<i>sandia</i>
<i>nadie</i>	<i>uts/todo</i>	<i>rien/res</i>	<i>alako</i>	<i>pan</i>	<i>gauza/cosa</i>	<i>ezer/zer</i>
<i>norbait</i>	<i>autos/tal</i>	<i>eren</i>	<i>lo/algo</i>	<i>ber/bera</i>	<i>qui/aquel</i>	<i>zerbait</i>

“Jakinduriak bere etxea eraiki zuan, zazpi zutabez ornitu zuan” (Esa, 9, 1)

arketipoak amaren etxean, INKOA eta NORBERA elkarrekin berbetan

AN	UTU	RA	ILU	Ba	Ka	aSa
<i>aMa</i>	<i>aiTa</i>	<i>auR</i>	<i>Loi>Lur</i>	<i>Baita</i>	<i>Gaia</i>	<i>aSa</i>

euskera bakarrik *oihusko* hoiien edo gonbaratzaileon gordailu bakar. Euskera hizkuntzetan jatorrena denarren, beste hizkuntza greko-erromanikar askok ere, ezik klasikoek, maizetan lagun egiten diote bizi diren Ama Eskolako hizkuntzetan zaharrenari.

NOREKIN GONBARATU edo Gonbaratzekoak ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
<i>ain/ein/oïn</i>	<i>duin</i>	<i>aren</i>	<i>lain</i>	<i>bein/bai</i>	<i>cuán/qué</i>	<i>zein/asina</i>
<i>-en/-ino</i>	<i>tan/zoin</i>	<i>arean</i>	<i>ala/ola</i>	<i>veluti</i>	<i>gino/gardi</i>	<i>zelan/selon</i>
<i>antzo, ansi</i>	<i>edu/uti</i>	<i>are</i>	<i>lez, legez</i>	<i>bezala</i>	<i>gisa/guisa</i>	<i>jas/yes/ez</i>
<i>onan</i>	<i>ide/adin</i>	<i>orrela</i>	<i>olan</i>	<i>bardin</i>	<i>kide/equale</i>	<i>sic/asi/si</i>
<i>nola</i>	<i>oso/total</i>	<i>eratan</i>	<i>aulan</i>	<i>bezain</i>	<i>cual/gara</i>	<i>sano</i>
<i>muy/anitz</i>	<i>txit/sumo</i>	<i>real</i>	<i>alen</i>	<i>behinen</i>	<i>como</i>	<i>sane</i>
<i>inobre</i>	<i>super</i>	<i>areago</i>	<i>alyn</i>	<i>presque</i>	<i>geiago</i>	<i>ya/según</i>
<i>ainbat</i>	<i>tanto/tal</i>	<i>urreean</i>	<i>alako</i>	<i>parecido</i>	<i>igual</i>	<i>semeios</i>
<i>máxime</i>	<i>thusto</i>	<i>eurrez</i>	<i>lar</i>	<i>vix/pene</i>	<i>guzti</i>	<i>aski/asko</i>
<i>nahiko</i>	<i>doi, soil</i>	<i>erruz</i>	<i>alaso</i>	<i>harto, pizka</i>	<i>gutxi</i>	<i>aseki/assed</i>
<i>minus</i>	<i>ttantta</i>	<i>ralo</i>	<i>labur</i>	<i>poxi/poco</i>	<i>ka/quia</i>	<i>eskaz</i>
<i>noski</i>	<i>utique</i>	<i>real</i>	<i>alegia</i>	<i>vere, bai</i>	<i>egiaz</i>	<i>certe</i>
<i>nahiz</i>	<i>todaya</i>	<i>or</i>	<i>alor</i>	<i>baina/pero</i>	<i>agian</i>	<i>siquiera</i>
<i>modo</i>	<i>tamaño</i>	<i>era</i>	<i>ley</i>	<i>baremo</i>	<i>clase</i>	<i>sentido</i>

II- BAZTERGO TEOLOGIA: AMAKATU>MAGIA

2.1. Ugarit beste kultura

Kultura zaharren oreka urtegi ugarien baranoa izan zan: Sumerian Ibarrate eta Egalate *Eufrates*^(g) eta *Tigelet*^(h) Sortalde Astean eta Abay Nilo ibaiaren zoria Egipton. Bi mila kilometro inguruko mortua dago bien artean eta Ama Eskolako jakinduria nausitu zan bietan. *Ugarit*, Kanaan ere deitu unea da beste bien artean kokatzen den irugarren kultura une batean¹ eta antiekultura gertatu geroan. *Ast*>*Astetik* mortua eta *West*<*Ostetik* itxasoa du. Sorte eskerge biokin burrukan, egokitu zitzairen *lur aulduaren* arabera, *iLu*>*aL*dunaren >*lehiak*, >*lilurak* dagoz euren zoria *ugaro* garratzari emanik, Puni-*kar*² gendea bezala, Egiptoko *Abai* Nilo zoriaren edo mortuz besaldeko bazterretik *Ibarrarte* Mesopotamiari begira.

Gende sahiestuok¹ *iLu/aL* Baitako eginik, *BaaL aLym*>*alena*² teologia apostua egin zuten, norbere jainkoa besten jainkoen gafiñetik olioia uraren gainean lez ikusten zutela.

Itxasoaren eta Mortuaren erdian, elementu biokin burrukan, antzerki eratarra moldatu ipuinetan kontatzen digute euren jainkoekiko zoria³. Kuneiformera idatziak dagozanez, azieran sumeriar kulturako zirelako seinale da.



Baal alena, makilaz eta ilhungiz armatua, inbutu antzeko kaskoa buruan.

1 *PUN* zan euren jatorria Egipto mugako Itxas Gorrian eta hortik datorkie *punici*⁽ⁱ⁾ *punika*, *fenicio*
2 Euskeran burlezar erabilten dugu *alena* hitza, “tonto *alena*” adibidez, *makila*>*melek* “errege”, eta “basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi, nor da?” hizkirimirian.--Alkatearen *makila*. *Ilhungi*^(eusk) “ostots” Iluk Balu-rentzat prestatu arma beziak. (Ikus Ba’lu taxua eta armak or.36)

3 Itxasoarekin burrukan, “*Balu eta Yamu-ren arteko burruka*”, mortuarekin “*Balu eta Motu-ren arteko burruka*” (DEL OLMO LETE, *G Mitos y Leyendas de Canaan, Cristiandad, Madrid (1981) (MLC)*



Egipto. Itxas Gorria, mediterranean itxasoa. *Ugarit*, itxas bazter *kane*>*Gane-en*>*Kanaan*, Egiptotik gertu urez naiz legorrez. Abay/Nilo-ko Delta, lauki zuriko Memphis unean, beste aldeko piramideen parean. Icsok aukeratu zuten lurraldea. Piramideen Aker zaindari den Esfingeak ez zituen bildurtu. Temploa jaso zioten Ptah bere jainkoari eta haren magiazko Sorkuntza aldarrikatu zuten Menfis, burunaiko izan asmotan.

2.2. iLu jainkoaren nortasuna

iLu jainkoak ez du zero urdin edo eguzki adineko sinbolorik izandian, *iLargi* aldakor edo *Lur* loia izan ezik. Sumertarrek ez zuten jainkotzat ematen *Lur* arketipoa, bere *auLeriaz*, *Lazkeria*, *Ildura* eta *iLtea* zekarrelako. Agaitik Ugariteko antzerkietan ere, *iLu*, *Lotan* dager *Lur Loian* luze edo *Lorioan*, *etxoLan* edo *sheol*^(h) deituan.

Dakigunez, lurra *baratzetuaz* bakarrik egiten da *Baradisu*, eta itxasoak, emakume peituz⁴, eta baratza lurgune egoki barik, familia gaberik gelditzeko da. *iLu* jainkoaren emaztea Atiratu zan. *Ama*- arketipoa falta zaio *Amaterasu* japoniarrarekin berdintzeko. Beraz Ugariten lehenetasuna aiTatiar arketipoarena da. Beinola Baal izan zutena **BaT** sortu asmoa-edo zuten, asmo berrietarako, hotz, Sorkuntza berri baterarako jainko berria aukeratuz. ¿Sorkuntza berri horrek ekarriko al zien beste kulturen heineko maila lortzea?

Ma-aT-en manamentuetan “ez ostu zuena ez denik” esaten duela? Bada, Ma.aTi berari ostuko zizkioten bere botere guztien agiriak, herriak berak ikus zezan jainkoen boterea noren eskueko gelditzen zen. Hain umekeriazko apaizen⁵ jokabide hau sinestezina da, baina idatzia eta harrian taxutua daukagu (ikus 39)

4 Ba dago gure mariñelen artean emakumeak zer balio duen jakiteko: “Itxaso balitz esne/ t, ontzia kristalezkoa/ andreak ontziratzeko/ Birgiña Begoñakoa”.

5 *Abate* izenak *abade*<*apaiz* eman du alde batetik eta *vate* “bertzolari” bes-tetik, tenploko lanari edo plaza bizibideari eman gendea.

2.3. *Icsoak Egipton*

Icsoek etorkin fama dute Egiptoko Historian, baina jatorri ezabatuak dira, inork nai ez bailuen harein arteko izan. Hala ere, euren arketipo edo jainko izenetatik ezagutuko dituzue. *Baal alena* ezagutuez gero, urrean dator *Ptah* forma, grekoek erantsi -h eta guzti. Ezezagun jatorrizko egiten dira, baiña euren Teologiatik argi ezagutzen dira eta harago euren egin-tzetatik, “euren egintzetatik ezagutuko”, aidanez. Icsoek Nilo Deltan hartu zuten atanda, Piramideen beste alderdian eta Menfis gendeztatu zuten.

Ordurako mediterranean itxasoa alderik alde ugarotua zuten, zilar meatzen bideak arakatzen. Lur mardulean ondo errotu ezezen, patekoek arte lantegi biurtu zuten euren Temploa. Hanartean Faraoiak Piramideen zaintza Esfingeari utzirik, eta Ma.at Goiko Zaiñari Jakinduria (ikus or. 39) Tebas-en errotu zuan Uriburua, Abay eremu erdigunean, gero kolore anilagaitik, Nilo deitua izan zen Ibaian. *Abai ibaia* bera zan Egipto batua, baina haren luzeak Goia eta Bea bereizteko jokera zuan, *Oikupta* “etxe batua” deitu aurretik.

Bata>Ptah jainko berriaren Abateek ere batasun idea bera erlegino mailara jasotzeko, Ma.aT=aMa.aiTa arketipoen bikotea atakatu zuten orduan *Menfisko Sorkuntza* deitu agiria argitaratuaz.

Egiptoko mapan, hala ere, Goia etea Bea gunee bi dira, aMa eta aiTa maite tiria berean bi direnez. Abateok, erroto iraultza “egitearren, oinarrira jo zuten: Tebasen ezinean, Menfisek egingo batasuna” esatean lez. Bai, amakatu⁶ egin zuten. Ma.aT-en botere agiriak bai, baina aMarik ez (ikus or. 39). Amarik behar al du abaten politikak edo emazterik⁷ feniziar mariñelak? Belariz itxasoan dabilenak, zer egin dezake aize barik olatuen edrdian? Menfisko abateek jakin behar-ko zuten bada Adapa⁸ Jainko morroiari jasorikoa.

6 *Amatu/amakatu* elkarren aurkako dira: umak umea dakar, amakatzek *magia* eta, berez, *berezi>farisear* egin direnen magia hatan ere.

7 Gure mariñelek nai ta eziña abesten dute, hala ere: Ixasoa balitz esne/t,ontzia kristalezkoa/ andreak ontziratzeko/ Bigiña Begoñakoa”.

8 *Adapa*, aNu-ren serbitzariak velariz egiten zituan beko uretatik goiko uretakoak. Bein, halako burueritsiz, aizeari egoak moztu zizkion eta txarto egintzat eman zuan aNu-k, eta “ez da Jainkorako duin” ebatsi.

Ma.aT, JAKINDURIA eta BaTa>PTah, ASMAKIZUNA



“Ma.aT-en botere seiñuez geure Jainkoa konpon dezakegu” eta Ptah-en abadeek. Menfisen euren Teologia berriaren agiria edatu zuten. *Ma.aT*-en *matoa* edo agente *was>bastoi*a kendu eta Ptah-en eskuetan ipini, haren armonia seiñu den idunekoa ostu eta Ptah-ren lepoko egin, haren *buruko>fulkro*, zuzentasun seiñua, kendu eta, irudian agertzen denez, leoi narruz jantzi abadeak Ptah-ri opa dio. Hala ere, ez ziren nonbait Ma.at-en *salbamen aingura* hartzen ausartu, hainbarik bai-da Ptah.

2.4. “Menfisko Sorkuntza Teologia” ANET, 4-5.

“Bigotzean jarri zuan bere jatorria eta mingainean Atum-en¹⁰ parekide delarik, Bata da Altzu Bikaiña (bizia jainko guztiei eman diena) [...] Horrela Orzi [jainkoa] Bata izatera etorri zan, mingainaren bidez, eta Tot Bata-rekin berdindu. Bere bigotz eta mingaina, gainerako soin atalez jabetzen zela. [...] Atum-en sendia bere barrabil eta eskutikoa zen

[sekxu sorkuntzaz] bezela, Bata-ren familia bere agin eta espainetarikoa da, berak agozkatuala jaio bai-ziran Shu eta Tenuf ere.

Begi, belarriak eta sudurrak bigotzari ohar egiten diote eta horrela burubidea osatzen eta mihiñak bigotzak barrundatzen duena agozkatzen du.

Horrela sortu ziran jainko guztiak eta euren sendiak. Beraz bigotz-abots dator, mingainari esker, eta horrela lortzen du jainko heina. [...] Honela gertatu zan Bataz esana: jainkoei izena eta izana eman ziena, benetan Ta tenen” [>denen Aita] dena. [...] Honela agertu eta ulertu zan bere indarra beste jainkoen gainetikoa dena. Orduan, Batak atsedena izan zuan, jainkoak egin, uriak eraiki, eskualdeak antolatu, jainkoak euren aldarretan ipini, eta, sosega zitezten, bakoitzari zegokion eskeintzak eta santutegiak agindu zituenen. [...] Halatan, jainko denak, euren Ka eta guzti, beragan elkartu ziran, pozik batzarrean Etxe Bikotzeko Jaurerrian.” (Ikus or, 39, Bata-ren Aintzazko Izendapena, Abate Buruaren eskutik)

2.5. “*Īno in = esan izan*” hitzaren magia.

“Izena duena ba da”, izena lekuko denean, baiña besterik da “esan eta egin”, hitzari ustezko magia egozte. Euskerak ere gogoratzen ditu hitzaren magia adierazten duten esakerak, “ino-in” aldi baten edo “esan-izan” geroago” eta gaur bertan, “esan eta egin”, beti ere oharren bat geitzen zaiola: “esatea merke, egitea neke” eta argiago: “Inkoak in, gizakiak egin”. Juduek Ala/ela, kantuzko “lelo” deiera ere ezagu duguna eta *Elohim* forma geiengoan, euskerak izekaz *alena* diñona, Al>*Alena* lez eta zenbakietan Lenen egin dugun bezala.


Bi pilako bildumetan (Has,1,2) honela diño: “Jainkoak esan zuan: “egin bedi zerua” eta zerua izan zan”. Nork erakutzi zion Jainkoari “Esan eta egin” magia? “Nor izan da haren konsejatzaille?”-galdetzen dugu (Is. 40,13) Beraz, nork konta dezake bere Sorkuntza ganora nolakoa izan zen edo herrikoiago “heuk erakutziko deutsot aitari umeak egiten...”.

Hala ere, jainkozko edo gizaki, bakoitzaren almena bere egiteetatik eza-gutzen da (Mt 7:15-20) eta halako eskarmenduak Teologia egiten du.

9 “Ta tenen” títuloak, koptoa eta euskera hitzez eta Gramatikaz elkarri atxikiak egiten ditu, beste jakinduriak aparte.

10 Atum sorkuntza zaharreko arketipoa, Aitona aipatzen du, bere parekide den Amun=Amunaz ez delakoa egiten duela.

11 Hagaitik otoitzetan “iNdazu” eskatzen zaio Inkoari, Inkoak ez duela Giar beharrik, gizakiari, berriz, “eGidazu” Giarraz baliatzen garelako.



Donienetako Suteak ba du bere magia eta magiazko den zoramenik. Eguzkia zeruaren inguru biraka dabilen bezala, gu aren suaren partekide den Sutearen inguru biratzen gara. *Utu>Su* eguzkiari indarra geitu nai diogu Ekain urtemugako iluntzean, *eki gai-ña>Ekain* dela. Suaren biran abesten dugu, arauak eta birauak nastatzen ditugularik: “gariak eta artoak kaixan gorde! Zapoak eta sorgiñak sutan erre.” ¡Gora San Juan!”. Geure mitoen oroimena den erritoei ospatzen gendun/dugu, memoria berritzu artean.

2.6. *Magia, teknika egiña?*

Hitzaren balioaz araua birau bihurtzen da ulermen bidetan eta agindua ekintza. Errito mailara jasotzea baino ez dago, oitura iraunkor egiteko eta orduan magia teknika da: herria eskolatu eta jaurritzeko modua, dela demokraziaren edo erleginoaren izenean. (Goebels-ena, beste era batera)

Harri famatuaren biran ibilki jiratzea Mekan edo Urkiolan edo indiarren mandalaz ariketan, eguzkiarena egitea bezala da. Sumeriarrek *Subiru<UTu+bira* deitzen zioten. Urrunago joan barik, euskaldunok Doniene Sutean *su biran* ekiten diogu urtemuga ospatzearren edo osasuna eta bakea eskatzen, edo arauak biratuz, “sapoak eta sorginak erre” oihukatzen zenean/denean bezala.

Eleizako liturgian latina erabili du herria bide sagaratueta-edo eskolatzeko. Horretarako, latina¹² ustez teknika aparta izan da gure egunotaraiño, harik eta senak edo zentzunak emonda, “ez da zilegi” esan eta herriko Ama Hizkuntza, euskera eta beste hizkuntza baztertuak berriz eskuratu direño. Hori bai izan dela euskeraren eta herri hizkuntzen aldeko benetako iraultza apostua, geure egunotakoa hatan ere, ez denen gustokoa.

Herria menderatzeko teknika ona izan da magia eta, beraz, gizakia edozein jainkoren serbitzari bihurtzeko teknika galgarria (*Enuma elish*, VII, (4) *Gishnumunab*”, aitortzen duen bezala. Bata jainkoaren izenean gizartean bultzatu den jopu ganorak Ama Eskolako maitasuna peitu du. Maitasunak bakarrik egin dezakelako benetako batasuna askatasunean.

12 Euskaldunek Doniene Sutearen inguru, *su-bira* egiten dugu, sumertarren *Subiru* antzera.

2.7. *Magia edo sinismena*

Sinismenik ezean, maiz magiara joten da, amatzen ez denean, amakatzera joten denean lez. Sinismenak berriz, Espirituaren dohaia denez, Sorkuntzako arrigarriak ulertzen eta jarraitzen laguntzen digu.

Gizakiak ezin du utsetik lore edo txori bat sortu, baiña magiagiñak antza eman dezake trikimailuen bidez, eta poltzatik uso bat atera. Emakumea umea izateko gei denez, sorgiña dela, esan dezakegu zentzunik onenean: senarrarekiko maitasun legean, aurrizateko gei delako.

“Magia eta sinismena” aipatzean, funtsean “gezurra eta egia” aurkatzen ditugu. Nazaretoko Igarleak gaisoren bat osatzen zuenean, “zeure sinismenak osatu zaitu” esaten zuan (Mt 9,18-26) eta beste toki baten “han ez zuan mirari andirik egin, euren sinismen ezagaitik”. (Lc. 9:37-43)

Magiak asko agintzen du, baiña gaisoa osatzeko utsa da, ostera fede/sinismen piska bat “arbi aziaren duiña” duenari eroiaren albidea agintzen dio Maisuak. (Mat. 17,14-20)

Jatorrizko kultura zaharrak izadiaren mugida eta etorkizuna jarraitzeko euren guruak jartzen zituzten *Ekur*-ean, jainkoari *agur* egiten, *gurtzen*, hitzak eurak neurtzeraiño, arauak bira eginik, okerrera izan ez zitezkan. Sinismenak, beraz, Espirituaren maite ekintzak ulertzen eta jarraitzen ditu eta ezin ederragoak eta obeak ematen ditu Sorkuntza lanak. Hala ere, ba daiteke norbait bere sortez edo osasunaz gogait egina egotea eta otoi-tzak biraoz trukatzera, zori obearen amesetan. Zeresana dute sikiatrek.

2.8. *Adu/ Adur eta Patu*

Zoriaren arian agertzen den sortea mugitzen duenez esaten da adua. Zoriona edo Zoritzarra bereizten dugu. “Zer egingo jako ba!” esan ohi da halako elorrioetan, elorria sortu duena aipatu barik. *Adua*, baitatuz gero, *Patua* da eta norbait *patutu*>*fadado*>*hadado* dagola esaten da.

Adur adurak edo “norbaitek iragarria, halako baldintzetan gertatu beharrak” ere, ba du magiaren arteziarekin zerikusirik. Hala ere, magiarekin zerikusi geien duena, Adu baitatu, Patua da. “Patuak dago” esaten da orduan, hotz, Aduak mende dauka. Halkoez esan oida: *patoso*>*patutuxo*>*paxuxo*>*passu*⁽¹⁾ latinak ere herritiko abotzetik ikasi zuenez. Neo-Sumertarren mitografia harago joan zan, akkadiarren *Patua*,



patutu>PAZUZU,
sumertarrek salatu geinua

Gilgames geinu patutua *Pazuzu* deitu piuran salatzeraiño, (ikus or. 43) halako gizonkeriaz, Gildamesek Inanna/Isara/Istar maite jainkosaren eskua ezetsi zuelako, Baradisuko gezur subea eta egunotan zeinbat abate klerigoei egotsiriko errua, zergaitik eta zertan den halamoduz azaltzen diguna.

2.9. *Ama baztertzea den antikultura*

Emakumea gizartetik baztertzea gizakia-
ren jatorria eta gizatasuna bera ez ezagutzea edo ez onartzea da, eta beraz, norbere zoria gutxiestea. Emakumeari egin iraiña, haren Egileari egina da¹³. Hagaitik dihardu Pazuzu ere atzamarrak goitik eta betik denari oratu naiez eta denak iges egiten diola. Ama sortzailearekiko baztergo honetan jaio zan *Baztergo Teologia*, herri-

kiko lotura jatorrak apurtu, eta baitako bekaitzaren azi gaiztoa sartzen duelako inoren soloan, eta kristianoen gizaldietako eliza katolikua salbuespen ez dela.

Antxinako Espirituak “aMa. uTu. aN. Ki” esan zuan herriaren agotik eta giza puzminak “aMa” bastertu eta ordez bere baitako asmoa Ba+T aitatiar utsa sartu zuan jainkotzat, hotz, bere asmakeria hartu jainkotzat. Errabide andiagorik ezin zezaken artu, ez zoramenik egin: Ama+Aita guraso bikoitzaren *MaiTe* korapiloan oiñarritu sorkuntza baztertzeaz.

Benetako batasuna seme-alaba ugari direnen arteko lokarriez egiztatzen da gure gizartean ere. Amak ez du eguno ezetsi Aita, Aitak ezin dezake gutxietsi Ama. Zenaremazteen arteko maitasuna berezko legea da, ez da giza erabakia, ez herriak sortu duen artezia. Ostera, berak sortu ditu herriak eta herrietako kultura. Gaiñerakoa antikultra galgarria da.

13 “Txikiotako bateri egin zeniena, neuri egin zenidaten” (Mat. 25-40)

2.10. Icsok eta Exodo goraberak

Etorkin hoiek burunaiko asmoz altxatu zirenez gero, ezin zezaketan bakean luzaro iraun Egipton. Hala ere bosteun urteko Erregetzan bere Dinastia eta guzti gotortzeraino nausitu ziran, Tebasko Faraoiaren aurrean. Esnatu ziran noizbait Egipto Bekook, haka ere, eta aurrekoen oroitzapena eta indarrak bildurik, Tebas-ko XVII Dinastia, eRa-ren izenean, mugitu ziran eta Amosis I Faraoiak Egiptoko lurretatik ate urtikatu zituan icso etorkiñak.

Historiak baiño argiago, ez garbiago, dino Exodo=Urteera atalak edo haraz gero oraintzu Menfis inguruan egin diren Arkeologia indusketak. Arkeologoek icsoen astarrenik bai, baina hebertarrenik ez dute idoro. Horrela erabagi genezake, erlegino berbereko jende ber-bera, izena ezizenean marrotua, hotz, Exodo idazleek euren jatorriaren aintzarako maneatu zutela euren asmatu jainkoa: amakutzen dutenen magiazko arrigarriak idazteko.


Icsok Egipto lurralde narotik mortura egotsiak izan ziran, eta Ma.aT agindu amatar ezetsien orlez, turutots eta inisitu-pean Sinai mendian Moise¹⁴ Maisuari emon eta tximistaz harrian idatzi aginduak, artu zituzten eurentzat. Ama Manamenduak Moiseren *Legekoekin* gonbaratzea baiño ez dago, ze espirituko diren sumatzeko. (ikus or. 17-18)

Moisen jarraileak berrogei urtetan mortuko lazkeria jasan zutela dino Exodoa-k, bidean asko auldurik jausi zirela, Moise bera euren artean, jainkoak agindu lur berriara eldu aurretik eta Miriam¹⁵ bere arreba nausia.

Uri Salin, Salen Uria/ Jerusalem zeritson uriburuari Juda eskualdeko mendian. Hortik judu izena ere, toki haretan biltzen zirelako jatorrizko abertzale fededunak edo aldi obeen itxaroan irauten zuten igarleen eskolako "herri ondakinak".

14 Ohartzekoa da arketipo bardineko izenon egitura: Moise/Moises^(h) hebraieraz eta Amosis^(k) koptoeraz, literaturaz bata, historikoa bestea, egitura biak ere *Maisu*^(eusk) izen eta edukinaz bat datozela. Ohartzekoa halaber, Ham-murabik, Asteko legegilerik famatuenak, aldi beretsuan arrian idatzi zituela "begia, begitruk" eratako legedia (ikus. or. 80)

15 Miriam-ek zaindu zuan, hain zuzen, Moise nebatxoa, ume zelarik, Niloko ihitza artean. (Urt. 2:1-8.) Egitiar izen hau Miriam>Mari dator Neosumerian ere, eta Berri Ona idazkietan bezala, mitoaren egadan Anbotoko Mari-ganaino hain Historia luzean, egan egiten duen andre izena dugu.



Etorkinen historia zaharra da benetan. *Abay/Nilo ibaiak* baratz mardula ekarren. Egiptora jatxi, iges egin, bertan egokitu. Icsok Egipton aldi batez euren lanaz eta arteaz aberastu eta burunaiko egin ziren. Gero Faraoiaren erasoan alde egin behar.

2.11. Bideko ezbidet

Berrogei urtetako bidea mortuan zehar, latza da eta erromesen artean etabaida sortu zuan. Batzuk oiñezkoaz nekatzen ziran, eta bete batzuk gosetu, Egiptoko lapiko beteak gogoratzen, "berton hiltzeko ekarri al gaituzu Egiptotik mortu honetara? [...] Egipciarrek zer esango ere..." kexu ziran Moisen aurrean (Urt. 32:12).

Moisen Legearekin ados ez zetotenen artean, Miriam, Moises beraren arreba. Zera iñoan: "Moises bakarrik ete da, bada, jainkoarekin harremanak dituen?" Erantzun gogorra hartu zuten: "Moises bakarrik zela Jainkoarekin arpegiz arpegi berba egiten zuena, ez besteak bezala, amets ariñetan. (Urt. 33:11) Miriam, Moisen arreba, bideko otoitzgaien animatzailea, kantu eta kitaraz laguntzen zuena. Moises nebari halako oharra egin ziolako, legena deitu gaisoaz, hotz, *lege pera* > *lepra* zigorra artu zuan.

Haraz gero Bipila lerroetan haren heriotza baino ez da aipatzen, baina Miriam/Maria izena, amaigabeko luzapena merezi izan du Itun Berriko historian eta andikien botere orokorra dutenen aurka, baztertuen aldeko *Magnificat* iragarri eta abestu zuen Jesusen amagan. Ohartzekoa da joaneko Itun Zaharrean jainkoak Moises gizonezkoa aukeratu izana eta Itun Berrian oster, Espirituak iraultza berrirako *Maria* deritson emakumea aukeratzea. Hagaitik dino esakerak "Ez dago ordeko ordeaz egiten den zuzenbidea baiño oberik".

Israel herriak zerbait ikasi zuan mortuan eta alperrik da bideko lorratzak ezabatu naia, oineko minaren lekukoa osatu ez deiño.

2.12. Nolako jainkoa, halako gizartea.

Bai, erlegino batzuk arma indarrez jabetzen dira besteen askatasun eta bakezko bizimoduaz. Hala kuartelean hezi mutillak Ama Eskolako famuliez. Pedro apostoluak ezpata bat zeraman Jesus bere erregegaia Jerusalem-en goraltzeko, baina Jesusek “kendu ezpata hori- esan zion- ezpataz erasotzen duena ezpataz hila da-ta. (Mat. 26:52) Berak aMa.aiTa>maitasunez nahiko zuan Jerusalem, juduen uriburua, bereganatu, “oilo amak txitak bezala ohi bezala” (Mat, 23-37) Jesusek ba zekian iri harek, igarleen eraile fama zuena, esku utsik han aurkeztu zenean. Haraz gero, Jerusalemni gaizto fama batez ere haren Kalbariotik dator, edozein gaizkile bezala, han kurutzatu zutelako Jesus, Mesias Salbatzailea.

Zazpi gizaldi geroago. Mojametek arma indarrez erraz menderau al izan zuan Jerusalem. Siondarrek ere, Europako II Guda orokorrean jasan eta ikasi ostean, arma indarrez berreskuratu zuten Jerusalem. Haraz gero ez dute bakerik aldameneko islamiarrekin eta Hammurabi akkadiar Legegi-learen “Begi begi truk” araberako araura bizi dira. Egunotan *Deia*-ko Berriemaileak ere hau dino Jerusalemni buruz: “Jerusalem urian jendea, bere erliginoaren arabera, bata besteari ostea emanik bizi da” (Uztailak 31, 202)

Ausaz jainkoren batek agindu dezake indar eginaz, armak zorrotzuz, inoren lurrez eta herriaz jabetzeko, israeldarrena Kaleb buruzagiari lez: “Igon eta lurralde hori eskuratu behar dugu, indar obeak dauzkagu-eta”. (Num,13,1-2.25) Hala jainkoa armaz eta indarrez gehiago direnen alde ete dago?

Jesusen gurutzak ausaz baketu ditzake juduak eta islamiarrak gaurko Israelen, bada *eLoym/aLa* eskolako direnok, euren sendiko *enLiL* jainkoak Sumerren egina errepikatzen dute (Ikus or, 46, 47)

Kristianoen artean ere ebangelikar deitu sektak sartu dira, Egoamerikan bederen, norbere jokerako politikak zuritzearen, elburu narraserako erabili dezake.



Sumerreko zilindroen mitograma: Jainko armatua nausitu da etxekoan gainerik eta konponketa behartua dute, ez gustukoa. *Enlil* jainko armaturen taxua eta *Inanna* Maite jainkosa kiki-dua ikustea baiño ez dago. Len Inannaren *Leoia* izana orain *Enlilen* aldeko. *Ariel*TM “leo” zena ere *Leoin* aldatu zuten



Nortasunen janzkera: Sumer, zazpi jostunen eratarra, *Enlil*, akkadiar-semitar eratan, arku eta geziz armatua, *Inanna*-ren ohiko leoia ere bere ondoan “vincit leo de tribu Juda” harakoa aldarrikatzen? *Inanna*, ego loratu, baina ezindu, ustea *Utu* nebeagan duela. *Utu*, itaiaz arroka itaituz, mendartetik itoitzen da. Jarraian *Enki* zangar dator erreka bi, *Eufrates* eta *Tigris* sorbaldatik darizkiola eta aldamenetik *idia* etzana eta *usua* egan korua egiten diotela. Bera da *An* “zeru” Aitak lurrera, urak antolatzera bidalia. *Enlil* sakerre antzeko, baso eta murrutuz, Inananagadik banantzen duela.

2.13. Mortuko>amortarrak Sumerren

Historia biribildu egiten da, bataren eta bestearen ertzak lotzen diren. Euren izenetatik baiño harago euren jokera eta “egiteetatik ezagutuko dituzue” (Mat. 7, 15 - 20) Icoek erraz nausitu ziran Egipton aldi batean, koptoek Ama Eskola kulturako herri baketsu zirelako. Handik urten eta amortar egin ziran mortuan. Sumerren Uruk uriak eskailera idekia prestatu zien Zikuratera igon eta aNTu ama+aita jainkoaren santutegiaz jabetzeko. *Gilgames* akkadiar buruzagiak ondo armatu. merke igon al izan zituan eskailerok eta gudu deirako atanborak jo jainkoen etxeko atarian.

Enlil jainko berriak herriko politika aldatzen zuan. *An*, *Enki*, *Utu* jainko eta *Inanna* arreba goian zeruak eta bean lurra gelditu ziran. (ikus or. 47) Izadiko indarrak bakarrik alde zeuzkatela? Ba, *Gilgames* eta *Enkidu* eroiak Sumertarren Izadiko indarrei axut egiteko prestatzen ziran.

Lehendabizi, basoko zugaitzen jabe den *Humbaba*=*Basajauna* hilteko erabakia hartu zuten, haren basoko izaia errekan bera igaro eta Uruk herriak orduan jakingo zuan nor nausi. Arotzagana joan eta iru talentoko aizkorak agindu zituzten eta bi talentoko aiztoak (*Gilgames*, II, IV.160-170) *Libano* edo armatan dirua eralgi eta armatu, *Libano* tokitaraiño jo zuten

eta arrandizko ekintzok osatutzat eman. Uruk herriak arrandiz hartu zituan eta Isara/Istar, Maite jainkosak eskua eman zien, Gilgamesek eze-tsi eta haren maitaketak itxurgatu zituan denen aurrean. Inanna, An-en gorteraño igon eta Zeruko Zezena eskatu zioan Aitari. Orduan Uruk-eko plazan zenketa bereziaz erabaki zan auzia. Gilgames eta Enkidu, ondo armatuek, garbitu zuten lehenengo zezena. Haraz gero, asierako Sorkuntza den Ekologia baztertuz, edo Ma.aT-en aginduetan (12) *Ez kaltetu iza-dia*, edo (37) *Ez kali abererik, benetako arrazoi barik* entzungor eginik, herri batzuk zezenketa zale jarraitzen dute, Ama Eskolaren aurka.

2.14. uTu/Shamash eta Enlil Jainkoak auzian

Maite Teologia edo *Baztergo Teologia* edukinez ulertzeko, egoki datoz Shamash eta Enlilen arteko auziak. uTu>Uduzki jainkoa, Ugoldean Utanipistin eta haren sendia salbatu zuena, eta Enlil ez ziran adosten zeinbat arazotan, uTu-rena, zuzenbidea zela eta Enlilena, triskantza: Utuk Utanipistin salbatu zuan Ugoldean eta Enlilek salbamen horren damua minki adierazten goikoen eta bekoen batzarrean.

Gilgames eta Enkiduk egin gaiztakeriakaitik, jainkoen Batzarrak bieta-tik bat, erioz zigortzea erabagi zuan: “Enkiduk ordaindu behar du eta ez Gilgames-ek” inoan Enlilek eta Shamash doatsuak jardetsi orduan Enlil altzuari: “Ez joen, bada, heure aginduz, hil Zeruko Zezena eta Humbaba, eta errugabe dena nai duk hiltea, errudunaren ordez?” Enlil zerutar Shamash-ekin aserretu egin zan: “Horrela berba egiten dok, egunero eurekin egoteko, adizkide gizan jaizten haizelako”. (Gilgamés VII, I, 10-15)

Ur uriko errege Urnammu¹⁶ Inannak babesten zuan. Haren laguntzara-ko Inannak *me* edo erritozko eskubide bereziak hartu zituan Enki neba-gandik. Urnammu ezuste baten hil zan eta Inannak Enlil-en bekaitza sala-tu: “Zoritxarra jausi da Sumerren, Urnammu artzain zuzena hilik eraman dute, [...] Enlil-en azpikeriarren, agindu adur guztiak aldatu ditu (An jainkoak). [...] Artzainak ezingo geiago bere etxea zaindu [...] bere emazteak ezingo dau besarkatu [...] Inanna (Enlilen) Ekur disdiratsuan apal sartu zan Enlil-en begikune itzelaren aurrean. Enlil-ek begiak jiraka (esan zion)

16 Inannaren *me* (edo erritozko eskubide) ugarietan *Isip>isipwarena* da, santera edo apaizgoa, umeak egin edo metalak urtutzeko almena, etab.



Hona Enkidu, adardun eta Gilgames leoin-dun. Uruk urian, bakea-rran, ama Aruruk beste seme bat egin behar izan zuan, Gilgamesen bardingo adorean, haren larregike-riak baretzeko beste izan zedin. Aruruk basoan egin zuan Enkidu, abereen seneko, neska batek oratu eta Gilgamesi aurkestu ziolarik. Elkar ezagutu zireneko, eta burrukan berdindu, baretu beharrez, elkarki-de egin ziran mutilok gaiztakerian. Egin gaiztakeriakaitik, bietatik ba-tek hil behar zuela erabagi zuten zeruan jainkoek. Enlil-en alder-dikeriaz, Enkidu galtzaille. Enkidu gaisotu zanean, bizi zori ezbardinaz damu, manadatik askatu zuan ema-kumea madarikatu zuan. Hala ere, Shamashen oharrera, madarikape-nak bedeinkapen bihurtu zituan...”

[...] zenduak ez jonan gehiago igonen templora hire maitasunez!” [...] Inan-nak orduan [...] heziak apurtu eta sua eman zion Ekur-ari,¹⁷ An inkoaren erabakiak zapalduz, Urnammu bere babestuari egin iraiñagaitik.

Enki eta Enlil ere ez ziran adizkide, naiz biak izan An jainko gurenak lurrean ordezkatuak, bata uren banaketarako, bestea armen kudeaketa-rako. Enkik aitortzen dio Utanipistini (ugoldean salba ontzia egin zuenari): “Hi gizon, hauxe esango diek: “Enlil-ek (ustez) gorroto nauk; ezin diat, be-raz, (zuen) urian bizitzen jarraitu, ezin diat oinik ezarri Enlil-en lurrean, Apsu-ra (Putsura jatxi behar diat)”. (Gilgames, XI, I, 39-42)

“Ugoldea amaitu zenean, jainkoen omenez oparia prestatu zuten eta jain-koek usain gozora urbildu ziran, Inanna/Izarra/Ishtar/Irmini ere eldu zan, Anuk erregalatu zion lapislazulizko idunekoaz [...] “Jainkoek betoz edaki gozoetara (esan zuan Inannak), baina Enlil ez daitela etorri, zentzun gabe-ki uriola erabaki bai-zuan”. [...] Enlil eldu zenean, ontzia ikusiz, aserretu egin zan eta amorruz beterik jainko igigiei (ozen): Batek salbatu du bizia, batek ere ez zuan salbatu behar izan ugoldean” (Gilgames, XI, I, 169-174).

17 *La Lamentación de Urnammu*.DB n^o 26, 73-75)

2. 15. *Eraikintzaren andiz, Etxarra Babilonian*

Babilonian Menfisko Teologiaren magia errepikatzen da, baina arrandiz *Etxarrak* hartzen duen gora duela seinale. Babilonian eregi bai-zan hanartean jaso zen Zikuratik andiena eta jainko guztien batzarrerako haren gaiñean lapislazuliz eginiko kapera *Etxarra* deitzen, arrillu gainean etxe goratuan, beraz, arrizko etxea, euskerak ere gogoratzen duenez.

Artean Faraioen ehorsketarako Piramideak ziran, jada zarkitu eta illunak, edo Ptah jainkoaren abateen masoneriako magia. Guzti hori, lege zaharreko eskaria bailitzan edo umetzaroko kultura, Babiloniak Eufrate erdigunean jaso zuan bere enperioa. Ez zuan agertu nai izan berriren berriko beste kultura lez, hala ere, hanarteko kultura guztien bazkuntzat baiño.

Etxarra<etzetzarra edukina izan dezake, *Esagila*<etxe gaila ere deitzen bai-da, eta jainko nausiek han zuten euren exerlekua. Enlil eta Enki aurkariak ere hantxe alkar zeitezken, bada *Etxarra* Enki-ren urpeko Butzuak zuen sakonera bereko altueraz asmatua izan zan. “Esharra jauregia zeru antzera jaso zena [...] bere guraso jainkoak jainkoak exeriaz zituan eskalasean¹⁹ jainkoek euren exerlekuak aurkitu zituzten²⁰”.

Etxagintza edo “masonería” da gaur ere gizarteko boterea kudeatzen duen Batzarra eta uriak, zein baiño zein geiago, arroagotzen dituen seiñua. Gaisoa zauriz eta pobrea miseriz bazter daitezke, baiña uriak andiz urkatu behar du.

Yawé, Elohim osteko, juduen jainkoa tukuz zegoken edo kinka larrian ikusi zuan Babilonia, persiarren gudariak atanbora altxatzen zutela eta ez zan urbildu jainkoen batzarrera. Haien hizkuntza nastatu zuela, dino *Bipilako* larrukiak. Zigur, Ama Eskolako hizkuntza orokorrara nastatu zuan, aitatiar klase batuari bide eginik.

19 *Enuma elish* V, 127

20 *Eskale/ eskala* hizkuneak Zigurateko eskalera eta jainkoei hara eskatzen doan *eskalea* bateratzen ditu. Eskalera-mendi Euskal Herrikoa uneak ere elburu berdinekoa izan zan, bada gure artean mendiak izan dira eskuz eginiko santutegien ordezkoak. Hagaitik dauzkate jainko izenak: *Aina-mendi/Aiño-mendi, Ota-mendi, Erra-mendi*, etab. Gure arteko mendi batzuk Piramide antza dute, Ereñozarre edo Kosnoa-k, adibidez. Gure mendi batzuen gora duen Piramiderik ez dago. Giza eskuz egindakoak gizakia bera arrotu dezake, baina jainko ekintzaz eginak arrigarritu eta apaldu egiten du.



Babiloniako Zikurak gaiñeko etxea Zeru margo-dun aitzurdinaz eginiko etxea delarik, *Etxarra* deritso, Zeru jainkoek han “exerleku duina izan zezaten lurrean” (*Enuma elish*, 145/VI, 70-74) Jainkoak, zenbat eta faltsoagoa den, oraduan eta arrandi geiagoz agertu behar magiadunen lurrean “irudimena boterera” esan ohi denean bezala. *Etxarra*-ren gora Apsu-ren ondurakoa adinekoko behar zuan izan eta”hantxe exeriaz zituen bere guraso jainkoak (*Enuma Elish*. VI, 66-652)

2. 16. “*Enuma elish*”, *Babiloniako Sorkuntza Poema*

Menfis ostean Babilonia dator Sorkuntza asmo berarekin. Babiloniako Sorkuntza Teologia egitura andiko asmoa da ostera. Bietan elburu berdina. Batak Ma.aT jatorrizko herriaren kredoa itzuri eta BaTa>Ptah aitatiar orokortasuna ospatzen du. Bestea *Enuma elish* izenpean dator “zeru baranoan oraindino hitza sortzear zelarik” diño, hitzaren magia aizatzen eta aseratik sumero-akkadiar aMa.uTu. aN.Ki joanak gogoratzen dizkigula, aNsar eta Kisar aurkeztean, “zeru ZAR eta lurZAR haien berrikuntza egitera bailioan²¹. Beingoan Ma.aT ere, baina magia bereziaz aurkeztua, Tia-Ma.aT>Tiamat egina kopto-menfistar sendiko. (32-39)

Marduk, Damkina eta Ea-ren seme lez, arkezten du (ibi,I.80-82) Tia-Ma.aT-eri magiazko arma berrien burrukara axut egiten dio, magiazko gibiliaz eta sare nastuan oratzen duela, hotz, Ma.aT ganorari, txarma guztia erantzeko, Tia- aurrizena jartzen bai-dio, Kingu buruzagi berriaren gidan, inondiko gudarostea oratzen duelakoa herri inosoari edarazoz²².

Inannaren *me* erritoak baztertuz, Marduk lege berrikoa da, lege zaharreko Tia-Ma.aTi aurre egin behar zion jainkoa. Exarrako abateek eskolatzen dute : “Eup Marduk, eu aiz hi jainko andien artean ohoretzuen [...] hire hitza Anu-ren hitza, [...] hire hitza ukatu eziña, [...] eu gure apentzaila, [...] batzarrean exeritzen aizeneko, hire hitza hitz, eta amen esateko”.

21 ZAR “antxiña, urtetsu, agure” edukinek aintzat hartzen dira. Euren erregeak era BaltaZAR, NabukodonaZAR, eta arruntagoetan EleaZar deitzen bai-ziran.

22 Enki zena Ea da eta Ma.aT> DaMa itzulia, aiTa arketipoa aMarenari aurkezten zaiola. Arketipoen salto berdina dager Tia-Ma-aT izen egituran.

“Eskolarien erdian jantzi bat ipini zuten eta Marduki esan zioten [...] ideki ezak agoa eta *sortu* edo *zuntzi* izango duk hire hitza. Halatan, hitz egin zuan eta jantzia desagertu egin zan, berriz hitz egin orduko, agertu zan jantzia! [...] (Marduk-en) hitzaren erabakia ikustean, ohore egin zioten: “Marduk²³ errege da!”. Tronua eta palua eskeini zizkioten eta etsaiak ahienatzeko armarik bikaiñena: “Hoa eta kali ezak Tiamat! eta aizeek zadorretara eroan dezatela bere odola. Horrela (Baal) Bel-en adua erabagi zuten beretzako [...] Arkua eta gezia egin eta lokarriz erantzi zioten armatzat. Eskumaz oratu eta mailukia jaso zuan, [...] Tiamat arrapatzeko sarea egin zioten”²⁴ [...] (Halatan) Ekaitz itzaltzuaren zaldi laukodun gurdira igon zuan (Mardukek eta) [...] Tiamat arrabiatuaren aurka jo zuan [...] (Auzia jartzen dio) Euk jaso dun Kigu senartzat [...] jainkoen errege Ansaren aurka eta gaiztagin (sorgin gaiztoa) haiz [...] jar hadi zutik elkarrekin burruka dezagun. [...] Jaunak oratzeko sarea bota zion, ekaitzak ostetik laguntzen ziola, [...] Tiamatek al bestean agoa ideki zuenean, ekaitza sartuazi zion (Mardukek), [...] eta, gezia jaurtiz, erraiak zulatu eta bihotzean jo zuan. [...] Txilak eragin zizkionean, akabatu egin zuan.


Bere gorpua lurrera bota eta bere gainean zutik jarri zan. [...] (Gero Tiamatek) gudalburu goratu zuan Kingu atxilotu egin zuan, [...] Tiamat sarekatua gana itzuliz, bernak zapaldu eta mailukiaz burezurra zuntzitu zion. [...] Orduan bere guraso jainkoek zeharo poztu ziran. Halatan nasaitu zan (Jauna Tiamaten) gorpua zerraldo ikustean. Haren gorpu eskerga zatitzean, artezi asmoak izan zituan, (eta haren gorpua), arrainkia baillitzan, bi zaflan ebaki zuan. Zati bata jaso eta zeru zapaitzat ezarri zuan goitik. Zerraila ezarri eta zaindaria jarri zion [...] Apsu leze gainetik goibeak neurtu eta Exarra antzeko jauregia eraiki zuan²⁵.

“Aginduak erabaki eta eratu zituanean, santutegiak irazi eta Ea (Enki)-ri eman zion, Kingu-ri adur agiriak kendu eta, lehen opariz, Anu-ri eman zizkion. (Ibi-8V, 67-70) [...]

23 Marduku<Martu seme, Sumerren ezkondu “*maritu*>*maritxu* zen amortarra, guk *Marti*/*Martxo* egutegian ezagutzen duguna bera, laborantzan *marti*-gari, aberedian *marti*-zozo, *marti*-oilarr izenaz, lanabes berrikuntzeko ipuinetan ere *Martintxu* bera izanik, *martinete* bezalako makinaren sorle gogoratua.

24 *Enuma elish*, IV, 5-41.

25 *Ibidem*, IV, 41-141.



Lenengo emeari gizatasuna ukatu, Ma.aT izenari Tia- aurrizkia ezarri eta gero, Babiloniako abateek, erail egin zuten, Marduk, jaungoiko berriaren izenean. Magiazko Arma guztiak hor emakumearen aurka. Kristau elizak ere ezagutzen du emakumearekiko magiarik naiko.

“Marduk-ek hitza entzun zuenean, arteziako sorkuntzara bihozkada izan zuan [...] “Neure odola nastatu eta azur berriak egingo. Gizaki berria sortuko dut, bizi eta jainkoen gurtzaz arazotu dadin, jainkoak gustora egon daitezcan [...] Ea-k jardetsi zion: “Anaietariko batek burua eman dezala; bat bakarraren galpenak gizadi osoa eratua al dezan”²⁶.

Mardukek batzarrean artu zituan jainkoak [...] eta Anunnaki-ei esan zien [...] “ziñez esan behar duzue egia. Nor izan zan arramantza antolatatu eta Tiamat gudurako matxinatu zuena?” [...] Igigiak [...] erantzun zuten: “Kingu izan zan arramantza antolatatu zuena”. [...] Esku lotu zuten (Kingu) Ea-ren aurrean. Erruaren kontua eskatu eta harek ixuri odolaz gizadia eratu zuten. (Ea-k gizadia) serbitzara behartu zuan eta jainkoak errutik jaregin utzi zituan. (ibi. VI, 13-34)

Jarraian 49 tituluz ohoratzen da Marduk, euretan sumeriar kultoko izenak dagerz, euskerak ere berea ulertu eta neska euskaldunbarri baten entzunera, *esto parece euskera* iruzkindu zuenez, uler daitezkenak, bein Exegesis ikasleen artean gertatua zenez²⁷.

AZKENIK denaren memoria egin daitela! Ulertuek ohar dezatela batzarrean! [...] herria ugaldtu eta aurreratu daiten.” [...]

26 Hitzok Kaifas Abadeburuak Jesus Nazaretokoaz esana gogarazten digute: “zuek ez dakizue ezer; ez zarete konturatzen batek hil behar duela, herri osoa hondatu ez daiten”. (Jn 11, 45-57) *Baztergo Teologia* adinako erabakia da.

27 32 orrialdean euretan (4) *Barazakusu*, (19) *Azaru*.(113) *Tutu*>*doitu*, (17) *Tuku*, (19) *Zisst/txist*, (35) *Gizhunumunab/gizun minabe*, (44) *Kima*, (45) *Ezizkur/Zikurat*, (46) *Gibil*, (47) *Addu*, (48) *Alaru*, (49) *Nebiru* señalatu eta azaltzen ditu autoreak (Felix Zubiaga, *Arketipoak eta Arkeologia*, 32)

2. 17. Ma.aT zelakoan, Jainkosa erail zuten

Uruk-eko plazan Zeruko Zezen *Ishkur>Xekor* gizena kali zuten, eta haraz gero zezenketak historia luzea egin du, Ma.at aginduen aurka. (37) *Ez kali abererik, benetako arrazoi barik*. Beraz halako pasadenboraz xekorketak ospatzea, Ma.at beraren Eskola zapaltzea da. Gizakiak, aberezko den aldetik, kontua artu behar dio *Baka/baita-ge>beixa* (*vaca*^{gaz}) denari ere, ezpaere, norbait itxurgatuz gero, abere delakoan, benetako gizakia, Baitaduna erail dezake, gaurko medioetan maiz agertzen denez.

Gaurko medioak ba dakite, Satan debrua, gezurraren armaz (Jon, 8.44) hazieratik baliatzen dena ere. Gizakiek gezurrezko jainkoengandik ikasi dute. Behin “Jaunak esana” pulpitotik esana entzunarren, kontu egitekoa da zein jainkorena den, hagaitik kristau ulertuek “Jesusen jainkoa” aipatzen dute, besteren batengandik bereizteko. Egunkarietan egunero dator emakume bateren odol heriotz berria eta ez da arritzekoa halako jainkoen, edo antzekoen mendean, *Baztergo Teologiaren* frutua uztatzea.

Marduken Sorkuntza ganora ikusi eta emakume apalak (sorgin bedein-katua benetan), umeak sortzen jarraitzen du, gizonetzkoak maite orduan erantzuten diola. Babiloniatik Greziara, Euripidek *Medean*, semeen ama iraintzearren, ba diño: “Noiz asmatu behar dugu gizakia sortzeko modu oberik?”, horrela, emaztea iraintzen zuan, senarra errugabetzat emanaz.

Maiz gertatzen da gure artean, emakumea delakoan, jainkoa hiltzea ere, gizakia gizakume ala emakume, jainko seme-alaba delako. Edozelan ere, gizakien sortzailea hiltzen denean, gizakia bera ere zakurra ugazaba hiltzen zaionean lez, nora ezik gelditzen da.

Nietzchek, XVIII gizaldian, “jainkoa hil dugu” alamentzen zenean, judu erratuaren kontzientzia zeraman aldean, bere arbasoek Profetaren bat gurutzeratu zutenekoa, agian. Ez zekian, arbasoek erail zutena Jainkosa izan zena, hanartean haren berri lurpean gordeta zegoelako. Jakin izan balu, ausaz, poesia yoriagozko lantua eda zezaken. Monstruen sorgin gaiztoa zelakoan, Jakinduriatzko ordena ordezkatzan zuen Ma.aT erail bai-zuten.

Honez gero, Tia-Ma.aT, ama+aita gurasoen Espiritua hil zelakoa jakinian, ezin gaitezke ixildu emakumea izan dela lehen eriotua, ez eta ere albora begiratu, *baztergo* jokera azpaldiko harek oraingo emakumearen zoriareakin zerikusirik ez bailuen.



Eltxe-ko Dama ere nonbait Tanit jainkosa errebesaren irudietariko da: ezbaikor, errebes, otsoekin dantzatu duen neskatua lez, argia eta geriza, bizia eta heriotza naste. Baztergo Teologiaren gudate larriak ume errugabeen bitimak behar omen zituan Tanit eta Baal-Hamon-en laberako, bizidunetan umeak ekortzea bai-da erre-sena, okerrrena, bigurriena, iraulgarriena eta super-magiaduna.

2. 18. Baal alena eta Kartagoren azkena

Baal mutilen seta ikusirik, *delenda est Cartago* esan zuan erromatarrak eta gatza erein zuten euren lurpean, bizia desagertu zedin. Haraz gero seta haretako gendea alderrai dabil: batian Baltikoaz Mediterraneo berria asmaketan, III gizalditik bandaliar gendartean edo bikingo izenez IX-an, ontzi ariñekin egoaldean zarradak egiten edo joandakoen memoria arte eta filosofia gordean saiatuz, *Igdrasil*²⁸ arloan edo *Normas* saioan bezala.

Harako Pelagio monxeak ere, V gizaldiko Irlandan, ez zuan ezagutzen *Baztergo Teologia* bera ez ote den naiko “jatorrizko pekatu”.

Erainkintza eta magiazko erliginoari dagokionez, barriz, Yukatanen ikusten ditugu piramide berezien argin eta magiazko giza odolketako liturgizunak XV gizaldian edo Tenesse aldeko piramide jatorragoa erakitzen, dollarrak ere jainko begiaren triangulua bereko izan dezan eta masoneriak ere, “esan eta egin” magia bidez-eta etorkizuna izan dezan.

Zer ez lukete egingo *Maite Teologiatik* aldendu ziren umeok euren etxe-ko oinarriak galdu, amaren txera aztu eta otsoen arteko burruka galdue-tan? Bai, amaren laztana gozatu ez duena edozertara emana dagoke eta dago. Politikoeak eta Aita Santuak ere elkartu dira elkarren aholkuen bila. Nola sendatu gizagaisoa? Nola gizakia magiadun barik, fededun egin?

28 *Igdrasil* iruditerian magiazko palingénesis bezalakoa saioa egin zuten, lizarraren azi magiazko loreez-edo baliatuz, irudizko *lizardi* antzezten dutelarik, bizi zugaizta zeru-raiño igon dadin. Ikusi ezpaere, *lizardi* itzuleztara irakurriz, *idrazil* ez datorren. “Normas” saioan ere, *nor naz* apostua dago. Iru irule dira: *Urd, Verdante, Skuld*, eurak bai dira bizi ohiala *eskoldan* ezarri eta linu arilkatuaz *berdante* deitu oihala *urduetzen* zekitenak.

2. 19. Adapa/Abate>Sabat eta arketipoen logika

Hitzaren magiaz aparte, arketipoek ba dute logikarik edukinetan. Logika horrez baliatu nai luke, hain zuzen, hitzaren magiak. Tenploetako abateak izan ziran magia hori saiatu zutenak. *Adapa*, Anu-ren serbitzariari, jaso zitzaiona jakinaz, hitza biratu zuten euren izenaren alde. Ata-Ba>BaTa>-Ptah asmatu zutenek, gero *abate>Sabat* sagara al zezaten.

Arketipoak dira hitzaren logika kudeatzen dutenak. Esakerak “Inok in eta gizakiak egin” dinonean, Ino (Inotez ospatzen dena) Inkoak ez duela gizakiak ekintzan behar duen Ka giharririk. Arilketa onen egitasmoa ezagutuz gero, esegesiak Kimikaren zehaztasunez erabaki dezake arketipo edukinen argitasunean. Gizakiak, adibidez, Baitaren jabe denak, bere arketipoa Bestearen arketipo²⁸ aurretik jartzen badu, lehentasuna kentzen dio aurreko denari. Birau horrek berezko numeralak: oNa, Dui >< Bat, Bi, aldatzen ditu. Ikus bertone:

ZENBAKIAK ARKETIPO ERATARA						
AN	uTu	eRRA	iLU	BA	KA	aS
un	dui	iru	lau	boga	seka	zapa
ZENBAKIAK ARKETIPOEN BIRAURA						
Bat	bi	iru	lau	boga	sega	zapa

Arketipoak maiuskulaz: Teilape txikian, giza arketipoak. Jainko+gizaki=orokor. Izena arketipoz aldatzea kategoriak birautzea da: aN=ama Inko arketipoa, BaT=giza arketipoa+aiTa jainkoakoa: Ama arketipoa desagertzean, Ama inko Eskola eredutik Aita giza jainko Eskola eredura aldatzen da. Teologia iraultza hau Menfis Egipton, XIX Dinastian egin zan, Ptah “denen aita” ta *tenen*^(k) aitortzean, Tebas nausitu zaino.

Aurreko kuadroan ikus daitezko arketipoen jokoa hitzaren magiaren izenean eginak izan ziran, euskera lekuko: Asmoa hitzaren *gara Sa-gara*-tu nai denean, aS azken arketipoaren geigarria erantzten zaio aurrizki. aS eSpiritu honi bai-dagokio gainerako arketipo guztien Batzarra erritoz duintzea, Sagaratzea. Hagaitik K. a. 2000 urte inguruan jainko izenak au-

28 Jung sikiatrak “norbere arketipoak” eta “Bestearen arketipoak” bereizten ditu, Beste hori maiuskulas aipatzen duela. Nolabait “Sortzailearen eta sorkarien arketipo maila bereiztearren.



Sabat>Sapatu eta Larunbata formak eldu dira euskaldungora, Erromako Elizaren ufadaz. Erromak ere onesten zuan Emperioaren batasunerako asaben>Sabat antzeko jaiarak eta bat etxeko sukua prestatzeko erabilten zen *Laratz Larium* deklinatu zuan, “Larium bata” sortu, “asaben batza” bailitzan. Euskerak, forma biak baiño zaharragoa den lekukoak, Sabat eta Larunbata gomutan ditu eta “etxeko laratzak ezeutan bakotxa” atsoititzean nortzat dauka.

rrikkiz, Sa-²⁹ etiketa hartu zuten. Horrela, *aba>aSaba* dator eta *abate>Sabat*, etab. Euskeraren *asaba>xabe>jabe*³⁰ ausaz *Yw* forma akkadiarra bera da, Teologia mota batzuk segizio lan andia egin bai-zuten.

2.20. Baztergoaren beste erratuak

Ama eskolatu, edo amaren eskutik ez doan umea erraz erortzen da bidean. Amaren gida lotuago doa landu duen baratzari, ezpaere ameskerian galtzen. *Cojelet* izlariaren predikak bidenabar existenzialista batenak dira, hotz, norberak asmatu jainkoak merezi duen fededunarena. Ugarora egin ziren ugaritarirek emakumearen jakinduria galdu-bide zuten, bidenabar kresalaren garratza bai-dario, oinarritzko baztergoz. Holakoak dinok maitasunaz: “Jaungoikoaren eskuetan gagozarenren, gizakiak ez daki Inkoak maite ala gorroto duen” (Coj. Iz. 9,1). Jarraian dator erratura: “Gizakiak aurrean daukan guztia uskeria da”. (ibi. 2) Inko maitasunaz ez baitan dogoenak naska du emakumea: “Eginalak egin ditut jakituria eta zentzun zuzena bilatzen, erokeriarik txarrena zein den ezagutzen,

29 “En las inscripciones akkadias se encuentran ya desde el XX a. C, nombres propios compuestos de Yau o Yaum [...] Los antiguos fenicios debieron de conocer un nombre de *yw*. (Diccionario de la Biblia, YAHVÉH (IV) ANTIGÜEDAD) “

30 Izan ere, Iruña Veleiako bustingi errean “Yawe Atta” dager, koptoak ezeze, erromatar kasturu haretako babesera juduek ere egin zirelako seinale.

erokerietan zentzuegabetakoa: emakumea eriotza baiño garratzagoa dela ikusi neban: haren burutapenak sarea eta lakioa dira eta haren besoak, kateak”. [Emakumea sortu zuen jainkoa Maite ala Bazter teologiakoa zan?]

“Inkoaren gogoko denak emakumeari iges egingo deuto, pekataria barriz, haren eskuetan jausiko da. Begira ikusi dodana, –dino Cojelet-ek– banan banan aztertzen asi nintzanean, bila eta bila ekin neuntsan, baina ez neban idoro. Hauxe bakarrik lortu neban: milaren artean gizon bat bakarrik idoro badot, emakume guztien artean ez dot bat ere idoro” (Ibi, 8, 25-27) Hau irakurri eta, sorkuntza bikainetan giza amatasunak duen marka, ez ikustea itxukeria edo narsikeriaren ikusi eziña ematen du.

Baztergo Teologiak asieratik egina du bere aukera eta bidenabar bere burutapen azia ereinten darrai, kalean naiz Tenploan. Eziña da Izlariarenok Aita Santuren *Maitasunaren poza* erakutziarekin adostea.

Arritzekoa ere bada, *BiPilako* liburu santuetan nolatan sartu zen abata edo klerikalismo zabarrenak edan zuen pozoia edo *Baztergo Teologiari* oinarria jarri zizkiotenen jarraipena. Horrela argitzen da Pablo VI Santuaren oharra: “Beraz, elizan ere sartu da bai deabruaren kea”.

2.21. Genero eta queer burubideak

Ez nuen gai hoietan sartu asmorik, baina *Baztergo Teologia*-ren izenean eta *BiPilako* testoen arabera, ez dut izan beste aukerarik eta Bergoglio Aita Santuaren jokerak animatu nau, berak ontzat eman bai -du *queer* bizilagun bikoteak ume bat etxekotzea, hori nor egintzetatik ezagutzea bai-da.

Sortzez eta sortez bat edo beste garel, ez dagoke beti argi. Cojelet izlaria irakurri eta gero, gutxiago. Gizakia amaren begiradatik ate bereak eta bi egiteko tirria duenik ere, ezin dezakegu uka, ama ohar zale eta norbera aske tirriadun delarik. Gizartea ere jaregin da bere bideetan. Maisuaren jakindurian, “euren frutuetatik ezagutuko dituzue” oharra naiko da.

Besterik da genero arazoa, zuzenbide izenean, Ama Eskolako Ma.aT manamenduz edo uTu/ Shamash Iduzkiak aldeko jo eta gorde izan zutena. Abaten eskola antikulturnala izan zan asieratik eta hitzaren magiari atxikia, eurak jarri bai-zituzten *Baztergo Teologia*-ren oinarriak.

Giza soina Ba, baitak eta Ka gorputz-giharrak osatzen dute. Gure Ka gorputza, Ba arimaren duintasunaz jantzia da, bata bestearentzat egiñak



Sorkuntzari begituz gero, argi dugu “euren frutuetatik ezagutuko dituzue”. Gure gurasoek, maitasunez familia sortu, ugaldtu, eztabaidan jardun, baiña elkar maitasunari esker, oztopa guztietan garai urten zuten eta etxeko seme-alabok ere aurrera egin dugu bide beretik. Gogoan ditugu geure arketipoak hirugarren belaunaldira arte eta zorionekoa ematen dugu bizitza. Bizitzak erakusten digu bizitzen

bai-liran. Egile beraren sorkariak dira-ta, baina bien nasteko egiturak, ez angeru eta ez abere denak, bikoitzen enbatan halako tirria jasan ohi du. Izaki berezia gara aberetzaren arloan eta bakoitza, bera delarik ere, sortzez gure Egilearekiko apostua kudeatzeko gei gara.

Maitale batek kidea aukeratzean, ea dagokien zintzotasuna gordetzeko ba diren apostua egiten du. Inkoa gurekin ezkondu delarik, geurea da gogakizun apostu hau. Haren Espirituak gure Kabian atanda artu duela, bizi gareno eta gurekin eskuz eskuzko apostua ari duela. Ez dugu guk aukeratu bera, geure gurasoen zori berean, dohan beragandik artu dugu-ta.

Geure soinkera Egilearen dohai bezela onartzeak geurea eta besteena aintzat hartzen eta dedutan izaten laguntzen digu. Orobat geure sexutasuna dohainezko zoria bezala aintzako izan eta hezitza bultzatzen gaitu.

2.22. Baztergoaren asmakizunak?

Inkoa ez du inortxok ikusi, baina sortzaile hori ezagutu gureak, ez nora-ko eskailerak ere jaso dituzte gnostikoek. *Ezagun>gnoseu*⁽⁶⁾ elkarenak dira eta ezagun bidetan alper xamar direnei *agnostiko* deritse, asmamen bidetan keldo direlako-edo. Gnostizismo askeak, berriz, bide bereziak ditu, Sortaldeko eskolak naste eta grekar Filosofia, lagun dituztela. Bere neurriko jainkoa asmatzen dutenak, salbabidea berez lor dezaketela uste dute.

No eta To, Ma.aT lez, maiteminduz, elkartzen direnean, ezagutzen dute elkar eta, jainkoz dohetu bailiran, sortzaile egiten dira: gizakia sortzen dute, No+To biren elkarrekin eRa irugarrenaz, IRUTASUNA osatzen dutela.

Gure arketipoek dira ezagumeneko bideotan, gure argibiderik onenak. *Sortzea*>*sortea* da orduan, *ez sortu*>*sortir/surtir* utsa, espiritu barik geldizen den erromanikoan. Besteen leportik zorrak kitu edo *sorkatu* zirenek asmatu zuten *surgere*³⁰ ere. Gizakia sortzean, ostera, Espiritu bera dator, nor bakoitzari bizitza osorako zoria zoritzen dion bizi indarra.

Hitzen eskolaz esan zezaken norbaitek³¹ amakatu zuenak, baina jaio ez den emakumerik ez dago. Umetu eta jaio direnak, berriz, izateko eta garatzeko oinarria dute. “C’erchez la femme” obeki esan dute frantxesek, denean bilatu behar bait-*dira* sortu ginduztenen arketipoak.

Euskaldunon, euskera bera bezala, mediterranean Ama Eskolako herria gara eta Kristo gurutzatu zuten erromatar legioak berak gurutzeratu zituan gure asabak ere, eta halatan Gurutzatu eta Berbiztu zenaren erdikide egin ziran. Ez genekian eta, eskerrak lurpeko arriak edo arriluak hitz egin dutena, eskerrak Lehen kurutzatu eta Berbiztu Maisuagan bizi eredu aurkitu zutena³¹. Hauxe bai dala, halako odol bateoz, bizitzak edo halabeharrak ekarritako ezaupidea. Halatan ezagun bide asko kristauak dira, Kristonak jasan eta kristautu urten bai-dute. Horrela, jasarpina pairatzen dutenek eredu egina dute³². Zapaltzaile direnei ordea, ez diatorkie bideko bere memoria iñor osa dezaken lekukorik eta lekutik atera irrikaz, kalte egiten die euskaldungoari, gure senda³³ galdurik, ahiena gaitzen.

Ateo deitu, Inko-gabeak ere ba dagoz Ez zuten miragarri andirik ikusiko izadian, egunez lar arazotu-edo eta gaeuz, kaleko argi kutsadurak galaxien keiñuak ikuskizuna galazoten digutelako. Gizartean bertan ere ez zuten jainkozko seme-alabarik susmatuko, medioen morroi eginak direlako edo bestetariko kutsaduraren morroi.

31 Simone Beauvoir, Sartren ikaslearen ustez, “emakumea ez omen da jaioten, egiten baiño. Burunaiko izan nai duenak erraz kitutzen ditu amarekikoak.

32 “Umeak ixilazoten direnean, harriak hitz egiten dute: GEURE AMA ROMAN IL TA CISTIANA dino Iruña Veleiako ostraka batek eta K.o, III gizaaldikoa eta Diokleziano Enperadoaren azken Jasarpeneko martiria da aurki.

33 *Senda* ekur/ ermitara doan “goiko bidea da” (Okango-ra doana Berrizen) eta ibar aldetik doan beko bidea *vereda*>*verde* formatik bereizten da. Erromesa ariketa buruz, mesede eske doa santutegira. Hagaitik *senda*>*sendo* hizkunea egiten dute, frantzesek ere *sentier*>*santé*, dinoela. Halaber “Euskal sena eta Euskal senda” ere elkarkide doaz.



Ego Amerikari Ifar Amerikak atek izten dizkionean, gendea baztertu egiten da: ama umeagandik banandu. “Maite duenaz ez iñorgabetu” Ma.aT-en (13) agindua-
ren aurka. Ama bere umeagandik horrela banantzen duena errai bakoia da. Begirale gaztea lotsa da, begiek ikusten dutenaz. Holako bost milatik gora behartu zituan Trump-ek. Bidenek ama-umeak barriro batuko zituelakoa agindu

2.23. *Gnosia baztergo bidean*

Ama Eskolari sasieskola egiten diotenenk, jatorrizko espiritua barik, pusminaren aizea dute bultzagarri, sendatik ate doazela. Hagaitik lotzen dira “euskal sena eta euskal senda” esakuna ere, bata bestea eskatzen duela jakiteko. Goiko bide hori ez da errekaldekooa baiño askoz latzagoa izatez.

Kristau bidea utzi dutenek ere bere bidearen gizenerako darabile “*ezagun*>*gnosi* izena. Euren gardiz, Kristoganako fedea bakarrik ez omen da naiko salbatzeko. *Gnosi*<*ezagun* bidea omen da beharrezko, jainko ezaupide barnekoi hori, magia, fedea baiño gehiago, delakotan, alegia. Argituen elitea osatzen duten gizonezkook “izkutuko Eliza egiten dute”, gainerakoak garapenera eltzeko gei ezpailiran. Eurak omen dira Baita=Psikea burutzeko lain, barneko giza baliade guztien teknika jabetzan eskolatuak, hain zuzen. *Baztergo Teologiaren* asmatzaileek ez zebiltzen eurokandik urrun, baina bestean aurreak argiago salatzen du haien ostea.

Baserrian aidanez, jakinbide bi ei dagoz: bata emakumearena eta bestea gizakumearena. Emakumea baztertetik asten da gizonezkoaren erratua, Gilgames gogoratzea dugu. Emakumea bazertzen duena, haren jatorriko garen guztiok baztertzeko lain da gero. Super-*gnosi*<*esagun* bide hori Supergizonaren ametsekoa da. Emakumea baztertzen duenak ezin dezake jasan iruditan ere, Ama Inkorik. Babiloniako abateek, iraiñez bete eta famaz itxurgatu eta aberetuz, erritualki armaz erail zutena. (ikus or. 53)

Haraz gero kontuizu, erligino guztietan emakumeak galdu egin du jatorrizko kulturak opa izan dion lehentasuna. Ama Eskolari esker, euskaldu-

nok, baserriak bederen, ez dugu aztu “amak esan du” agindua. Bera da, gainera, etxeko bizien eta hilen arduraduna, etxeko zenduen Jarlekuan argizaria biztuten zuen/duen *andera*>*santera* egina eta ezagutu duguna.

Klerikalismoak, Kristoren kurutzeta baiño, gurago du Jainko Indartsu eta Mendekatzailaren eredia jarraitu. Ortarako *Bipilako* liburuan idatziak irakurri “Jaunak esana/ Palabra de Dios” egiñaz, ez dauka erremediarik. Herriak ez dezake berezi zein den bide zuzena salmodiaren durundian, bada, txitean pitean jainko ALENaren nausikeria dager beste jainkoen aurka eta horixe da nausikeria guztien eredia, ez Kristoren Aba/-Ama Inkoaren zuzentasuna. Klerikalismoa antxinako abateen bidetik dator izenetik gizenera: *abate*>*abade*>*apaiz*³⁴ eta euren arrokeria Vatikanoraino goraldia izan da, XXI herri nekatuak euretako askoren bizi magia baldarra eta arpegi bikoitza salatu dueiño. Beharrezkoa zan famaz lurra jotea, ez zekitelako maiz Maisuaren kurutzeta eroaten, itxura egiten baiño.

Eta zer dela-eta galdu dute klerigoek euren fama? Amakatu egin dutelako euren sorkuntzan. Ama erraiak gutxietsi eta bihotsaren dunduna eta abotzeko ufadak SORKuntza bideak obetu zezakelakotan, sorkitu egin zuten eta euren hariko jainkoa asmatu eta “herri bereziaren” jainko ALENA aldarrikatu, beste kultura guztien kontrakulturakoa eta bizi-eskubide guztien barreiatzailea. Ez da, beraz, dena “Jaunak esana”. Lege idazleak ere errudun dira, “zoritzarreko idazlariok” (Mt 23: 2-5) Orain bada, halako antikulturaren hezi eta eskolaturiko herriak ajea dauka³⁵.

Dohaiok Inkoarenak izanik, ikus birao antzeko denetz “zoritzarrekoa alabak dituen” jakinduria. Nork esan diezaioke amari “zer ekarri duzu, edo aitari, zergaitik ekarri nozu?” Uste nuen solik Brama-en jarraileen uste ustela zela. Gizartetik *berezia*>*fares* dator, *fariseoa* da, magjaren morroia: amakatu egiten dute, amatu beharrean. Eta ez da emakumearen erruz. Eskerrak fariseoetatik bat benipein, Saulo, erabat konbertitu zena.

34 Gure *abade*>*apaiz* gehien sena Ama Eskolako izaten jarraitu du, euskeraren jakinduria baztertu gabe, landu duena. Eskerrak eurei...

35 “Juduarraren goizeko otoitza: “Eskerrak, Jauna, [...] gizonezko egin nauzulako eta ez emakume”. Hebraierak ez du, “santu, jainkozale, santu” izenok emakumeei egokitzeko modurik Gramatikan, Magjaren lera honetan dabilzanak alde egiten dute emakumearen soinak egiten duen gerizatik ere, auskalo kalte kosmikorik edo *jatorrizko pekatuaz* loitu ez ditzan.



Egileak toki ona aukeratu zuan guretzak, apapa egon edo aña-aña urten al genezan, oiñak lurrean ipini orduko. Ama izan zan toki hori eta tokiko egin gintuena, tokitan galduta utzi barik. Haggaitik ama etxea eta ogea ere bada, ama gurdia ere, mese-de ekiñaren buruz. Ama asmatu duen Inkoa da *Maite Teologia* asmatu duena ere.

2.24. Logos, lekukoa lekuan.

Lekuko denak lekua egin digu, sortu, umatu, edatu, eskolatu eta gure azietan lekuko ateratzen da. Lekuko hori da Berbadun eta senaz daki nondikoa den bere nortasuna eta hitzaren buruz adierazten du, heunaren zehatasunaz ebaki hitzaz, Inko izenen arketipoz arketipo josia denean, umea jansteko amak maitasunez ariltzen duen txamarra bezala eta umea eskolatzeko maitasunez arildu duen hitzaz legez. Ama eskua eta Eskola da denetan. Etxekoek ezagutzen dute ama eta aitagandik asita, zabal aitortzen dute “Gure Ama”, “Gure Aita” otoizten duten lez.

Aitor hori egiten duen hitza, barriz gurean euskera da, bera gure berba, lekuan lekukoa, zenbat eta lekukoagoa, orduan eta argiagoa eta amak iragarten die seme-alabei, Nazaretoko Mariak Jesus eta beste seme-alabei bezala, Espiritu goitarraren askatasunean. Tokian *toki*-koa lez, ez “edatze uneko” *tokos*^(s) soilkia.

Jainkoekin hitz egiteko iñongo arartekorik behar ete dugu, ala seme-alabek amarekin bezala, naiznoiz hitz egin al dezakegu? Hatarako Amaren Eskolan esaneko izatea baiño ez zaigu eskatzen. Amaren oharretatik ate bizi gura duenak ikusiko du eteniko lokarriak zelan konpondu.

Maite Teologian ez dago utsunerik, indar guztiak doaz alegin berera, bat bera ere galtzen ez dela. Baztergo Teologiak, amakatzean ostera, haren umeak ere baztergai uzten ditu. “utzi umei nigana etortzen, eurenalakoena bai-da zeruetako erreinua” (Mark. 10 14) esan zuenaren sentike- ren aurka. Horrela, argiago dago: Maite Teologia: *amatu*>*amatzea* dena, eta Baztergo Teologia, barriz, *amakatu*>*magia* datorrena .

2.25. Gramatika orrasten

Hizkuntza aztertu edo ikasteko erabilten ditugun eredu batzuei Gramatika deritsegu. Adibidez, iru persona dira, elkarrekiko hizketa dihardutenek: *ni, yi, era/may, tu, era*. Ezagunago zaizkigun: *No, To, eRa* arketipoak direna dakigu. Ama Eskolak bere ereduak aukeratu zituan asieratik: “Sumerreko gazteak bere Inkoaren berba trikimailu barik ospa dezala, Sumer leialean bizi direnek, kirrutik haria bezala, harilka dezatela”³⁶.

Hereduak aldatuz, eRa baztertu eta, iLu sartu zuten Ugariteko punikarrek, klasikoak jarraile zituztela. Asieran bikoitz *eme+ar* zen seksuari irugarren bat *neutroa* geitu zioten: *la, el, lo* formetan eta erromanikoez ere, Biologiatik ate, kuntze irukoitzez doitzen dituzte bizidunak eta ilak, seksuz azpimarratuz esaldi osoan. Baiña irukoitz bakarria No, To, eRa darrai.

Gramatikak atal asko ditu. Asieran *Analogia* zan lehena, iNko izen eradura gidatzen gintuena eta etimologiak argitzen zizkiguna. Hagaitik baztertu zuten maisu berriek, bakoitzak gogara erabagi zezan harilketaren perkala, kirrua ala sintetikoa. Analogia ordeztuz, *Fonologia* jarri zuten izlari, fonografo inbento berriari ohore egitearren-edo.

Ortografia ere eztabaidarako aitzaki prestua da. Adibidez, batek egin dezake poesia edo ikerketa lan bikaina, baina inork behartu Ortografiako erregeletan utsik egin baleza, baitu gelditzen da, balore guztia galtzen dituela³⁷.

Estrukturalistek ere burua atera zuten eta, gizatasuna alboratuz, amaren seme-alaba arri koskor edo arrilu parean jarri zuten, gizaki berria jantzi berritan kaleratzeko eta batasunaren izenean zatiketa egiten berriz azkarrak urten zuten.



Estrukturalistek:
Txo, hori ez dok gutar

36 (El hombre y su dios, 75, D.B. nº 26)

37 “Kirru eta Aldapeko sagarra” idatzi zenean, adibidez, eskumazkerak zarraparra izan zuten zein baiño zein Pedagogia Erakunderen jabe nausitu zaleago eta baloreen ferian prezio aldaketak izan ziran. Literatura ala Ortografia? Ortografia arrunta, ala Ortografiatzeko erregela berriak? Bizkaiera, ala euskera batua? Eta EIMAK katalogoan ontzat ematen zuena ADARRA Pedagogi Erakunde Berriak, gutxiesten zuan, politikaren pusminak euskera eta ez euskaldun gutxi mintzen zituela.



Hona, betiko No, To, eRa: auRra, aMa, aiTa ikusteko. Amaren eraiak batu eta Ama Eskolak Gramatkaraiño gidatuak dira. Biologiak markatzen ditu aldiak eta guraso ardurak urretik antolatzen Eskola. Horra *Maite Teologiaren* ardatza edo hako “Maitasunaren poza” ospakizun argitua.

Nitzche-eta susmo berriko filosofoek indoeuropoeismoari bide zabala ideki nai izan zioten, baina besteok ez ziran Inkoa hila izan zela iragarteko edo Gramatikaren egitura salatzen: “Gramatika honekin ez da posible Inko idea ezabatzea”. Izan ere, lurra euri-eguzkien egualdia eskatzen duen lez, auRrak aMa+aiTa gurasoen txera eskatzen du, eta analogiaz, gizaki elduak, arketipo mailan, “Bestearen arketipoak” eskatzen ditu, Jung-en gardiz.

Oraindino ez dira amaitu Ama Eskolako hizkuntzari etorriko zaizkion erasoak, bada lekukoa desagertzea konbeni zaio etsaiari, azken kukurrukua jo dezaketelakoan. Indoeuropeistentzat euskera ez da existitzen edo hiltzak emana dute. Arkeologiaren bide berriak bonbardeatu egin dituzte, erakusten diguten “berriona” judizializatuz baztertzeko. Bada, armetan hako Enlil indartsuen jarraile direnok, orain Mamona kapitalaren jabe ere badira eta Euskeraren abotsak ixilazteko, sasi lanak saritu zale urten dute. Batzuk kale argira urtenak, ezagutzen ditugu jada, beste batzuk urtenear³⁸. Guk oster, “asmoz eta jakitez” bakarrik egin dezakegu lubaneko lana.

Sumerren hizkuntza Jainkoaren izena adierazle egitea, harikoa ariltzea bezela zan, naiz estrukturalistek gizakiez, adriluka jokatzaren duten. Jo, Gramatikazko nortasunek ere bata bestearen baztertzaila izan daitezke, hotz, familia irukoitz alkartua amests ezintzat ematea bailitzan.

38 *Euskal Sena* deritson ariketak ere zirrikitu asko jo ditu ez nora bide-tan galduerik deika. Gramatikaren gida osasunez mantentzen duenarren, aditza eta adizkeren arloa dendetzen du. Etorkizun-futuroak, adibidez, gure izakera eta jardura geure aldakortasuna bailiñoan, “on ne naît pas femme, on le devient” jokeraz, aldun-potentzialak ere ekinala berean jarri ariketan. Eta putsa, berriz halako merkatuan, euskera soil eta garbiaren defentzan, berdin ogetamar... diruak apostu direnean.

2.26. Anaiak arrebaren aurka

Bipilako liburuan *Abesti ederrena* deritson maite kanta bat dago. Neska beltzeranak bere zoria kontatzen asi orduko, bere nebeekiko duen auzia salatzen du: “Eguzkiak baltzitu nau. Nigaz aserreturik, neure amaren semeak euren maastiak zaintzen jarri ninduten eta neure maastia, zaintzen ez nuen jakin”. (Ab. 1,6) Antza amaren etxe bereko alabek ez zuten ama beraren semeen eskubide berdina. Edo etxeko nebak arrebarekiko jardunean, kontrakulturako eskubidea zeukaten. Ama Eskolak ez zuan holakorik jasangoko. Halako etxe baten amaren gobernurik ez zegoelako seinale.

Meritoa dauka, halan ere, beltzeranaren Maite Kantikak *Bipilako* liburuetan burua atera al izatean, eta Sulamita bihurturik, bere maitale senar-geiaren bila urten eta harekiko pasadisoak kontatzean, “maitasuna suzko inisutua da, jainkozko garraldia” delakoa deskribatzen digulako (Ib. 8, 6), harako beste Idazlariak esanikoen aurka. Pila batek dinona (Ikus, or. 57-58) besteak ezeztarren, eurretan bat gelditzen da beinipein zindoa, dena “Jaunak esana” ez dirudienarren. Argiago legoken, “maitasuna” Jainkoa bera dena azaltzea, “maitasun eza edo uka” giza asmakerizat gel dadin.

2.27. Intsumisoa igarle

Espiritua, bere igarleen bitartez, Israelgo ardi deslaituak piskanaka bere larrera erakarten alegintzen da. Iñoiz herria bera adoretuz, maisu deslaitu berari ere planto egiten diola: “Ez dugu entzun nai Jaunaren izenean esan gura diguzun hitz hori, geure agoak esan duena egingo dugu, ostera, intzertua erre eta ixurketak eskeiniiko dizkiogu Judako herrietan eta Jerusalemgo kaleetan Zeruko Erregiñeari”. (Jer. 45.15-16) Edo herri geiengoa bere aginduetatik deslaitzen denean, herri ondakintxo apal bat bederen bere bideetan gordeko du, askapen egunerako arteko itxaropeana minki gorde dezan herriko plazan. (Sof 3, 9-13)

Intsumisoena danetan, Espiritua bera dager Isaias igarlearen agotik erregeari erantzuten dionean: “Entzun bada, Dabiden etxe horrek [...] Jaunak berak emango dizue ezaugarri bat: Neska batek sabelean semea sortu eta argitara ekarriko du eta haren izena *Emmanuel* “Inkoa geugaz” izango da”. (Is., 7:14). Argiago ezin zezakiean esan baztertzaillei. “zuek bazterturiko ama errai barik, ezingo duzue ikusi Inkoaren arpegirik”. Mateo Ebangelariak igarleak esana ustiatzen du, Jesusen jaiotza azaltzeko. (Mat. 1,23)



Israelen ez zen bidezko Ishtar edo beste izeneko maite jainkosarik aipatzea, baiña ba du Kanonean onartu *Kantikak* deitu maite kanta bat. Maitasuna beti delako kantagai, eta amaren seme-alaba jaiok bere maite zoriaren eredia behar duelako. Herri guztiek dituzte maite kantuen zerrendak, doiñurik ederrenak lagun egiten dietela. Hortik eman dezakegu, zein eskolako den herri bakoitza. *Bipilako* Maite Kantika mistiko andien maite gorakaden eredu ere gertatzen da.

2.28. Xekina, Jainkosa baztertua

Fuenmayor-ko kalean gora, azken atariari *Esquina* deritso³⁹, tokizenak herriaren jatorria diñola. Ezagutzen dugu Etxarra goitar jainkoen bilerako arrizko etxe famatuarena ere. (ikus or. 51) Israelgo jakintzuek ez zuten halako arrandirik, euren Sinagogetako batzarretan, ez euren Inkoari non jarleku altzurik eskeiñi. Baina hantxe Sinagogako erainkintzaren orma biek *izkina* egiten duten zokoan egon zeiteken *Xekina* “*Jakinduria* den Inko Ama” edo zegoelakoa egon zezaketen, fedez baztertzaille barik, maitale zirenek, Amak ezin zezakelako utsik egin, baztertzailleek ezikusia eginarren ere.

Shekina baztertuak, izkintzoz-edo lagun zezakion maisu *jakiñari* bere *izkinatik*. Toki bazterrenean ere, Ama Inkoak urbiletik jarraitzen bai-zion fededun herriari, santutegian. Halako egonarrria, ama jakinduria ezeze, ama ardura eskatzen du, baztertxotik bada ere, amak ez bai-dio uzten bere Ama Eskola emateari. Aintzazko beste tituloen Katedra argitzutik ezinean, *izkina* bazterretik ere laguntzen ere ba dakielako.

Orain *Shekina* neska izentzat gelditzen da Israelen, eta gure ariketa Amaren alaba diren neska hoiengidaz, hagana eltzea lez da, Espirituak *baztertu* direnen eskutik nai duelako itzuli herriaren bihotzera, Andre Mariak *Magnificat* abestian dinon bezala. (Lk 1, 46-56)

39 Aldi bateko euskaldunen “*Etxa güena* / > *Eskina* / *Quines*, *Marra güena* > *Markina* / *Kimmer*, *Ibar güena* > *Barkin* / *Kimber*, etab. dator tokizenen, *Etxa güena* > *Eskina* / *Kintxe*, *Shekin*^(ar) / *Gines* beste tokizenetan bezala.

III- BERRIZKUNTZA TEOLOGIA

3.0. Arkeologia eta Ekologia deika

Igarkizun ostean igarlea goiari otoika: „in, zeruok, iruntza, ixuri, laiño-ek, Zintzoa, idegi bedi lurra eta erne Salbatzailea”. (Is 45, 8) Fededunek ere holaxe abestu izan dute urteetan eta noizbait lurra idegi eta bidera urten zigun gorderik zeuzkan segetuekin. Arkeologiarena egunotako Espirituaren dohaina izan da, eta ez denen gogoko, hala ere, egia salatari ausart izan ohi delako eta gu, berriz, astukor. Ez da izan ausaz Baradisura ostera baizen atsegiña, baiña aserako Baradisuaeren berri ere eman digu, eta amagandik harako Salbatzailearen itxaropena den atsegiña erakutsi.

Arkeologia naiko espada, Ekologia izango da urrengo bozeramailea. Uriko argi kutsadurak izarren argia ebasten digularik, jainko idea urrunduz doala eta medioetan ez nabaria egiten. Bizi tokia den Lurrak orduan Biologiaren izenean, Shu eguratsak (ikus or. 17) gure arnas-bidearekin duen ezina, Covi halakoz salatzen digunean, edo plastikoa ez dela umeen janzki eroso, ez arrainen janari adieraztean. Enki, uren banatzailea alper-tu den susmoa dagoke, urak argiari ipinitako prezioan asaldua jo bai-du.

Gure *Kuru>Guru>kuria* zaharkituek ez dute jadanik *kurri gura Ekur*-eko Inkoei *kur* egin eta auzoaren izenean *agur* egitera, naiz gure ganaduak udaran *Ekur*irako jokera galdu ez duen. Fede barik, gizakiak ez daki eta arketipoen sena galdurik dabilenak, Ama Eskolarik ez, lurra batean eta abereak bestean, ohar egiten digute. Ez dugu jada ganadua bezatzeko unairik eta ostaz ardiak larratzeko artzainik. Kapitalak makinara industrializatzen gaitu, baserriak erakutsi ziguna ere astu daroagula.

Ba dago, egon, oraindiño Baradisua izan zeneko gomuta duen herri ondakin bat, baina, fedez urri eta maitasunez urriago delarik, gendea, Baradisua hitza aipatzen ere ez da ausartzen, gendeari sor zaion “begiramenagaitik”. Profeta bat dugu hala ere, eta “Maitasunaren poza” aldarrikatu duenean, *Maite Teologiaren* aldeko alabak itxaropenez bete dira eta Ama Eskolak ordu obeak eskatzen ditu. Halatan, ostera ere, igarle zaharren bertsotan asi behar dugu: “Hik Iño, in iguk uin, hik Odei, uts iguk eudi, hik Orzi, iguk euri: in iguzue zeruok Salbatzailea”.



(Apocalipsis 12:1) “Emakumea eguzkiz jantzita ikusi neban zeruan [...] eta zeindun zegoela, seina egiteko miñez eta egin zorian garraxika”.

“Beste ezagarri bat ere agertu zan zeruan eta su koloreko Erensuge andi bat ikusi nuen [...] eta seiña egiteko zorian zegoen emakumearen aurrean gelditu zan, seiña jaiola irunsteko irrikaz (ibi, 2-6) Emakumeak seme bat izan zuan [...] eta Inkoaren aulkira eroan zuten.

3.1. Emakumea ararteko

Guruetan berezia zen Joan apostoluak, bere zahartzaroan, Patmosko ugartean izan zuan ikuskizuna kontatzen digu: “Nik Joaneke [...] Emakume bat ikusi nuen zeruan [...] aurra egin zorian [...] eta su kolorezko Erensugea emakumearen aurrean gelditu zan, umea jaiola irensteko irrikaz”. (Apok. 12,1-6) Joaneke, halako txistadez, bere garaiko elizei idatzia ulergarri egiten zaigu, “eMakume bat iDuzkiz jantzia, auR egin zorian” diñonean, harako irukoitza (ikus or. 16) ikusten dugu eta eRen-subiaren asmo zaharra errepikatzen. Antxinateko jaiotza, aldi berrietako jaiotzarekin zurbia egin gura duela ematen du, giza sorkuntzak ere ez duelako, aMa+aiTa elkartearen maitasuna baiño bide egokiagorik, lurrean bezala zeruan ere.

Erensugeak zeruarekiko guda galdu zuenean, emakumearen aurka amorratu zan. Arangela urteki zion urak gal zezan, baina lurra Emakumearen alde urten zuan (Ibi. 13-18). “Aserrea sortuko dut hire eta emakumearen artean” (Has 3:15-17) harakoa gogarazten digu. Lurra, gizakiaren bizitoki, bere lanaz *baratzetu>Baradeisu* bai-da. Hagaitik lurra emakumearen alde dager. Gaiztoak, “emakumearen eta haren ondorengoen eta Jesusengan sinisten dutenen aurka daroa burruka”. Jesus Emakumearen alde dagoelako seinale eta Erensugea, Emakume baztertzaile dela ostera.

Herria salbamen beharrean dagoelarik, baztertua izan den emakume baten peituz dago, Mesiasen ama izan dadin. Ala Inko alaba batek al deza-kena, Odeiarri eskatu behar al diogu? Era berean, Erensugeak dirausku baztertzailea nor den eta mitoak, irudiak eta pertsonaiak nortzu diren.

3.2. Maria, iñularretan argia

Erromatarren Bake ustelaren garaia zan, Joan apostoluak, aipatu liburuan Babilonia aipatu, *Errroma* garaikidea salatzen dueneko. Erromatar gudariak ere Judea *egale*>*Galilean* ez zioten tratatu onik opa izan emakumei, ez eta Jose zenargeiak aukeratuta zeukan Maria¹ bere andregaiari ere. Eta hanartean Jose, Moisen Legearen agindu eta Mariaganako maitasunaren kinka larrian ziharduan mutila. “Ez hadin larritu, Maria-esan zion zeruak neskari-, higandik jaioko dena bera izango bai-dun herri Askatzailea eta Jesus izena ezarriko dion” [...] eta Joseri beingoan goi-mezulari berak: “Hire andregaiari jasorikoa neuregandik duk, txo, eta ezelako ardura barik, hartu behar duk etxean”. (Lk. 1:30-33)

Esamesatxoak ere izan ziran Nazaret inguruan: “Zeruak bere neska-mearen apalgora ikusi duelako”, aitortu zion laster Mariak Isabel lehengusinari (Lk. 1, 46-55) Eta bein *berezi*>*farisear* baztertzaile alenak arpegira Jesusi: “Gu ez gaituk ezkon-auziko semeak, gu Abranen semeak gaituk”. (Jn, 9. 34) Eta Jesusek ordetan jardesten: [“Zuen adinako] Abranen seme-rik arri koskorretatik ere atera diezakek Inkoak.”(Mt. 3,9)

Andiagoak esan zituan Mariak “pozaren pozez” Isabel lehengusinarenean etxean, zoriaren hain aldaketak benetakoak zirela ikustean, Inko goralpenetan asazkatzen zelarik, *Magnificat* aboskatu zuenean (Lk 1:46-56): “zorioneko deituko naute gizaldi guztiek, andiak egin bai-dizkit Algustidunak”, “andikiek aulkietatik bota eta apalak gora jaso ditu”, “ondasunez bete ditu gose zirenak eta esku utsik bidaldu aberatsak”...

Iraultza hau bide luzeko zeregina izango da eta gizaldietan zehar erabagitzeko auzia, baina lehenengo deia emakume batek, Mariak, egiña da eta lehenengo trangoa Mariaren seme Jesusek kurutzeraiño eroana.

Hagaitiak, une garratz guztien azpitik eta txaropen guztien garatik, halako pozez ospatu izan du herriak Mariaren Semea jai zeneko Gabona. Eta herriak *Mariajesiak* abesten jarraitzen du/dugu: “Bart Belenen eta bai Belenen jai da Jesus Nazaren”... Edo eta atsegiñez asazkatu: “Zeu gurekin polito/ Jesukristo”.

1 Autore batek baiño gehiagok atera dute kalera pasadizo gazigozo hau, baiña amatzen den biren arteko maitasuna baiño bakarka amakatzen dutenen, farisear garbizaleen amesak ez mintzearren, ilunpean uzten da. Ilunpean bai eta ere, “gure akatzetatik ere Inkoak onura ateratzen dakielako artezia.”



“Hortixek gora niñoela, hospitaletxo zahar baten, Aita San Jose topatatu neban bere astoa txalmatzen”. “Ta bart Belen eta bai Belen, jai da Jeus Nazaren”. Pozez beretik dago/Trinidad Santua, zoriz gerta delako/lurrean Irukoa. Jesukristo!, zeu gurekin polito/ Jesukristo!”.

3.3. Amaren sabela osterera ere

Nikodemo, herriko maisuetarikoak, juduen bildurrez, gauez egiten zituan Jesusekiko solasaldiak. Jesusen zintotson: “Bene-benetan dinotsut, goitik jaioten ez dena ezin daiteke sartu Zeruetako Erreinuan”. Zelan jaiotzen baiña -dirautso Nikodemok- aguratu gero? Sartu ete daiteke bat amaren sabelean barriro jaiotzen al izatelo?” “Bene-benetan dirautsut -erantzun zion Jesusek- urez eta Espirituz jaioten ez dena ezin daiteke sartu Zeruetako Erreinuan (Jon 3:4).

Amaren sabela, ura/aragia eta Espiritua, biak batean? Inkoaren asmoak ostaz ulertzen dira otopo-otopon, eskola sakonagorik ezean. Beraz, ama ez da aragi utsa, bada Espirituak hantxe, amaren aragian artzen du tokia. Gizakiak, izan ere, lezino bat baiño geiago behar ditu bere nortasuna “nor naiz ni?”, ezagutu al izateko, “norbere ezagumena, gaitzena” delarik.

Ama baztertzen duenak, beraz, Espirituarekikoak ere kitu egiten ditu. Burruka du ondorio, aragia ukatzen dizkiolako bizitzari. Gogora Adapa-ri gertatua: Adapa, Anu-ren serbitzariak, ontzian belariz egiten zitubuean lurretik zerurakoak eta majo. Behin, burunaiko ustez, Adapak aireari egoak moztu zizkion. “Txarto egina” Anuk agirika beingoan. Arazgero Adapak ez zuan izan jainko mailara eltzeko almenik. Adapari jazorikoaren jakinian, *Adapa*>*Abata* bihurtu zuten Menfisko *abate* hitzari albide orokorra eman-zaleek, eta emakumea baztertuz, Ma-aT orde, *Bata*>*Ptah* Sortzaile orokor aukeratu zutenek.

Mila urte pasata, emakumea baztergoan, eta igarle mindurikak salbu, magia utsa Temploan, Espiritu orde. Fededuna soilik Anu zeruari “noiz etorriko, noiz ezarriko emendioa” deika Espirituari. Espirituak astiro era-

bagitzen du berriz, eta orduan Nazareteko neska apaldu bateri (Mariari) dei egin eta esan zion: “Seme bat izango duzu, eta Jesus ipiniko diozu izena. [...] Jakoben etxeko errege izango da betiko, [...] Zeugandik jaiko dena Jainko seme deituko dute” [...] Mariak orduan: “Hona hemen Jaunaren mirabea, jazo bekit zeuk dinozun lez”. (Lk,1, 18-19)

Jesusek Kalbarioa jasan zuan eta egunotan ordezkari duen Aita Santuak ere ordu latzak ditu, Eleizaren “min bizi”, klerikalismoa² dela-ta.

3.4. Magoak eta Erodes Belenen

Mateo ebangelariak magoen kontakizuna Belen-en kokatzean, lehena eta oraina, mitoa eta igarletza, maitasuna eta gorrotoa, bakea eta guda, Israel eta Egipto batean biltzen ditu, begien aurrean ikusten dituen pertsonaiak esan beharrekoari bide egiten diotela: “Erodes erregearen eguntan, Jesus Belenen jaio zenean, azti batzuk etorri ziran Eguzki aldetik Jerusalem-era esanez: “Non dago juduen errege jaioberria? Eguzki Sortaldean haren izarra ikusi dugu-ta, gur egitera gatozkio”. Hori entzutean, Erodes larritu egin zan.” (Mat. 2, 1-3) Larritu eta erregegai ume hori garbitzea erabagi, hatarako urtebitik berako umeak ezpatatz hil behar baziran ere.

Eguzki Sortaldean jaio ziran mitoak ere, han jainkoen lehen zarraparrak Persiar^o guru, magoek, ez zuten aztu Babel-eko ondapena. Magoek, euren xedeari jarraituz, “umea bere ama Mariaren altzoan aurkitu zuten eta ahozpesturik, gurtu eta opariak eskeini zizkioten”. (Ibidem, 11) Joan abangelariak ikuskizunean gertatzeaz ekusana, Mateok ulean eta tokian jazioa kontatzen digu: Erensuzea Erodes da, emakumea Maria, jaioberria, Jesus. Umea salbatzeko goiko iragarpenez, Jose, Mariaren senarra, prestatzen da: Iges egin behar dute Erodesen saretik. Nora, baiña? Atzerrira, Egiptora hain zuzen, eta Arkelao, Erodesen jatorrikoa hil arte hantxe egon. Nortzu ziran, beraz, anti-Jesus gaiztook, juduak ala koptoak?

Horra ba, Israelgo Mesias salbatzaileak ez zeukan Israelen babesik, ama eta aita pobreen seme zelako eta Israeldik urren dagoen Faraoiaren ohiko he-

² “Klerikalismoa elizaren min-bizia da” Bergoglio aita Santuaren gardiz. Gaiso honek Eleiza den Bazkuna desorekaz galazten du. “Beraz, elizan ere, deabruaren kea sartu zaigu”, sumatu eta esan zuan San Paulo VI-k ere.



Xedea berarizkoa denean, fedea bidea egiten du, oztopo guztien gainetik. Zeruko Izarrek denentzako egiten dute ñirñir, baiña Espirituari adikor direnek bakarriak ulertzen dute haien keñua. Espiritua aske da eta nonnai dihardu ordua markatzen. Ezagutzen ditu bereak eta Maria eta Jose gurasoen serbitzu apalaz, aurrera daroa salbamen asmo bikaiña.

herrira iges egin behar. Bera, Mesias, ez dela buruzagi armatuen ondareko, burrukaz barik, maitasun Espirituaz herria askatu nai duena baiño.

Jose, astotxoan Maria eta Jesus umea dituela, Egiptoko uren babesela lortzen du. Han ez zegon egitiar gaizakeria susmorik, ez Moise Buruzagiaren eskuz Yawek egin miragarrien arrastorik. Arkelao, Erodesen seme erregea hil zenean, nazaretarrek Judea *egale* > *Galileara* jo al izan zuten.

3.5. Maria Kana-ko ezteguetan

Egoki zan, Juan ebangelariak (Jn 2: 1-11) azaltzen digun lez, Jesusen misinoa gazte biren eskontza ospakizunaz batera astea, ardao berriaren, gozamenen, Berri ona, ardao gozoa eta bera zela adierazten. Ezkongeiak Jesus beraren lehengusuak behar zuten izan, Jesus eta bere jarraileak bai ziran gomiatuak eta Maria, Jesusen ama ere, han bai-zan eurekin. Askotxo batu ziran, Kana-ko eztaietara, eta ardao falta izan zan festaren erdian. Maria beingoan mogidu eta “ardaoa falta zaie” esan zion Jesusi. “Nasai, emakume, oraindino ez da eldu nire ordua-ta”. Mariak hitz gutxi, baina begirada zorrotzez adierazi zion, laguntzeko beharrezana baiño ordu oberik ez dagoela kontura zedin, eta bertatik morroiei agindu zien “egin berak esaten dizutena”, bada ez zuan semearekiko ezbairik.

Eta, magia barik, ura ardao gozo biurtua izan zela, frogatu zuten maikideen ezarriak, maizaina bera aztoratzeraiño, hain ardao bikaina azkene-rako utzi zutelako. Miraria, bai Jesusek egina izan zan, baiña eragilea. Maria, bere ama. Berri emoilea, Joan Ebangelaria. (Jn 2: 1-11)

3.6. Tiron fede geiago Israelen baiño

Tiro³ Galileako mugetatik gertu dago eta Jesus bere jarraileekin, behin handik igaroan, euretako zen Markos lehen Evangelariak kontatzen digunez, (Mk 7:26) sirofeniziar emakume edo Mateoren (Mt 15:22) gardiz, kananear⁴ emakumeareagan harrigarritzko fedea aurkitu zuan.

Tiroko kalean zehar, emakume bat, atzetik jarraika, eta minki erreguka: “nire alabea deabru gaiztoak hilzorian dauka”, osatu zezala eskatzen. Jesusek jaramonik ere ez, bere ikasleak gogaitzeraiño: “amore egiozu, atzetik deika baten dator-eta”. Jesusek herrirako misinoa zuela, ez atzerrirakoa, umeen ogia ez zela txakurrei emotekoa-ta. Eta emakumeak bertatik: “baina txakurtxoak ere jaten dabez maipetan umeei jausitako ogi apurrak”. Hori entzunik, amore egin zion Jesusek: “Esan dozun horregaitik zoaz, urten dau deabruak zure alabagandik-eta” (Mk.7: 28-29) Mateo Ebanjelariak emakumearen fedea goraltzen du amoregite ordu berean: “Emakume, -dinotso- andia da zure fedea, gura duzun lez, gerta daki-zula”. Eta une haretan alabea osatu zitzaion”.

Alaba gaisoaz amak duen maitasuna, fede bihurtzen denean, *Maite Teologiak* ezin du ez-entzuna egin. Amak, amatu denak alegia, ezin zezaken baztertu alaba, magia egile itxura zaleek amakatzen dutenek bezala. Horrela argiago daukagu: emakume baten baietzak sortu eta ekarri zigula mundura Salbatzailea Nazareten edo Belenen. Maria berak aurreratu zuela Jesusen misino ordua Kana-ko Esteguetan eta beste emakume atzerritar baten fedeak atzerrietara zabaldu zuela Jesusen misinoa. Haraz gero bein baino geiagotan aitortzen du Jesuek “Benetan dinotsuet ez dudala halako federik Israelen aurkitu”. Errepika honetan aitortzen du Jesusek, atzerrikoen fedeak pozten duen beste min ematen diola etxeko federik ezak. Herria maite-arren, erleginoko gidariak ez zuten haintzakotzat Jesusen misinoa, misino hori, hain zuzen euren Legeko legerietatik herria askatzeri eta Espirituzko lokarriez salbatzeri zetorrelarik.

3 Tir/Tiro Sumeriarrek eraiki urian, portu bikoitza antolatu zuten itxasora urten xamar duen muturrean, bekoa Egiptorako atea, goikoa Anatolia eta Grezia-ra begirakoa. Tiro tokizen egitura eta sumeriar imperioak mediterranean bestaldean eraiki izenkode Turia gogoratzen digu.

4 Sidon eta Tiro ganean=Kanaan lurraldeari zeritson Ugarit ere feniziar agertu zan. *Elohim*-dar juduek kideko, eta *Yawé*-tarrek iguingarri zuten.



Jesus Tiro-ko kalean, emakume batek atzetik deidarrez darraitso: “Deabru gaiztoak mende dauka nere alaba, osatu mesedez”. Sumer, Tiro eta jatorritzko herriak aipatzean jatorritzko herrien kultura amatarra gogoratzen dugu, hotz, beste inungo misiolarik baiño lehenago Espirituak berak antolaturiko Eskola. Zuhurtzi andia Ama Eskola hori berreskuratzea: Marija arkeologak eta Merkel politikariak bihurtu diote Europari, okerreko filosofoen bide galduak ekarri kaltea: Europak II Guda Orokorrez ordaindu behar izan duena. Berriz ere baztergoak eziña, emakumeak egiña.

Jesusek indarrez salatzen ditu (Mt 23:15): “Zuen zoritxarra, idazlari eta farisear azalutsok: jarraile bat egitearren, itxaso eta legor zabiltzate eta jarraile hori eskuratzen duzutenean, berriz gaiztakerian zeuok baiño birritan inpernu-gaiago egiten dozue”.

Fede galduen elizan ere, maiz politikaren eskua bilatzen da, Espirituaren lana politikazko armek dagikelakoan. Medioez ezeze, elburuz ere erratzen dute orduan eta herri errugabeak ordaintzen du gidari ustelen itxukeria. Gaurko medioei eskerrak nabariago gelditu dira ustelkeriak, eta gizaldietan landu fedearen ukapenerako izan da.

Hagaitik gaur, “klerikalismoa, elizaren min bizitzat” salatzen da eta bide beretsuko susmotan zen Paulo VI Santua “beraz, elizan ere deabruaren kea sartu zaigu” esan zuenean. Arrigarria zaigu, beste aldetik, kaleko politikari asko, herriko senari lotu, zenbait eliztar gidari baiño argiago herrigintzan ari direla ikustea.

Kanako Ezteguetan “ez dute ardaorik” salatu zuan ama Mariak. “Eta zer zuri eta niri, andrea? Oraindino ez da eldu nire aldia” erantzun Jesusek. Hala ere, miraria gertatu zan. Oraingo salapena sakonagoa da: “ez dute federik”, Espiritua behar dute. Nork moztu dizkio egoak Espirituari? Espiritua ama erraietan atanda artzen duena jakinik, nork baztertu du emakumea eleizako arazoetatik? Etxeko bizien eta hilen arduradun jaioa etxeko *andera*>*santera* dena jakinik, nork astandu du santutegitik?

3.7.1. Jatorrizko herrien Espiritua.


Espiritu Santuaren egitez bakarrik eldu zeiteken gizakia Inko seme-alaba izatera. Hagaitik esan zion Mariagan zekusanaz ez baitan zegoen Jose zenargaiari: “Neure lana duk beragan ikusten dukana”. Espiritua guraso Ama+Aita delarik, berea du seme-alaba Sena eta Eskola ere gizakiak. Elizako misiolariiek beranduxe konturatu dira, eurak baiño goiztarrago inhardun zuela Espirituak urrutiko herrietan eta ez zuten aintzat artu Espirituaren azikiñarik, Berriona zabaltzean.

Hagaitik Paulok honela dinotse galazitarrei⁶. Kristok libre izateko deitzen dizute, ez Legearen joku izateko. (Gal 4: 22-24). Erromako maisuek osterara, IX gizaldian uste zuten euskalduna konbertitzeko, “kristau hizkuntza ikasi behar zuela” edo geure egunotan argiago entzun dugunez, “más Dios y menos Jaungoikoa” edo “hable usted cristiano”. Hala egiñez, Espirituaren azikiña bera ere garbitu nai zuten, euren politika arroaren izenean.

Eskerrak sortu ginduzan Espirituak berak euskaraganako eman digun atxikitasuna, Kardaberatz misiolariak XIX -an honela aitortzeraiño: “euskerak burua jasotzea nai du Jainkoak”, inkulturatze hitza ezagutu ere egiten ez zen orduan. Euskal *abade>apaizek* ere argi edo apal aintzat artu izan dute euskerak erlegiorako duen baliabidea eta euskera lantzen jardun izan dira eta orain euskera bera dugu gure artean Espirituak asieratik egindako lanaren berri ematen diguna, euskera bai-da Ama Eskolako hizkuntza ondakinetan adituena Europa mailan eta harago.

XIX Ego Amerika Espainiako enperiotik jaregin zenean, espainiar kleroa ere handik iges egin behar izan zuan, bertako predikarie bide eginik⁶. Eskerrak garbiketa horri, gorde al izan dira Ego-Amerikan Espirituaren aztarren batzuk. Bergoglio aita santuak arduratan du Amazoniako gendea eta, katekesi bide berrien usnaka, asierako Espiritua aintzat artzeko eskatzen du, Espiritua, amarik onena lez, uneoro misiolarien aurretik eskolatzen jardun izan delako eta azikin horren jarraipena baztertzea, jaioberriari amaren bularra kentzea bezala, *Baztergo Teologiaren* lana bai-da.

6 Entzutetsua mexikar Tonantzin jainkosaren arazoa, Zumarraga hango lehen Artxapezpikuak Diego indiarraren ikuskizuna ontzat ematen zuelarik ere, espainiar misiolari militarizatuak Guadalupeko Andre Maria izenpera behartu zuten fede titulua. Zumarraga frantzikotar euskaldunak uler zezaken analogiaz Tonantzin “Inko Ama” zeruan lez, Andre Maria, haren alaba, lurtean ere, Ezpirituari zirritu bat ustearren ere. Franzisko Aita Santuak hagaitik barkamena eskatzen du.



Bere laino, kurutz eta guzti, herria eraikitzen duen betiko elementuak ditugu oinarri: zeru aMa, aiTa eguzki, Shu Espiritua eta mendizaleen gora naiak. Kurutzeta dugula seiñale eta III-ko lehen martiria “neure ama Roman il ta cistiana” aitorle eta Lehen Kalbarioa lekuko. Ez dute zigurtzat eman nai. Eraileek ez dute aitortu nai izaten eraile direnik eta euren ukapena dugu lekuko geigarri. Gorbeia aldapa larria eta goienean kurutzeta, salbamen seiñua geurean: euskaldun izatera behartzen gaituzte zorionean, geurea data...

3.7.2. Jatorrizko kulturen baztergoa

Erroma garaitik ezaguna dugu European Enperioko alegiña ontzat ematen zuena maizetan Eleiza Katolikoak, maite Espirituaren seme-alabatza koan barik, azaleko xegunetan jartzen zutela kutizia, *katilukoa katolikua* eginaz, *Baztergo Teologia* segikoek *Maite Teologia* jarrailei ohi bezala.

Goiztarra izan zan Erroman eta Gortean euskaldunak sarekatzeko alegiña. Iruñeko erregeek ere gogotik onartu zituzten Cisterreko monxeak, arria eta arimak kanpoko estilora lantzen mutillagok, herri txikiak nau sien morroi izan zitezen: Erromak erromanikoa, Frantziak gotikoa berekotuez gero, baztergora emanik euskaldungoa.

Gero Amerikan egin zutena bera. Ugonoteak ere obeak izan ziran beste en eman misino aizunak salatzen, Ebangelioa inkulturatzen baiño. *Inkulturatzea* hitz berria da: “Berriona den azia besteen soloan ereitean, solo jatorra barreiatu gabe, egitekoa dela, esan nai du”. Espirituari jaramonik gabe, euren erreinuko soloa zabaltzen eta txukuntzen ari ziran eta herri koiak baztertzen, egunotako Arkeologiak Kanadan salatu duenez. Frantxes eta ingelesen kolegioen misino omen zan. Ikastetxe eder haietan azal gorrien umeak ez ziran onartuak izan, eriotzaraiño ko baztergoa jasan baitzuten. Eleiza Katolikoak barkamena eskatu du, bakatari sentiten delako...

7 Ziortzako monastegia IX, XX-an euskaldundu asmoa izan zuan gure Gotzaitegiak, Totorika euskaldun fededun abatea aukeratuaz bideratu, baina Oliva-koak, jatorgune nausigoen Erregelaz baliaturik, asmo jaioberriaren euskaltasuna aultzearren?, abate berria Olivako abata izendatu zuten.

3.8.1. Jesus eta Sinagogako deabrudunak

Jesus Kafarnaun-era jatxi eta Sinagogan irakasten asi zan zapatuz eta haren irakaspenaz gendea arritu egiten zan halako aginpidez berba egiten zuelako. Deabru zikina⁸ zeukan gizon bat zegoan Sinagogan, eta deadar baten inoan: “Jo, zer daukazu gugaz, Nazaretoko Jesus horrek? Gu ondazera etorri al zara? Ba dakit nor zaren, Jaungoikoaren Santua”. “Ixilik hago -Jesussek bertatik- eta urten egik gizon horregandik.” Eta gizona erdira jaurtirik, deabruak urten zuan, kalterik egin barik”. (Luk 4, 32-37)

Sinagogako deabrudun⁷ honek “gugaz, gure aurka” diño, ez “nire aurka”. *Gu>eGo* dakar latinak ere eta Gerasan⁹ itxas bazterreko deabrudunak, asieran apalik, “zer duzu nire aurka” [...] baina, Jesussek “Zelan duzu izena?”- galdetzean, “Legioa, asko gara-eta” aitortu zion. (Mk; 5-15)

Sinagoga Eskola eta irakasleak Jesus Maisuari aurka egiten ziotena darger Talita-ren osakuntzan. “Jesus itxasoz beste aldean zegoela, Sinagogako arduraduna, Jairo datorrio erreguz: “Nire alaba hil zorian dago, etorri zaitetz, ezarri egiozuz eskuak gainean, osatu eta bizi daiten.” (Mk 5:35) Jesus bereala gaisoaren etxera abiatu zan. Bidean joiala, beste eskabide batzueri erantzuten gelditzen da [...]. Hanartean Sinagogako arduradunaren etxetiko mezua; “zure alabea hil da, zertako gagaituazo geiago Maisua? Baina Jesussek guraso aitari: “Ez bildurtu, zuk sinistu bakarrik.” [...] Jesussek beragaz daroaz Pedro, Santiago eta Juan ikasleak. Gaisoaren etxera eltzean, dena dolu eta aien otsa eta Jesussek: “Zertarako hainbeste negar eta ulu? Neskea ez dago hilda, lo dago-ta”. Eta irri eta barre egiten zioten, baina Jesus, denak alboratu eta neskearen ama, aita eta beragaz joiazanak artuta, neskatoa egoan gelan sartu eta neskatoari eskutik artu eta badi-notso: “Talita kum”, neskato euri dinonat, jagi hadi.” Neskatoa bat batean jagi eta ibiltzen asi zan, hamabi urtekoa zan-eta. Senetik ere urtenda gelditu ziran guztiak, guztiz arrituta. Eta jasotako inortxori ez esateko gogor agindu zien Jesussek eta neskatoari jaten emateko agindu gurasoei.” Eztabaida barik, Jesus fedeari emana eta etsaigoa al bestean ekidintzen.

8 Sinagogako deabrudun hau Jesusen aurrean teatroa egiten ari dela ematen du, hotz, itxuraginen, Jesusen predika eta irakaskizuna ostopatzearen. Jesussek alta, mozorroa kentzen die joku gaiztorea prestatzen direnei.

9 Gerasa aldean ba zegon aldi haretan erromatar gudarien “legio” bat. Erromatarrek txerri jaleak zirenez, han darger hako txerrien pasadizoa ere.



Jonek irudipenez Jesusen jaiotza eta Erensuagearen eraso batera ikusten ditu eta hemen, Jesussek misinoa asi orduko Sinagogatik harako herriko jendeak Jesus lezera jaurtinai du eztalakoan. Baina Jesus ez zan larritu. Euren artetik aurrera urten zuan, bere ordua oraindino ez zelako eldu. Gaiztake-riak historia sakona du.

3.8.2. Jesus herritik kanpora

Urrengo baten Nazaret herriko Sinagogara joan eta irakaste orduan Isaias profetaren liburua irakurteko eman zioten (Lk 4:21) Jesus, bilduma idekirik, irakurten asi zan: “Jaunaren Espiritua nere gainean, horregaitik gantsutu eta behartzueri Berri Ona iragartera bialdu nau, giltzapetuak askatzera eta itxuei ikusmena eta zapaldui askatasuna emotera eta Jaunaren errukizko urtea iragartera”. Jesussek liburua arduradunari itzuli eta esan zuan: “gaur bertan bete da oraintxe entzun duzuen iragarpena”.

Gendea arrituta gelditu zan haren oldezko berbeta moduz, baina Sinagogako maizetzaileen esamesak ere beingoan irauldu zuten geiengoren ustea: “Ez da, ba, hau Josen semea? Maria bere ama eta bere nebarebak ez ete dira geugaz bizi? Nundik, beraz, honeri halako...” [...] Jesus bera ere eztabaidan sartzen da: “Meriku, osa ezak euren burua” esango didazue aurki: Egintzak eure herrian Kafarnaunen egindako mirariak”. Eta zera esan zien gainera: “Benetan igarlea ez dela bere herrian onartua [...] Legenardun asko zeuden Eliseo profetaren garaian, baina euretariko bat ere ez zan izan osatua, Naaman siriarra baiño” [...].

Halakoak entzutean, asarrez berotu ziran Sinagogakoak eta jagirik herritik kanpora bultzakatu zuten Jesus eta bidean zeharreko amildegitik bera jaurtin zarrada ere egin zioten, baina Jesus aurrera joan zan bere bidean (Ibi. 4. 31-35). Jesus fede bakoengan ez du miraririk egiten eta ez da lotza Sinagogako maisuen aurrean egia garratzenak esaten edo fariseoen garbitasun minaren akatzak garbi salatzen.

3.9.1. Jesus Moisen Legearen aurrean

Jesusek Lege maisuak salatzen ditu: “Moisen erakus maian jesarri dira -jendeari esaten asi zan Jesus-, egizue, beraz, eurak esaten dizuten guztia, baiña ez egin eurek egiten dutenik, esan bai, baiña egin ez dutelako egiten. Sorta andiak lotu eta beste leporatzen dizkiete, baiña eurak atzamarraz ere ikutu barik”. (Mt. 23, 1-8) “Zoritxarrekoak, idazlari eta fariseu azalutsok: zeruetako Ereinerako bidea herriari galazi egiten diozutelako; zeuok ez zaree sartzen eta sartu gura duenei galzi egiten bai-dizkiozue [...] “zeuetariko jarraile bat egitearren, itsaso ta legor zabilzate eta bat hori lortzean, zeuok baiño birritan galgarriagoa egiten duzue”. (Mt. 23, 15) [...] “Bide erakusle itxuoak, aizpatan aneta eta txarpoilar bedarraren amarrenak ordaindu bai, baiña Legean nagusi diren zuzentasuna, errukia eta sinismena alde batera uzten dituzue-ta, edakiak iraztean, eltxoa baetu eta ganbelua irensten duzuelako.”(ibi, 23-25) “Legeak aita eta ama dedutan izateko agintzen duenarren, zuek beste hau esan eta egiten bai-duzue: “nigandik artu zenezaken laguntza guztia Jaungoikoari eskeiñita daukat”. Horrela zuen ekanduekaitik, Jaungoikoaren hitza ustel egiten duzue”. (Mt, 15:1-9)

Paulo Apostoluak galdutzat ematen du Moisen Legea, guztientzat barik, herri berezi batentzat izanaz banandu egiten zuelako. Jesusek bere gurutzeko heriotzaz apurtu zuan juduek eta gentilaz banantzen zituen legea herri biekaz baat eginik. (Ef. 2.15), halatsu dager (Col 2,14). Sortalde Urbileko legelarien artean ez dager Moise izenekorik. Juduen Tora¹⁰ ez da legedi utsa, izan ere, eta Esdras-en garaikoa da. Legelari eredia Hammurabi¹¹ da (ikus or.8o) eta legelariok herrikoiak direnez, gizabide adeitsua aitortzen die jainkosei ere.



Hammurab, uTu, eta sots>txotx, eskubide seiñua

10 *Leyes del Antiguo Oriente*, Marie Josef Seux, Preliminar, 5, D.B.15

11 Hammurabik Utu Zuzentasun jainkoaren eskutik hartzen du eskubideen sots uTu-ren eskutik harako: uTu>tuldu>zoldu^(ausk)>soldar>Sol>solidarizar.//>sots>txotx. Esakeretan ezaguna da “mekasu- en sots” edo Alkatearen sotsak plazan ere haren agintea ordezkatzeko duela ikusi dugu. Torak Legea aldiz, nolabait, sorkuntza zaharreko lege sinboloa ere murduskatzen dator.



Maite Teologian asmatu zeiteken kontakizunik ederren hau ez da beingoan astutzekoa. Ez eta Baztergo Teologiaren jarraileak jaso zezaketen lezino andiagorik ere, bada haraz gero Ebangelioa irakurten den hizkuntza guztietan, Jesusek maite zuan Ebangelariak idatzi zuan samindura gozoaz irakurria eta ohartua izango dalako. Moisen Legea arrian txinpartaz idatzia izan bazan, bekatuaren barkamena, Jesusen atzamarrak lurtean hain finko emakumearen alde zirriboratu zuelako.

3.9.2. Emakume bekataria

Jon Ebangelariak beste pasadiso samingarri batez kontaktzen digu Moisen Legea eta farisear Lege zaiñak emakumearekiko duten lokarri estua eta amorrua erakusten diguna. Beti ere, Jesus Moisen Lege apurtzaile salatzeko agintearen aurrean. Jeusek, saltzaileen sarea ekiñ eta emakumea arrikatzetik salbatzen du arrigarriri. Jonek, Jesus Oliomendirako osterea eginda, goizetik Jaunaren Etxean eta gendea berari entzuteko batuta zegoen unea uztiatu zuten fariseuek Jesusi beste pasadea emateko asmotan.

Oraingoan emakume atzilotua aurrera ekarri eta salatzen dute: “Maisu, emakume hau ezkontza austen aurkitu dugu agiri-agirian. Honelako emakumeak arrika hiltzeko agindu zigun Moisek Legean. Zuk zer dinozu? Jesus, makurturilk, lurtean atzamarraz idazte tankeran, asi zan. Harek itaunka jarraitzen ziotelarik, zutundu eta hauxe esan zien: Zuen artean pekatu gaberik dagoenak jaurti diezaiola lenengo arria” eta barriri, makurturik, lurtean idazten ekin zion.

Jesusen berbak entzunik, zaharrenetatik asita, banan-banan alde egin zuten, emakumea bertanbera utziaz. Jesusek zutundurik, orduan hauxe esan zion emakumeari: “Andre, non dagoz? Ez zaitu iñork epaitu? –Iñork ere ez –erantzun zion harek. Eta Jesusek orduan: Neuk ere ez zaitut epaitzen. Zoaz eta ez egin geiago pekaturik. (Jn 8:10)

3.9.3. Asieran ez zan horrela

Jesusek zuzen ebasten du Lege Maisuen duda-mudako galderetan. “Orduan fariseuak zirika etorri zitzaizkion esanaz: Zilegi al zaio senarrari bere emaztea edozergaitik baztertzea? Eta berak erantzun: Ez ete dozue irakurri Egileak asieratik egizona eta emakumea egin zituena? “Eta [...] horregaitik gizonak bere aita eta ama itzi eta bere emazteri lotuko zaio, biak aragi bat izateko? Harazgero, ez dira bi, aragi bat bakarra baiño. Beraz Jainkoak batua, ez beza gizonek banandu”.

Eurak berean: “Zergaitik agintu zuan, bada, Moisek baztertze agiria eman eta usteko? Jesusen erantzunez: Zeuon bihotz gogorkeriagaitik eman zizuten Moisek emazteak baztertze baimen hori. Baiña asieran, ez zan horrela”. (Mt. 19:3-12)


Asieran jatorrizko herriek Ama Eskola jarraitzen zuten, (Ikus or, 14-34) eta giza arrokeriaren antuzte minak, eta politika tirriaz, amaren manamendu eta begiramena baztertzea erabagi zutenek, euren neurriko jainkoa asmatu eta aldarrikatu zuten. (ikus or. 36-66)

3.10. Espirituari uts egiterik ez dago

Jesusek ezagutzen zituan giza muga eta esturasunak. Orduan “giza semeak” otoitz luzegoa eginez, adore andiagoz ekiten zion Jainko Erreinuaren predikari. Bere kontrakoen zarraparrak ere, gero eta urbilago sumatzen zituan, batez ere Jon Bateatzailearen eriotzatik hara. (Mt 11:12)

Egiten zituan osakuntza miragarriez herria aldeko zuan, baina magia zaleek eskubidea ukatzen zioten: “Beelzebu, deunganinoaren eskuz jaurtitzen ditu horrek deabruak”. -Beelzebu-ren erreinua banandu?- jardesten die Jesusek eta gezurtia iltzaile ere ba denazkonturaturik gogobiltzen da, ez uzurtzen: “Gizaseme honen aurka esanak barkagarri dira, baina Espiritu Santuaren aurka egin utsegiteak ez dira barkatuko ez mundu honetan, ez bestean”(Mt 12; 27-31).

Teologoen Espiritu Santuaren kontrako pekatuak zeintzu eta zenbat diren aztertzen dituzte: sinisogorkeria, maite Sortzaileagan usterik eta begiramenik eza, Sorkuntzaren ederra eta zuzena ogartzeko eta aitortzeko itxukeria, hotz arrokeriak burunaiko antuste izatera desbidetzen gaituena.



Gaizkiñek gizon bat zauritu eta utzi zuten Jerikotik Jerusalemenera bidean Handik abade bat, eleiz gizon igaro zauritua bertanbera utzita, elizkizun ordua eta garbitasun premian. Gero eldu zan samariak zalmazain bat eta zauritak aradaoz eta olioiz garbitu eta osttura jaso zuan. Bere boltzatic ordaindu zituan zaurituarekiko gaztueak... Horrelatsu kontatzen digu (Lk, 10;25-37) Jesusen agotiko parabola hau. Halako iruditan herriari gizabidezko dena erakusten die, “Nor da nire lagunurkoa? galdetu zioten harakoan.

Gizakiak Ba baitan duen Espiritu distira bera estali edo dezbidera eramateko askatasun almena du, bizidunak bere buruaz bestea egitea bezelatsu-edo, geu garen ontzian txikitu eta itotzeko lain. Materialak¹² berak ere espiriturik ba duena ontzat ematen da, baina ez da ontzi fisikoaren akatza, norberetu espirituri aurre egitea baiño, hotz, bere aragien araberan jarduteko barik, ostopatzeko erabil jokera gaiztoa.

Arimako auleri hau osatzea Espirituarekiko fedea bakarrik osa dezake, haganako atxikitasunik ezak, berriz, atzendu egiten du osabidea. Bestalde ez gara gu bera aukeratu duguna, berak aukeratu bai-gaitu (Jn 15:16) Maite Espirituaren Sorkuntza eredugarria ezagutu eta onetsi beharrez, haren elburu eta egiturak, obetu ustetan ere aldatu naia, okerreko jokera da. Holakoaren osagarri, Espirituak Saulorekin eginikoa da eredugarria, errotiko aldaketa. Saulo, kristau iltzaile izatetik Paulo Apostolua buru-belarriz ezeze, agoz eta idazkiz Kristo Jesusen jarraile sutsu izatera eldu zelako.

12 Gaurko teologoen ontzat ematen du lehenagoek ezetsi zuten Teilhard de Chardin-en tesia. Izan ere, materia ere Espiritu Sortzailearen sorkaria denetik, haren egitura eta doaia ere bada bere mailan. Hareago materialak ezin du astandu berez dagokion espiritua, gizakiok ordea, geure Baitako adimendun Espiritua onartzeko edo ukatzeko almena dugu, hotz, geugaz bat egin duen Espiritua tristetu (Ef. 4:30-32) egin genezake, gutxietsi edo zapustu ere bai. Holako zerbait ikusten de *Baztergo Teologia* jarraitzen dutenengan

3.11. *Jesusen Temploa garbitzen*

Jerusalengo Temploa zuten juduek euren jainkoari lurrean egoteko opa zioten etxe erainkintza bikaiñena, naiz samaritarrek Garitzin mendia gogoratu jainkoaren santutegi jatortzat. Jesusek zera dinotso samariar emakumeari: "andrea, eldu da jainkoa ez hemen edo han barrik, espirituz eta egiaz gurtzeko ordua." (Jn 4, 23-24)

Jerusalenen herriko abadeburuek eta enparauak negozio andia zuten jainkoei egin beharreko oparien inguru eta, aldiek elduala, Jesus berotzeraino, "Jaunaren Temploan sartu eta saleroste guztiak kanpora atera zituan, diru aldatzaileen maiak eta uso saltzaileen jarlekuak iduli egin zituan eta hauxe esan zien: "Nere Aitaren etxea otoitz etxe izango da eta zuek lapur zulo bihurtu duzue". (Mt 21, 12-13)

Abadeburuek-eta kontua eskatu zioten: "Ze ezaugarri erakusten diguzu, bada, horrela jarduteko? Jesusen hauxe erantzun zien: "Eratzi egizue Templo hau eta iru egun barru jasoko dut". (Jon 2:19)


Arrizko eraikintzaz ala bere soina zinoan Jesusek? Arria ala aragia? Bietatik zein zan Maite Espirituaren egotetxe duinago? Berrogei urtetako gizalana kostatu zela bata. Bederatzi ilabete amari Jesusen soina. Beraz Itun Zarreko zekorren odola ala Itun Barriko Kristoren odola duinago?

Hauxe izan zan Kristoren bizi erronka eta *Baztergo Teologiaren* gorroto eta amarruak bidea egin zioten *Maite Teologiaren* Itun Berriko odolari juduen Sannedrina eta erromatar Pretorio zirela bidegile. Jesus kurutzean txikitua izan zedin, "hau de nere gorputza zuentzat emango dena [...] edontzi hau Itun Berria da zuen alde ixuriko den nire odolean". (Lk. 22, 19) "Eta Templo barruko estalkia goitik bera urratu gelditu zan, Jesus Kurutzean hiltean". (Mt 27:51) Horrela agertu zan Temploko magia zen uskeria, salbabidea Kristogan argitu zenean.



Nekaldia gomutaz

"Itxaropen hau dugula, zabal egiten dugu berba, ez Moisek lez. Harek arpegian estalki bat ekarran, Israelgo semeek galtzear zen argitasuna ikus ez egien. Eta harein adimenak gogortuta egozan: Gaur arte be adimen horreik Alkartasun Zaharra irakurtean, estalki berberaz estalduta dagoz. Estalki hori Kristoren bidez baiño ez da kentzen" (2Kor 3, 12-15)



"Saulo, Saulo, zergaitik jasarten nauzu?--Nor zaitut, Jauna? --Zeuk jasarten duzun Jesus. --Zer egitea nai duzu?" (Ap. Ek. 9.4-7) Saulo lurrean datza goitiko diztira batek jota itxu Damaskora bidean. Hango Sinagogan kristino ziren guztiak atxilotu eta kontuak artzeko Jerusalemara eroateko agiriak eroazan.

Berbiztuak golpe batez bereak zaintzeko etsai gaiztoena lurreratu eta bere aldeko apostolurik sutzuen eskuratzen du Saulo fariseoagan. Haraz gero Paulo, Jesusen Apostolu bikaiñena izan zan.

3.12. *Graziak gaintzen gaiztakeria*

Saulok eskarmentuz aitortzen du (Rm 5:20) "ogena non, grazia han" eta, Legeko ustekeriak utzirik, Kristoganako Fedeari lotzen direnentzat. Saulo ez zan izan Jesusen hamabietako edo bere bizitzan haiekin ibili eta euretar egin zirenetakoa. Saulo kristinoen kontra gudukatzen zuen judu sutsua zan. Behin Damaskon Sinagogako kristauen kopurua atxilotu eta kontuak eskatzeko Jerusalemara erakarteko eskua erola, bidean distira argitsuak jota itxu erori zan eta goitiko aginduari men egin zion. Agindu berak hari laguntzeko dinotso Damaskon Ananiasi: "zoaz, jentilei eta Israel herriari nire izena iragarri diezaien ontzi aukeratua [...] dot-eta" (Ap.Ek. 9,15) Besteok beste, denok gara aukeratu hain maila berean.

Saulo, izenez arroago, Paul formaz apalago, baina beste inork baino obeto baitatu zuan Jesusen Erreinuak ordutik jasan beharreko erronka. (Mt 11: 12) Asteko, Berrionaren apostua ezbaikor ekusan Israel herrian. Alde batetik guraso eta seme-alabak bere izenagaitik banantzera zetorrelako (Mt, 10: 34-36). Eta, hala ere, andiagoo zan Moisen Legeak aurkatzen zion horma "eta Kristok bakarrik onda zezaken, herria banantzen zuen horma hori". (Ef. 2:8-22)

Moisen Legea barik, berezko legea dutenentzat euren baita dute zuzentasun lekuko, Legea eduki eta betetzen ez dutenek berriz, Legeak berak kondenatzen ditu. (Rm,2. 14-16)

Pauloren baitako garra, Kristoren jarraipenean datza. “Kristoren maitasunak behartu egiten gaitu, [ez gaitu bakean usten] eta Kristo denokaitik hil zan, bizi direnak ez daitezkan geiago eurentzat bizi, eurekaitik hil eta biztu denarentzat baiño”. (2Kor. 5:14-15)

Halatan ere, berezko ezorekaren bat egon daiteke Paulo eta Pedro apostoluen artean¹⁰. Argibide eta ganora ezberdinak erabakien aldea ematen dute kononbidearen orduan. Espiritua denengan dagonarren, gizakiak bakoitz eta ezberdin irauten du eta goiko indarrez izan ezik, ez dugu geure aldetik ez dugu erraz amoregiten.

Gaurko eleiztar buruen jokeretan ere *hipokresia* aipatu da. Hitz hau antzerkitik oratua da, hipokrita teatrogile ona da, askoren nortasuna hartzeko gei da. Pasadenbora ala herriaren eziketara-ko? Hor dagoke huntsa.

Pedro apostoluaren fedea beharrezkoa zan, baiña ez zan naiko haren ikuspegia: dena Kristori eta zatitxo bat Legeari anai arteko bakearren. Horretarako zalditik eroria bezalakoa izan bearke zuan eta Pedro ez zan izan zaldun, arrantzale baiño. Zalditik lurrera jaxiaz, eta goitiko argiaz itxutu eta haren itora erakarriak, moldatu zuan miragarriro Saulo alena, Paulo¹⁰ Apostolua bihurtzeraiño.

Elizak ere, maiz Pedoren antzerkia egiten dihardu, osotoro Kristogan barik, fedea gordailua zatika kudeatuz. Joan XXIII, Paulo VI, Juan Paulo I baikor Vatikanon II-ren sortzaialle ta bultzagile sutzu, eta Juan Paulo II, idien pauso astiroko edo ideien aireko Benedikto XVI ezagutu ditugunok. Eta azkenik, zorioneko Franzisko Bergoglio¹¹/Gollibar, Elizan ere, bera bezelako Aita Santua edo herriak nai eta aukeraturiko Gotzaiña izateko goitiko grazia behar duzu eta urteetako pazientzia.

10 Egunotan Franzisko aita santuak Pauloren ganora bultzatzean, munduko Sinagogak, bere arrenkura goraki azaldu diote “gu galtzera ete zatoz?” harakoa gogarazten digutela. Zer erantzun dezake Aita Santuak halakoetan? Bera ez da Kristoa, haren ordezkaria baiño. Paulori, Franziskori edo Kristo berari entzun eta orduan ere gu dudatan.

11 Frantzisko Bergoglio hau, Argentinako italiar etorkinen seme da eta euskaldunontzat, barriz, *Goillibar* edo Eirekoentzat *Gulliver* eta bera esateko.



Oraingoan benetan doa Aita Santua, gendartean sartuta, lotu, askatu, bultzaka eta animoa jartzen. Aurkariak aurre egiten die, aurrelariak aurrera jo dezala. Ez du iges egiterik, behin Sinodoan sartu denez gero, Espirituaren sarradak bereaz urtego du eta beharreko aldaketak egingo herriaren eta Kristau Elizaren alde.

3.13. Kristoren Nekaldicari falta zaiona

Jesusek laburto osatu zuan bizitza lurrean eta laburrago burutu zituan Jainko Erreinuaren aldeko predika urteak. Jarraileen eskola beharrezkoa izango zuela kontuan hartu zuan. Eurak jarraitu beharko zuten aurrera berak ideki bidetik, beti ere Espirituaren goitiko gidapean. Lan eskerga izango zuten eta martirien odolaz señalatua, igarle Juan Bateatzailea, bera bateatu zuen aurrelaria, Herodes erregeak erail zuenetik eta aurrerakoan. Horretarako ziran jarraileei egiten zien oharrak: “Gizasemeak bereak jasan beharko ditu, heriotzera emango dute [...] atzerritarren eskutik, baina hirugarren egunean berbiztuko da”. (Lc 9:22) Mugonez ger-tutzen zituan mugonez, egun baltzean ere argi ibil zitezen.

Mirariginen arrandia baiño, harago gaisoari egin mesedea bilatzen zuan, eta miragarriak ez aizatzeke, al dela ez zedin larritu etsaia. Batzuetan hirukoen lekukoa hartzen zuan lagun, bere ekintzen memoria gal ez zedin. Ezagun zituan aulenak, eta asartuenak, batzuen atzerapenak eta besteen aurrera tirriak, ezaguna zuan ogetamar

dirutan saldu eta armadunen eskuetan utziko zuena ere. Berak guztiei aukera ematen, bakoitzak bere eginkizuna ar zezan *Gizasemearen* Nekaldian, hotz, bere eta bere ostean, egiaren lekuko izateagaitik jasan behar zuten guztien oroitzan.

Gizasemeak ezin zezaken aztu Maria eta Josen semea zenik eta buruz ekizan, berriz, Mariak ere Espiritu beraren argitan agindu zuan pobre eta aulen aldeko iraultza etorrela gizartean. Baña noiz izango zorioneko egun hori? Eta Jesusen erantzun: Jainko Erreinua ez da etorriko arrandiz, ez eta iragarriko han edo hemen izango da, bada jakin, Jainko Erreinua zeuon barruan dago". (Lk (17,20-25)

Jesusek *gizaseme* zelakoa aitortzen zuan eta fededun jarrailei bereak aiñako miragarriak egiteko almena agintzen (Mt 17, 20) Ba zekian, bestalde, Espirituak naiznon joten duena eta biriek aizea bezala, haren bultzada behar duena fedean irauteko. Berak mendira igon eta gau osoan irago zuan otoitzean (Lk 8,12) eta ototitza gomendatu zigun: "Otoitz egin gaubelan tentaldian eror ez zaitezten, baitaz erne garenarren, aragiz aul bai-gara". (Mt 26:41)

Jesusek ba zekian, saltzailearen gau haretan, bere alde ezpata atera zuenak berak ere iru aldiz ukatuegingo zuena, atxiloa igestearren, ba zekian jarraileek bakarrik utziko zutena, kurutze zigorra gaineratu ziotenean, emakume gutxietsien taldea-edo izan ezik. Batez ere ba zekian, burruka galdu behar zuena, Jainko Erreinuan sartzeko eta garapen bidea guri erakusteko.

Jesusek berak, Israelgo hamabi tribuen omenez, amabi aukeratuena jarraipena onartzen zuan, Judasek uts egin zionarren. Jesusek barkatzen ditu Pedroren ukapenak edo Tomas anaietarikoaren sinisgogorra, baina berak eskolatuez landa, beharrezkoa izan zuan aurkalarietan Saulo bezalako ontzi berezia, non gaitza han osasuna edo non bigurria han zuzentasuna adierazteko suzia.

Israelgo idazlariei erantzunez, Espirituak lau Ebangelari prestatu zituan, Marko, Mateo, Lukas eta Joan, bere bizitzako zerzelada guztiak begien aurrean ikus genezan geure pauso larrienetan Maisuaren norakoa gal ez genezan. Atsedena eman zion Paulo zintzolari ere Erromako espetxean, berak sortutako kristau taldeko Elizei halako eskutitz bizkorgarrien oroitza betiko utzi zezagun.



Eta aldiak zer diren Espirituaren ikuspegian eta, millaka urteak igaro eta, urak bere bidean, XX gizaldian, Joan XXIII bezalako Aita Santu apalaren bitartez, Elizako leiateak ideki eta aizatzeke agindu eman zigun, udaberria opaz itxaropenari.

Aldi digitalizatuok iraduz larritzen dute etorkizuna eta Elizak gizaldietako abiadura keldoa gaurkotzear dago. Irugarren Milagarrrena dugula jada, ez dugu aztu Espirituak Kristo Jesusegan egiña eta Kristonak jasaiten jarraitzen ditugula eta ez alperrik.

ONDORENEZ: Jesusen Jaiotza, bere Predika eta Heriotza beharrezkotzat eman zituan Espirituak, Baztergoak bere Sorkuntzari egin iraiñaren ordetan eta Ama eta Aitaren ezinbananduzko batasun aintzatsua argi berriez aditzen ematearren.

Ama eta Aitaren bidezko legepean jaioneko Seme Jesusen Berbizkundeaz Espirituak fededun Seme-Alaba guztiok Irutasun Santuaren aintzara deituak garela adierazten digu.

Gizartea asieratik eskolatu zuen Espirituak, bere ordezkarien bitartez Eliza eskolatzen darrai eta Asierak Azkenaz osatu/ osotu asmoa duela ematen du gaurko agiriekin.

ONDORENAK

Espiritu Sortzailearen kontrako pekatuak andiena, bere benetakoa Maite Sorkuntza gutxietsiz, magiazko Sorkuntza Berria asmatu eta aldarrikatzea izan zan. Batasunaren izenean, banaketa eta Jainkoa etxekotu ustetan, biziaren Espiritua aizatu zuelako.

Jainkoak armatu eta gudarosteen jabe egiten dituzten erleginok anai-arreben arteko burruka sortzaileak dira eta Ama Eskola berriztuak bakarrik erakar ditzake Espiritu bakarraren Erreinura.

Ez da bidezko elizan "Ama eta Maesa" ganora agertu naia, emakumea andre mailan beharrez, nerabetzan dutelarik. Emakumea bai-da berez umeen hezitzailea familiatik asi eta bizi duen gizarteraño.

Klerigoen liturgia arranditsuk sinisgarritasuna kentzen die erlijioei, kristorena deituari bederen. Fedeari faltakoak magiaz ornidu zaleak direnek, uzkeria dute ondore eta *Baztergo Teologiari* bidea egiten die.

Patriarkatuak Gilgames-en nastea daroa soinean, Inanna, maite jainkosa zapuztean edo amaren sorkuntza pustagarri delakoz, gutxiestean eta Siduri gelazainaren aholkua ezentzunez, betiko bizi-tzaren bila mortura jotzen duenean.

Katolikoek Liturgian akatzik barregarrietarikoa Berriona herriari 1962-eraino latinez irakurtea izan da, ohiturakeriaren magia halakoz, herria Jainko seme-alaba jator izaten eskolatu beharrez, Erromatar Enperioko ume apal izatera alperrik behartu nai gintulako.

Maite Teologia, gizarteko oinarri den auzora ideki familia sortuaz, talde guztien konponbidea urdutzen alegintzen da, beti ere behartu eta aulduenen serbitzu zuzenbidezko arduratzat artzen duela.

Baztergo Teologiak, federik ezean, magiaz ordezkatzeko du Sorkuntzaz dugun iruditeria eta izadiko edertasuna sor diogun arreta galdurik eta arketipoak ezetsiz, giza ganorako ez den erlejino trukatuaz baliatzen da, zutik dagona ondatzen eta beretiar ez dena baztertzen.

Frantzisko Aita Santuak aintzat du jatorrizko herrien Espiritua, gaurkoon benetakoa arketipo bezala, ekonomia guztia kapitalean

eta pobreen sorra gudu armatan eralgiz dihardutenek, jarraibide egokiagorik idoro al dezagun.

Aserako Baradisu jatorra galdu geroztik, sailagoa egiten zaigu Baradisu Berria lortzea, banandu alderdikide bakoitzak, berea bultzatzearen, guztien onurakoa dena galazotzen digulako.

Espirituaren gogo zabalak Azken Epaiari uztarorainoko luzamena ematen digu, gizakia ere bere fruetatik obeki ezagutzen delarik, dagokigun epaia gertatzeko epea ematen digula.

Magiaren kiribiloan galdu zen herriak, bere etxean hartu al izan zuan igarleek agindu Mesias Salbatzailea, errua andia izan zen tokian andiagoa behar zuelako izan Espirituren graziazko laguntza.

Saulo farisear alenaren oinarriko aldaketa miragarria izan zan benetan, kristauen jasarle eraila izatetik Kristoren jarraile sutsu izatera bihurtu zelako, hotz, juduar berezi-berekoi barik, abagune berdinez mundu guztiarengana idekia.

Maite Espirituak antxinatik iragarri du bere jardueraren ganora eta hagatik jatorrizko herrien jokero eta mitoen edukinetan aztertu behar dugu aldian aldiko bere Ama Eskola.

Arkeologiak argitu arketipoak aztertzen euskera den laguna aintzat artzea merezi du, ez baztergoa jasan duenari begiramena sor zaiolako bakarrik, maiz baztertuena bera delako baliagarriena, beragana etsaigoak ere argi agertzen digunez.

Eleizan balore eta baliabideen aldaketa ordua jo duelarik eta, geiengoa irrikaz aldeko duela ere, lehengo exerlekuak eta bizi maila gorde zale amorraturik ez da falta, eurak direla, hain zuzen, benetakoa aldaketa bidean delako seinale.

Baztergo Teologiak ba du azterbiderik naiko Sikologian bertan Narkisen Aduaz kutsatuekin ohar egiten duenean, hain zuzen. Beste guztiok bezala, Sorkuntzaren Espiritua bera dute osakai eta epailari.

Jatorrizko pekatu, ezin argituak ere, ba du azalpen naiko *Baztergo Teologiaren* historian: gizaki buru-eritsia bera da-ta.

MITOANALISIS PARA EL DICCIONARIO ETIMOLÓGICO

Sigla batzuk: aur. aurrizki “preposición atz. atzizki “sufijo” an. “analogía” adb. adibidez “por ejemplo” tok tokizen ark. arketipoa (Ikus beste batzuk or. 7)

A

ab-<Ba aur., adb. *ab*+*arrikatu* “asolar”.
aba<Ba “aita”, konposagai, adb. *osa*+*aba* “tío”, *izeba* “tía”
abail<Baal>Ba+Ilu “Iluren seme”.
abal<ab+al>apal > *afable*.
abade<ab+ata>apaiz “cura”.
Aberri, Ainemendiko jainko,>*abere* zaindari>*haber*, *aper*^(v)>*affaire*^(v).
abutu<ab+butu>putu>putsu>pozo.
ad- aur.<at->uTu “iduzki jainko”, adb. *ad*+*obatu*> *adobado* “jaki obetua”.
adobe>*ad*+*obe* “bustin obetua”.
Adar<Ata+Ra, akadiar jainko “borrasca”.
adore<ad+*doru* “ánimo” adb. >*at*+*oratu*>*atoratu*>*adoratu*>*adorar*.
Adu akadiar jainko<uTu>*adu*>*ado*>*hado*>*fado* “suerte”.
Adur “sorte jainkoa”, *uTu*+*Ra*>*Tor* “trumoe>trueno”.
af- <ab- ekintza baitatua, adb. *afa*+*itaitu*> “afeitar”.
ag-<ak->Ka aur. “gaia”, adb. *ag*+*ertu*> *agertu* “aparecer”.
Agarre>*Garra* “despejado” adb. *Agarramendi*, *Garmendia*, tok.
ager, *agiri* <ag+*erri*>“agro”^(v).
agindu<ag+*indu* “prometer”.
agur<ekur, “inclinación de cabeza al dios del santuario, adoración del *agure*”.
agure<ekur “anciano >*augur*>*gurú*”.
aiene<ai+*ene* “endecha, queja”.

Aiete<Ate+*eta*>*Atteta* tok.
ain, *aina*>*haina* “tan, tanto”,<aN “zeru” gonbaratzekoa.
aina <aN/iNanna “hermana mayor”.
Aina/*Aniemendi*, *eNi*/iNanna m. “zeru alabari” opa santutegia”, tok.
ainanino<anunna^(s)><aNu jainko *ume*-*ak* “ángel”, *aiñaniño*ko “demonio”.
ain>aN>*tan*^(gaz) gonbaratzekoa.
ainen<ain+*en* gehiengoan “maldición”
aintu <ain+*tu* “elevator, dignificar”.
aire<eRra, Ra, dios egipcio “aire”.
aita<atta “padre”>uTu “iduski”, sumeriar jainko, hizkuntza arketipoa.
aitor<aita+*or* “noble”, “Aitoren seme”,
Ator^(k) Ra alabaren semea, analogiaz.
aize>haize “viento”, an. de aS, arquetipo de santidad ritual.
aizkora “hacha”, arma de Hadad^(a) montado en el *Ishkur*^(s)/*Xekor* “toro”.
aker<ak+*ar* “macho cabrío”, esfinge de leones, custodios del templo de Ra.
ak-<Ka aur., adb. *ak*-(a)+*batu*>“*acabar*”.
akiti^(s) “aNu jainkoaren jaiak “correrías por el *ekur*”.
akitian<akiti+*an* “brincando”.
akitu<ak+*aitu* “fatigarse”>*quieto*.
akordatu<ak+*ordetu* “recordar”.
al<iLu^(a) “poder”, kanaandar jainkoa.
alen<alaa*n* gehiengoan, adb. *aliym*^(a).
al- aur.<aLa/iLu, “poder”, adb. *al*+*egin*, *allasso*^(v).
ala, oihu *aLa*-ri, “ale!, pasto”.
alaba<ala+*ba*, *ahal* baitatua, “hija”.
alajainko, ohiu “ojalá” <aLa.
alakatu<al+*akatu*>*halagar*.
alde<al+*te* “a favor”>*lado* itzuliketaz.
Aldi<al+*di* “racha de iLu, generación”
diosa urtaria de la plantación, >*aldaka*.
alen>aLa+*ena*/*ahalim*^(a) gehiengoan.
alke<aL+*ka*, “ahal gabe, lotza”.
altu<al+*tu*> *alto*.

am- aur. <aN, adb. *am*+*il*, *am*+*oratu*.
Aprile/*Abril*<bere+*ile* “mes del ganado”.
ama<aN>*madre*^(gaz), bizi sorgua, iturria.
amai<ama+*in* “akabatu, concluir”.
amako<ama+*ko*>*amicu*^(v)>*amigo*.
amarra<am+*marra*, “amarre”<Mari>
amare^(v) “amar”, *amari*^(v) “límite”.
amatigo<ama+*ti*ko “serenidad”.
amatigatu>*mitigar*.
amatu<ama+*tu*> “amar”>*amado*/a.
amatau<mato+*tu* >*amatar* “apagar”.
amil >am+*il* “depeñarse, perderse”.
amilaina<amil+*laina* >*amilanar*.
amilamia<amil+*lamia* “nereida”.
amore <aMa+*Or* m., *amorio*>*amor*.
aN>aNu^(s) “cielo” ark. sumero-akadiar jainkoa”, hizkuntza arketipoa,
an-/ana-<aN aur., adb. *an*+*bildu*, *an*+*tolatu*, *ana*+*baino*^(v).
anae<aN>*anai*, *aina* “hermano/a”.
Anboto<An+*boto*>*bote* “cielo que le otorga el poder”m..
andi<aN+uTu>*Antu*^(s), “mujer de aN”.
andre<*andere*>aN+uTu+eRra hiru-koitz arketipodun titulua.
angeru<anunnaku^(s) “Anun *uneko*/de la esencia de *Anu*>*ainaniño*ko”> *angelon*^(v) “ángel, demonio”.
ansia<antsi<an+etsi>“*ansia*”.
antsi<an+etsi “diligencia”.
antu<aN+uTu>*an+tu* “*anditu*, *enchir*”.
antxitu<an+*atxitu* “consegui”.
An.shar^(a)=*Sar.an*^(s), padre de aN “cielo viejo” m., como en aN “*anciano*”.
antzar >*ansar* “zeru altuko txoria”.
antzi “suspiro, gemido”.
antz <aN+uTu>*ANTU* jainko sortzaile
Anum.zar^(s) “*Anu*+*n*+*azar*o” “tiempo de aNu”>*Ononzar*^(eus) “Navidad” m.
anze<Antu “destreza materna”.
Añomendi/*Montaña* “monte de ANU”.
Añua<aNu “cielo” m.
ap- <ab- aur. *ap*+*aindu*>*apañar*.
apa<aba “beso, abuela”.

aR<Ra/erRa^(k) “aire”>eRra^(eus), Egipton jainko, hizkuntza arketipoa m.
aragi<ara+*ki*<Ra “carne de Ra” m.
aratz<aratu>*rado*^(v)>*raso*^(gaz).
arau<ara+*du* “eRraren *erregela*”.
arerio <ar+*erio* “eRraren *etsai*”.
argi <ar+*ki*<eRra+*ki* “lúcido”.
arketipo>*arje*^(v)>*tipo* “eredu zahar”, Jung sikiatraren izendegian.
Aramendi/*Ramonte* “monte de Ra” m.
arra-aur.<Ra, adb. *arra*+*kalatu*>*recalar*>*regalar*.
Arraba/*Barria*>*Arreba*/*Berrio* tok.
arramantza<eRra+*manata* “maquina-ción contra el Ra”.
arrano “buitre, águila”, mascota de Ra.
arrapatu<arra+*batu*>*arrebatar*.
arras “prendas, totalmente”>*raso*.
arauts<arra+*auts* “huevo” <Ra+uTu.
arrazio<arra+*zio*>Ra+uTu>“*razón*”.
arrazoin<*rasoin*><Ra+aTon “grato a Ra”.
arre zamariak zurrujatzeko ohiua.
arreba<ERra+*ba* “hermana”^(a).
arren “¡por Dios!”, oración a Ra.
arri>*harri* <erRa “piedra”.
arritu>*harritu* “volverse de piedra”.
Arthe, Ainamendiko jainkoa<Ra+uTu “tiempo de Ra”>*arte* “sosiego”.
artezi<arte+*esi* >“*ardid*, magia”.
aS>*ax*/*ats*>*asa* “aliento”, hizkuntza arketipoa, erritoko santutasuna.
as-<As aur. adb. *as*+*beratu*>*aspertu*,
as+*biritu*>*spiritu*^(v)>*espíritu*.
asaba<as+*aba*>*asabatu* “antepasado”
eta euren eguna *Sabbatu*>*Sábado*.
asabotu “pasatu”>*pasado*.
asaga<asaka>*asag*^(s) “azken erasoa, postremeria”>*zaga*>[a] *sacco*^(a) m.
Asaro<asi+*aro* “sementera” m.
Asaru^(s), Marduken titulua “que estableció la sementera” = *asaro* m.
asi>*hasi* “comenzar” de aS.

asma<as+ama>asma+tu.
 asmatu ">asmar, inventar".
 asperatu<as+beratu>"suspirar".
 aste>as+ate "comienzo" >Ast⁽⁶⁾.
 asti>aste<asi+te>"semana, comienzo".
 asun<at+une>"hortiga"
 at- aur., adib. at+otsi "acoger"<uTu⁽⁶⁾>
 "iduzki zoria, arratzoro", atoratu>azorar.
 at<ate!, uxa oihua.
 ata>aíta>aítxe<uTu ark. >iduzki.
 ate>atx>aítz "puerta, paso, peña" iduz-
 kiaren sartu-urtenen atepak.
 atabut <at+abutu>"ataud, puerta de la
 ensañación, introducirse en el pozo".
 Atar/Arrate tok.
 atari>terra⁽⁶⁾"portal del sol=tierra".
 ato "hermano mayor", sumerio-euskera.
 atta<ate>Aíta⁽⁶⁾>Hades⁽⁶⁾"heriotz atepak".
 atta+ra>Adar⁽⁶⁾>adar, dios del tiempo
 atmosférico, borrasca".
 ats<at+aS>"aliento".
 atso<at+oto>"anciana/o, ayer".
 axari<asar+tu>asarratu/aserretu.
 atiün<at+une>"tino, experiencia".
 Aturri>Adur/Urrate tok. <ate+ur.
 aur<Aruru, akadiar ama jainkosa. m.
 aut- aur., adb. auteman "considerar"
 auta>auta+tu "elección, elegir".
 autetsi<aut+etsi>"averiguar".
 autor<aut+Or>aitor "confesar".
 auzi<auzu>hauzi "pleito".
 auzu<aut+usu>"permitido".
 az- aur., adb. az+atoratu "revolver".
 azaga<asa+ka>"sin aliento, postri-
 mería, >zaga>zaguero".
 azagako "escatológico, final".
 azaro<Asaro⁽⁶⁾>"sementera" de azi+
 aro "tiempo de sembrar".
 Aya<Atta<uTu>ate>Atxa tok.
 azari<axari<azagari<asag⁽⁶⁾.
 azpiratu<azpira+tu>"someter".
 azti<azi+te>"mago, insuflador".
 aztu<ak+kastu>">gastar, olvidar".

B

Ba "baita, psykhe⁽⁶⁾, hizkuntz arketipoa",
 adb. "ene ba!/iay ba!, ara ba!" oihuz.
 bala<Ba+aLa>Baal "jainko gizatua, bu-
 rrukari alena, "abail, bala, arma izenak.
 baba>faba>haba. "lekan baitatu".
 Ba benatu>penatu "Ba apenado, adib.
 Benu⁽⁶⁾<Ba+Inu>"Fénix⁽⁶⁾", m.
 baga<baka>bake>paz "Ba barik".
 bagatu>pagar, ba an.
 bai "sí"<Ba baikor/Ka>quiá, ukakor.
 Baigorri/ Gorbaie<ekur+ibai.
 baimen<bai+men>"permiso".
 bake>paz<Ba+ka>"sin ba", paz roma-
 na, resultado del exterminio.
 baltz<ba+altza>"negro".
 bar^(ar)>parau⁽⁶⁾"Ra hijo, faraón, par"
 bar- aur. <Ba+Ra, adb. bar-+duindu.
 barau<ba+arau>"norma aceptada".
 Baratzakusu<baratz+kusu, Mardu-
 ken 4º tituloa m."vigilante del huerto".
 bardin<bar+duin>pardina^(gaz).
 barka "atabut, zendua Niloz zehar",
 barku>"perdón, indulgencia" sobre...
 barkatu>parcere⁽⁶⁾"perdonar".
 Barrena/Nabarre tok.
 barrendu<barruen+du>"interiorizar".
 barrundu>barruntar<barru+undu.
 bart<ba+arte>"a noche".
 ba- aur., adb. ba+aztertu.
 basa<baso<batu>"salvaje, reunir".
 Basajaun m, "señor del bosque",
 genio mítico, émulo de Humbaba⁽⁶⁾.
 Bat/Bata>Ptah⁽⁶⁾>patekoen jainko Men-
 fis Egipton, "gure jauna bera da Bat"
 gurean katekizatu eta lehen numeralzat
 onartuazo gintuztenak.
 batu "reunido", ata+batu>asabatu, "ante-
 pasados, idos, recordados en Sábado, bai
 eta llurrean zapatu izan zirenak
 be "bajo", actitud Ba, behe "suelo".
 beatu>behatu>"abajado" eta hizkunez
 "beatu/beato"="muerto/ feliz".

ben<be+ena>"verdad aceptada".
 beena>bena>bene⁽⁶⁾"verdad, bien".
 beetu>behetu "abajar, sepultar".
 behar >deber, necesidad".
 beka>peca, negación de la obediencia.
 Bekas>Pikaza/Caspe tok.
 bekatu>peccatu⁽⁶⁾>pecado.
 ben⁽⁶⁾>van^(al)"hijo del dios aN".
 ben+az "en verdad".
 ber->per- aur. adib. ber+ezi, perfecto.
 bera "mismo, único">vera/veru⁽⁶⁾ ana-
 logización de be+Ra aceptado.
 berro<be+erro>berru>ferru⁽⁶⁾>hierro.
 bete>betatu "cumplir, pleno".
 bezatu>"avezar">facere⁽⁶⁾>faire⁽⁶⁾
 >hacer>facienda>hacienda.
 bide>fide>fede "camino/fe".
 biloi>filii⁽⁶⁾>hijo de iLu".
 bizi<ba+iz>"barnez izan, vivir"
 bortits>fortis⁽⁶⁾>"fuerte".
 botu>voto>pot esse⁽⁶⁾>poder^(gaz)
 birau<biratu<irabetu, arauari kontra-
 esan "maldición".
 buru utsal>bruxa⁽⁶⁾"buru saldu".
 Butzu>Ap-su⁽⁶⁾m. >pozo>puto.

D

Dagenil "Agosto-Septiembre"<Daganu⁽⁶⁾>
 m. "sumeriar jainko, dios del tiempo.
 dama<Maat⁽⁶⁾>itzuleztara "título de diosa",
 patriarkaduren iraultza agirian.
 damu>damnu⁽⁶⁾>daño<Damu⁽⁶⁾/Dumuzi
 m. jainkoaren zoria.
 damutu>Damu+tu>damnatu⁽⁶⁾.
 de- aur. <uTu, adb. de+bekatu.
 deado<de+atu>deitu "clamar".
 Deba/Abade>Abadie>Badia tok.
 Deba<ate+ibai>"puerto de ría".
 dedu<de+uTu>"honra".
 dei>deitu "llamada, llamar".
 dena<deuna>"Andredena Maria, Santa
 Señora María".
 deun<done<aToN⁽⁶⁾>Adonai⁽⁶⁾> jainkoa.
 deus<deusa>"algo", Deus⁽⁶⁾>"Dios".

deusa<de+usa>"carga, cuidado".
 doi<uTu⁽⁶⁾>"uduzki/zuzen, justo",
 doha<dona>done>don<aToN.
 doan<doa+n>"gratis".
 done<Aton⁽⁶⁾>Adonai⁽⁶⁾> jainko "santo".
 donga<dona+ka>"maldito".
 Doniene gehiengoan "el más santo", San
 Juan, eguzki mugako jaia.
 doru<uTu+oRu>"poder, anillo solar".
 duin<uTu+iNu>dignu⁽⁶⁾>dino.
 Duranki⁽⁶⁾<uTu+Ra+An+ki>"lugar del
 cielo y la tierra. Mari Urrikaren lurra".
 duzti<uTu+eztu>guzti "todo"

E

edatu>edere⁽⁶⁾<uTu+tu, "Utuk ina".
 edasi<ed+asi>idatzi "contar, escribir".
 eder<eter⁽⁶⁾<uTu+Ra>"bello, hermoso".
 edosi<ed+osi>osotu<uTu>"redimir".
 eduki<ed+uki>educar "conseguir".
 egal<ek+al>"ala, alero".
 egi "horizonte", de eki "sol".
 egia "verdad" de horizonte humano
 según eki/egia "sol/verdad".
 egin<ek+in>"hacer (humano) frente a
 in "acción divina de iNu "cielo".
 egortzi<ekur+tu>"ungir">aegroti⁽⁶⁾
 "enfemo", según egortzi/aegroti.
 Eguberri "Solsticio de invierno=
 Nuevo día, Navidad.
 Eguen "(día) de Egu "sol", Jueves".
 eguriki "aguardar", actitud del dios del
 ekur o del guru que le atiende.
 ek-<Ka aur. adb. ek+arri>"esfuerzo físi-
 co de arrear".
 eg-<ek- aur., adb. egortsi, egari.
 eina>heina "tanto como", de ENI "cielo".
 Ekain, de Eki+gain>"solsticio de verano,
 o de Ekien "(mes) del sol", Junio".
 eki "soleado, sol".
 ekur⁽⁶⁾<Ka+oru>"monte santuario"m.
 ekur⁽⁶⁾>egur>kur>gur "templo monta-
 ñero", ekur (inverso)>roca.
 ekuri/ekuri "atseden, firme"

el!<iLu, aLa, eL jainkoari deia.
elbi<elui/euli<iLu+-ba “mosca”
ele>elekatu “palabra, hablar”.
Eloim^(b)>Ilu+-m “alen” gehieingoa.
eme<ama, aN arketipoz.
en^(s)<ain<iNi “nagusi, pontifice máximo”.
 -en atz. gehiengo, adb. *ederren*.
en- aur. adb. *endone* “muy santo”.
en- aur.<eNi, adb. *en+*+baratu, *enoitu*.
ena<eNi dios, muletilla “en verdad”
enda<aN+uTu “raza divina, gente”.
ene!<eNi. poz ohiu “¡Dios mío!”.
enei! <eNi, neke ohiu. “ai de mí!”
eni “a mí”, *eNi* “jainkoa” hurrireraz.
Enki<aN+ki^(s) “aN lurrean”.
epe “plazo”, tiempo del arquetipo Ba.
era “modo”, addb. euskera, erdera.
era- aur. adb. *ebaki*>erabaki.
eregu<er-+egu “mimo, protocolo”.
erregu<erre-+ko>rogu^(b)>ruego “pira
 de ofrendas para rogar”.
errekitu<erreki+-tu>requerido “ali-
 mentos cocinados para enfermos”
eresi<er-+etsi “himno, decir”.
erin<er-+in “expiar” >erinia^(g).
eretxi>heresi^(g)>heregia “pensar”.
erun<Or+-an>eroan “llevar”, >ruo^(b)
eroiu <er-+oiu “quejido humano”.
erosi<er-+otsi “redimir”, acción de uTu.
eroso<er-+oso “cómodo”.
err-<erRa aur., adb. *erresi*.
ERra, Ra, egipciar jainkoa, “aire, eroe”,
 hizkuntza arketipoa.
erran<erra+ino>narro^(b), itzul. “decir”.
erra “ira, resquemor”, acción de RA.
